

# EAEko ekonomiaren urteko txostena 2020

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

[economia@euskadi.eus](mailto:economia@euskadi.eus)

[945-11.90.77](tel:945-11.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526

# Aurkibidea

|   |     |
|---|-----|
| 0. Ekonomiaren egoera laburbilduta.....   | 1   |
| 1. Pandemiaren eragin ekonomikoa.....   | 12  |
| 1.1 Sarrera .....   | 12  |
| 1.2 Munduko ekonomia jardueraren eta euskal ekonomiaren ingurunearen portaera ..... | 14  |
| 1.3 Kriaren eragina Euskadin.....   | 23  |
| 2. Pandemiari erantzuna .....   | 62  |
| 2.1 Politika ekonomikoa, pandemiaren kolpe gogorra arintzeko ezinbestekoa .....     | 62  |
| 2.2 Euskal sektore publikoaren erantzuna .....                                      | 68  |
| 2.3 Moneta politika eta pandemiaren eragina finantza sektorean .....                | 89  |
| 3. Etorkizuneko erronkak.....   | 100 |
| 3.1 Euskadi Next: herrialdea eraldatzeko proposamena.....                           | 100 |
| 3.2 Energia eraldaketa ekologikoa .....   | 104 |
| 3.3 Eraldaketa digitala .....   | 109 |
| 3.4 Eraldaketa demografiko soziala.....   | 113 |
| 3.5 Etorkizuneko eszenategiak .....   | 124 |

# Taulen aurkibidea

|  |    |
|--|----|
| 1. Ekonomia eremuen pisua, hazkundera eta ekarpenak.....   | 2  |
| 2. BPG errealaren bilakaera .....  | 3  |
| 3. EAEko taula makroekonomikoa.....  | 7  |
| 4. EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait .....  | 9  |
| 5. Munduko ondasunen merkataritza eremuka .....  | 15 |
| 6. Ekonomiaren aldagai nagusiak .....  | 23 |
| 7. Lehen arloko adierazle nagusiak.....  | 24 |
| 8. EAEko industriaren BEGaren bilakaera .....  | 25 |
| 9. Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak.....   | 27 |
| 10. Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak.....  | 28 |
| 11. Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka. Bolumenaren indize kateatua.....                 | 29 |
| 12. Errenten adierazleen bilakaera.....  | 31 |
| 13. Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera.....   | 32 |
| 14. Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera .....                              | 33 |
| 15. Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn .....                       | 34 |
| 16. EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga .....                                  | 39 |
| 17. Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena. 2020 .....                                 | 40 |
| 18. EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria .....                                 | 41 |
| 19. Enplegua sektoreka .....   | 47 |
| 20. Enplegua erregulatzeko EAEn baimendu diren espedienteak.....                                 | 50 |
| 21. Erregistratutako lan kontratuen bilakaera .....  | 55 |
| 22. Deflatoreen bilakaera .....  | 56 |
| 23. Kontsumoko prezioen indizearen banaketa .....  | 57 |
| 24. EAEko kontsumo prezioen indizea .....  | 58 |
| 25. EAEko industriako prezioen indizea.....  | 60 |
| 26. Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak .....   | 61 |
| 27. Zerga politikaren erantzuna. Aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko neurriak .....             | 67 |
| 28. Zerga itunduen bilakaera.....  | 71 |
| 29. Eusko Jaurlaritzaren gastua koronabirusaren krisiari erantzuteko. Partida nagusiak (I).....  | 74 |
| 30. Eusko Jaurlaritzaren gastua koronabirusaren krisiari erantzuteko. Partida nagusiak (II)..... | 75 |
| 31. Banku zentralen interes tasak .....  | 89 |
| 32. 10 urterako zor publikoaren errendimendua .....  | 90 |
| 33. Gordailuen bilakaera .....   | 94 |

|   |     |
|---|-----|
| 34. Egokitzeko neurrien adibideak eta horiek sailkatzeko irizpideak ..... | 108 |
| 35. Giza garapenaren indizea .....  | 114 |
| 36. BPG errealaren bilakaera .....  | 125 |
| 37. Euskadiko oinarrizko eszenategi makroekonomikoa .....                 | 126 |

## Irudien aurkibidea

|  |    |
|--|----|
| 1. EAEko eta munduko ekonomien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak.....                             | 1  |
| 2. BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn .....   | 5  |
| 3. EAEko BPGari eginiko ekarpenak.....   | 6  |
| 4. Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak .....  | 17 |
| 5. Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak .....                                      | 19 |
| 6. Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak.....  | 21 |
| 7. EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. ....                  | 26 |
| 8. Barne eskariaren osagaien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak.....                               | 30 |
| 9. EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko .         | 34 |
| 10. Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan Urte arteko aldakuntza tasak (I) .. | 35 |
| 11. Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II)  | 37 |
| 12. EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak.....  | 43 |
| 13. Partaidetza tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn .....  | 44 |
| 14. Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak .....  | 46 |
| 15. Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn .....  | 48 |

|     |   |     |
|-----|---|-----|
| 16. | Aldi baterako enplegu erregulazioko egoeran dauden pertsonen bilakaera .....  | 49  |
| 17. | Goi mailako hezkuntza maila (30-34 urte bitarteko taldea).....  | 51  |
| 18. | Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera .....  | 51  |
| 19. | Aldi baterako enplegu tasa soldatapekoekiko.....  | 52  |
| 20. | Lanaldi partziala duten landunek landun guztiekiko .....  | 53  |
| 21. | Langabezia tasaren bilakaera EAEn .....   | 54  |
| 22. | Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn .....  | 55  |
| 23. | KPIaren bilakaera.....  | 59  |
| 24. | EAEn eta Eurogunearen arteko inflazio tartea. 2019ko batez besteko balioak .....                                      | 60  |
| 25. | Zerga nagusien bilketa 2005-2020. BPGaren %.....  | 72  |
| 26. | Eusko Jaurlaritzaren eragiketa arrunten bilakaera 2005-2020 (BPGren %) .....  | 76  |
| 27. | Eusko Jaurlaritzaren aurrezkoa, kapital gastua eta defizita 2005-2020 (BPGren %) .....                                | 78  |
| 28. | Eusko Jaurlaritzaren zorpetze beharraren analisisa 2005-2020 (BPGren %) .....   | 79  |
| 29. | Foru aldundien eragiketa arrunten bilakaera 2005-2020 (BPGren %) .....  | 80  |
| 30. | Foru aldundien aurrezkoa, kapital gastuak eta defizita 2005-2020 (BPGaren %) .....                                    | 81  |
| 31. | Foru aldundien zorpetze beharraren analisisa 2005-2020 (BPGaren %) .....  | 82  |
| 32. | Autonomia Administrazioaren zor publikoaren bilakaera (gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera). BPGaren % ..... | 83  |
| 33. | EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko .....                             | 92  |
| 34. | Kredituen eta gordailuen alderaketa. BPGaren %.....   | 96  |
| 35. | Kredituen bilakaera .....   | 97  |
| 36. | Etxebizitzen hipoteken bilakaera. Mila .....  | 98  |
| 37. | Interes tasen bilakaera .....   | 99  |
| 38. | Ebaluatutako klima aldaketara egokitzeko estrategien mota eta ikuspegia .....   | 106 |
| 39. | A1 eta A2 motako tokiko klima politiken eta planen egoera Europar Batasuneko 885 hiritan .....                        | 107 |
| 40. | DESI 2020 adierazlea. Dimentsioen eta herrialdeen arabera.....  | 110 |
| 41. | DESI 2020 adierazlea. Dimentsioen arabera. EAE eta EB-28 .....  | 112 |
| 42. | Digitalizazio mailaren adierazle nagusiak .....   | 112 |
| 43. | Administrazio publikoekiko izapide elektronikoak (%).....   | 113 |
| 44. | Egoeren bilakaera pobrezia/ongizate errealaren eskalan. 2020.....   | 115 |
| 45. | Pobrezia edo bazterketa arriskuan dagoen biztanleriaren tasa. 2020.....   | 116 |
| 46. | Desberdintasuneko adierazleak. 2020. ....   | 117 |
| 47. | Soldataren bilakaera EAEn. Soldata arrakala. 2008. urtea= 100 .....   | 118 |
| 48. | Batez besteko eta erdiko soldaten bilakaera. 2008. urtea=100 .....  | 119 |
| 49. | Batez besteko soldataren bilakaera EAEn. 2008. urtea=100.....   | 120 |
| 50. | Erdiko soldataren bilakaera EAEn. 2008. urtea=100 .....   | 120 |
| 51. | Soldaten bilakaera EAEn. Pertzentilen arabera. 2008. urtea=100 .....  | 121 |
| 52. | Soldaten bilakaera EAEn. Pertzentil 10. 2008. urtea=100.....  | 122 |
| 53. | Soldaten bilakaera EAEn. Pertzentil 90. 2008. urtea=100 .....   | 123 |








## 0. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

**K**oronabirusaren pandemiaren urtea izan zelako gogoratuko da 2020. urtea, munduko ekonomiari eraso egin ziona, eta bake garaian inoiz ezagutu ez diren BPGaren jaitsierak ekarri zituen. EAEko ekonomiaren kasuan, beherakada %9,5 izan zen. Gogoratu behar da 2009an, finantza krisiaren garaian, BPGa %4,1 murriztu zela, eta bigarren atzeraldian, 2012an eta 2013an izandakoan, produktuaren murrizketa %2 ingurukoa izan zela urte horietako bakoitzean. Beraz, 2020ari dagozkion zifra ekonomikoak, Euskadiri zein munduko ekonomiari dagokienez, zeharo negatiboak dira.

**EAEko eta munduko ekonomien hazkundea. Urte arteko aldakuntza tasak**  
1. irudia



Iturria: Eustat eta NDF.

Hala, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), 2021eko apirileko txostenean, kalkulatu du munduko barne produktu gordinaren (BPG) jaitsiera %3,3 izan zela erosteko ahalmenaren parekotasunean, eta 3,6, berriz, truke tasaren arabera kuantifikatzen denean. Uzkuadura horren dimentsioa hobeto ulertzeko, gogorarazi behar da Atzeraldi Handiaren urterik gogorrean (2009) munduko BPG hamarren bat baino ez zela murriztu. Krisi horrek ia bakarrik herrialde garatuei eragin zien, eta egungo pandemia eta haren ondorio sanitario eta ekonomikoak eremu ekonomiko guztietara hedatu dira. Horren ondorioz, ekonomia garatu guztien BPGa %4,7 murriztu zen, eta azaleratzen ari diren eta garatzeko bidean dauden herrialdeena, berriz, %2,2.

Munduko ekonomiaren hiruhileko profilak<sup>1</sup> lehen hiruhilekoan bertan erakutsi zuen beherakada bat (-%1,9), koronabirusak Txinan izan zuen eraginak baldintzatuta; izan ere, herrialde horretan sortu zen pandemia, eta murrizketa handiak erabaki zituen hasiera-hasieratik. Birusa mundu osora hedatu ahala, BPGaren beherakada handituz joan zen, bigarren hiruhilekoan -%7,7ra iritsi arte. Hortik aurrera, beherakadaren erritmoa gelditzea lortu zen eta hirugarren hiruhilekoan urtetik urterako tasa -%2,2ra arte leundu zen. Kutsatze olatu berriak agertu zirenez, ezin izan zen susperraldia osatu urtearen azken zatian, eta, progresioak aldekoa izaten jarraitu zuen arren, ez zen lortu balio positiboa berreskuratzea (-%0,7).

***Ekonomia eremuen pisua, hazkundea eta ekarpenak***  
***1. taula***

|                             | Pisua       | Hazkundea   | Ekarpena    |                      | Pisua       | Hazkundea   | Ekarpena    |
|-----------------------------|-------------|-------------|-------------|----------------------|-------------|-------------|-------------|
| <b>Ekonomia aurreratuak</b> | <b>42,5</b> | <b>-4,7</b> | <b>-2,0</b> | <b>Garatu gabeak</b> | <b>57,5</b> | <b>-2,2</b> | <b>-1,3</b> |
| AEB                         | 15,9        | -3,5        | -0,6        | Txina                | 18,3        | 2,3         | 0,4         |
| Eurogunea                   | 12,0        | -6,6        | -0,8        | India                | 6,8         | -8,0        | -0,5        |
| Japonia                     | 4,0         | -4,8        | -0,2        | Errusia              | 3,1         | -3,1        | -0,1        |
| Erresuma Batua              | 2,2         | -9,9        | -0,2        | Brasil               | 2,4         | -4,1        | -0,1        |
| Kanada                      | 1,4         | -5,4        | -0,1        | Mexiko               | 1,9         | -8,2        | -0,2        |
| Besteak                     | 6,9         | -2,1        | -0,1        | Besteak              | 25,0        | -3,3        | -0,8        |

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

<sup>1</sup> Lerroalde honetako aldakuntza tasak Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak kalkulatu ditu, ELGEren eta NDFren datuak erabilia.

Herrialdeek pandemiari eman zioten erantzuna ezberdina izan zen. Batzuek, hala nola Txinak, oso neurri zorrotzak onartu zituzten hasieratik, eta beste batzuek, esate baterako AEBek, jarduera ekonomikoa lehenetsi zuten, nahiz eta herrialdeak kutsatze ugari pairatu zituen. Erantzun arinago horri esker, munduko lehen potentzian BPGaren beherakada beste herrialde garatu batzuetakoa baino nabarmen txikiagoa izan zen. Zehazkiago adierazita, AEBetan BPGa %3,5 murriztu zen urteko batez bestekoan. Familien kontsumoa %3,9 murriztu zen, zerbitzuen gastua nabarmen gutxitu zelako (-%7,3). Baina gehien uzkuritu zen osagaia inbertsio pribatua izan zen (-%5,2), bereziki egoitzaz bestelako inbertsioa. Gobernuak bultzada txikia eman zion jarduerari (%1,1), aurreko urteetakoa baino txikiagoa.

**BPG errealdaren bilakaera**  
**2. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|                         | 2015       | 2016       | 2017       | 2018       | 2019       | 2020        |
|-------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|-------------|
| <b>Munduko ekonomia</b> | <b>3,5</b> | <b>3,3</b> | <b>3,8</b> | <b>3,6</b> | <b>2,8</b> | <b>-3,3</b> |
| Herrialde garatuak      | 2,4        | 1,8        | 2,5        | 2,3        | 1,6        | -4,7        |
| AEB                     | 3,1        | 1,7        | 2,3        | 3,0        | 2,2        | -3,5        |
| Japonia                 | 1,6        | 0,8        | 1,7        | 0,6        | 0,3        | -4,8        |
| Erresuma Batua          | 2,4        | 1,7        | 1,7        | 1,3        | 1,4        | -9,9        |
| Eurogunea               | 2,0        | 1,9        | 2,6        | 1,9        | 1,3        | -6,6        |
| - Alemania              | 1,5        | 2,2        | 2,6        | 1,3        | 0,6        | -4,9        |
| - Frantzia              | 1,1        | 1,1        | 2,3        | 1,9        | 1,5        | -8,2        |
| - Italia                | 0,8        | 1,3        | 1,7        | 0,9        | 0,3        | -8,9        |
| - Espainia              | 3,8        | 3,0        | 3,0        | 2,4        | 2,0        | -10,8       |
| - Euskadi               | 3,0        | 3,3        | 2,8        | 3,1        | 2,2        | -9,5        |
| Garapen bidean daudenak | 4,3        | 4,5        | 4,8        | 4,5        | 3,6        | -2,2        |
| Txina                   | 7,0        | 6,9        | 6,9        | 6,7        | 5,8        | 2,3         |
| India                   | 8,0        | 8,3        | 6,8        | 6,5        | 4,0        | -8,0        |
| Errusia                 | -2,0       | 0,2        | 1,8        | 2,8        | 2,0        | -3,1        |
| Brasil                  | -3,5       | -3,3       | 1,3        | 1,8        | 1,4        | -4,1        |

Iturria: NDF eta Eustat.

Euroguneak pandemiari emandako erantzuna murriztaileagoa izan zen eta hori nabaritu zen urteko egoizpenaren zenbakietan, -%6,6ko saldoa jaso zuelako. 2019an bititako arazoetako batzuek, hala

nola Brexit-aren negoziazioak, AEBekiko merkataritza gerrak eta automobilgintzaren krisiak, protagonismoa galdu zuten 2020an, pandemiaren aurrerapenak eta herritar guztiak inokulatzeko txerto eraginkor baten bilaketak erabat baldintzatu baitzuten urte hura. Era berean, azpimarratu behar da Covid-19k sortutako krisiari eman zitzaion erantzun ekonomikoa nahiko azkarra izan zela, bai Europako Banku Zentralaren (EBZ) moneta-politikaren aldetik, bai zerga politikaren aldetik, non Next Generation EU plana eztabaidatu eta abian jarri zela nabarmentzen baita. Plan horrek 750.000 milioi euroko diru kopurua du guztira, eta Europa ikuspegi ekologiko, digital eta erresilienteagotik berreraikitzea du helburu.


Euroguneko portaera eredu herrialde nagusi guztietan errepikatzen da, intentsitate desberdinekin, pandemiari emandako erantzunen eta egitura ekonomikoaren arabera, batez ere turismo sektorearekiko mendekotasunaren arabera. Hala, Alemaniak eremuko batez bestekoa baino pixka bat gutxiago egin zuen behera (-%4,9), industriak herrialde horretan duen pisu handiagoari esker. Frantziak (-%8,2) eta Italiak (-%8,9) pairatu zituzten gehien ondorioak, baina ekonomia kaltetuen Espainia izan zen (-%10,8), mugikortasunaren murrizketak eta turisten galerak eragin handia izan baitzuen urtean zehar.

Garapen bidean dauden herrialdeen multzoan, bereizi egin behar dira Txina eta ekonomia horrekin lotura handiena duten herrialdeak, eta gainerako ekonomiak. Lehenengo kasuan, ekonomiaren paralisia urteko lehen hilabeteetara mugatu zen. Pandemia zorrotz kontrolatu ostean, azkar itzuli zen normaltasunera. Txinak lehen hiruhilekoan bakarrik gutxitu zuen bere BPGa (-%6,8), eta jadanik bigarren hiruhilekoan (%3,2) hazkundera berrekin zion. Urteko balantzeak %2,3ko igoera utzi zuen. Atzeraldia saihestu zuten Asiako beste herrialde batzuk Taiwan, Vietnam eta Bangladesh izan ziren. Garatzeko bidean dauden gainerako herrialdeek munduko ekonomiaren bilakaera bera ezagutu zuten eta BPGaren beherakada esanguratsuak nozitu zituzten. Nabarmenak dira Indian (-%8,0), Mexikon (-%8,2) eta Hegoafrikan (-%7,0) jasotako jaitsiera handiak, baina Errusian (-%3,1) eta Brasilen (-%4,1) ere beherakada esanguratsuak gertatu ziren.

Munduko eremu ekonomiko ia guztietan BPGak beherakada handia izan zuen eta testuinguru horretan EAEko ekonomiak %9,5eko jaitsiera ezagutu zuen 2020an. Azken atzeraldien erreferentziak 2009ko -%4,1, 2012ko -%2,0 eta 2013ko -%1,7 dira. Beraz, egungo gertakariak nabarmen gainditzen du azken hamarkadetan ezagututako eragin negatiboa. Beherakadaren intentsitatea oso handia izan zen arren, konparazioz, 2020ko ekoizpena 2008koa baino puntu bat txikiagoa izan zen bakarrik, eta 2013koa, adibidez, erreferentzia hori baino 6,6 puntu txikiagoa.

Jardueraren galgak lan merkatuan utzi zituen ondorioak tamaina handikoak izan ziren. 2020an, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %8,1 murriztu zen. Bestela esanda, 2020an egindako lanorduak, lanaldi osoko jardunaldietan bilduta, 2019an behar izan zirenak baino 80.000 lanpostu gutxiagoko kopurua ematen dute. Kasu horretan, behar izan zen enplegu-maila 2008koa baino hamar puntu txikiagoa izan zen, eta, aitzitik, 2013koa eta 2014koa baino puntu bat handiagoa soilik.

**BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn**  
**2. irudia**




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.


Barne produktu gordinaren jaitsiera barne eskarian zein kanpo eskarian nabaritu zen, nahiz eta lehena izan azken emaitza gehien baldintzatu zuena. Izan ere, BPGari egindako ekarpenaren terminoetan, barne eskariak bederatzi puntu baino zertxobait gutxiago kendu zion hazkunderari eta kanpo eskariak, berriz, sei hamarren inguruko ekarpen negatiboa egin zuen. Urtearen zati handi batean jarduera ekonomiko partzialki gelditu izanak kalte egin zien bai esportazioei bai inportazioei, baina lehenak izan ziren balio negatiboenak erregistratu zituztenak. Zehatz-mehatz adierazita, ondasun eta zerbitzuen kanpo salmentak (atzerrian gehi Estatuko gainontzeko erkidegoetan) %17,1 murriztu ziren termino errealean, eta erosketak, berriz, %15,3. Jaitsiera handien emaitza hori, gorabehera batzuekin, urte osoan zehar mantendu zen, baina bigarren hiruhilekoan jaso zuen tasa gorena.

**EAEko BPGari eginiko ekarpenak**  
**3. irudia**

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Barne eskariaren bi osagai nagusien artean, kapital eraketa gordina izan zen sortutako ziurgabetasunak eta hartutako murrizketek gehien kaltetu zutena, baina azken kontsumoak ere beherakada nabarmena pairatu zuen (-%7,5). Administrazio publikoen esku hartze azkarraren ondorioz, kontsumoa %4,5 handitu zen, aldagai horrek aurreko atzeraldietatik jaso duen baliorik handiena baita. Aitzitik, mesfidantzak eta mugikortasunaren murrizketek eragina izan zuten familien gastuan, eta zuhurtziazko aurrezpena areagotzea erabaki zuten. Hori dela eta, kontsumo pribatua %10,7 uzkuritu zen, eta tasa horrek nabarmen gainditzen du hainbat hamarkadatan erregistratu den beste edozein tasa.

Inbertsioak hazkunde handia lortu zuen etengabe 2015etik 2019ra bitartean, baina pandemiaren etorrerak eta birusaren hedapen azkarraren inguruko ziurgabetasunak ekoizpen lerro berriak abiaraztea geldiarazi zuten. Batez beste, kapital eraketa gordinaren beherakada %11,6 izan zen, eta antzeko murrizketak jaso ziren ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioan (-%13,3) zein gainerako inbertsioan (-%10,6). Datu horien irakurketa positiboa hauxe da: urteak aurrera egin ahala eta txertoak lortzeko eta inokulatzeko prozesuak aurrera egin ahala, zalantzak desagertzen joan ziren, eta urte arteko tasak, oraindik oso negatiboak izan arren, asko leundu ziren, bigarren hiruhilekoko -%23,0tik laugarreneko -%8,4ra.

**EAEko taula makroekonomikoa**  
**3. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|  | 2015       | 2016       | 2017       | 2018       | 2019       | 2020        |
|--|------------|------------|------------|------------|------------|-------------|
| Barneko azken kontsumoa                    | 3,1        | 3,0        | 2,9        | 2,6        | 1,9        | -7,5        |
| Familien kontsumoko gastua                 | 3,3        | 3,3        | 3,1        | 3,0        | 1,8        | -10,7       |
| Herri administrazioen kontsumoa            | 2,1        | 1,8        | 2,1        | 1,2        | 2,2        | 4,5         |
| Kapital eraketa gordina                    | 3,8        | 5,5        | 3,1        | 4,9        | 3,3        | -11,6       |
| Ekipamenduko ondasunak                     | 7,3        | 8,6        | 3,5        | 4,5        | 2,1        | -13,3       |
| Gainontzeko inbertsioa                     | 2,0        | 3,8        | 2,9        | 5,1        | 4,0        | -10,6       |
| Barne eskaria                              | 3,2        | 3,6        | 2,9        | 3,2        | 2,2        | -8,5        |
| Esportazioak                               | 1,0        | 1,8        | 4,8        | 2,7        | 0,4        | -17,1       |
| Inportazioak                               | 1,4        | 2,2        | 5,0        | 2,8        | 0,4        | -15,3       |
| <b>BPG</b>                                 | <b>3,0</b> | <b>3,3</b> | <b>2,8</b> | <b>3,1</b> | <b>2,2</b> | <b>-9,5</b> |
| Lehen arloa                                | 13,1       | 1,0        | 10,1       | 1,7        | 3,2        | -9,3        |
| Industria                                  | 3,1        | 4,2        | 2,5        | 2,0        | 1,3        | -11,8       |
| Eraikuntza                                 | 1,1        | 0,2        | 1,6        | 4,0        | 3,4        | -9,5        |
| Zerbitzuak                                 | 3,5        | 2,8        | 2,9        | 3,1        | 2,5        | -8,5        |
| Merkataritza, ostalaritza eta garraioa     | 5,0        | 3,6        | 4,1        | 4,3        | 2,6        | -12,3       |
| AA. PP., hezkuntza eta osasuna             | 1,5        | 2,4        | 2,2        | 1,8        | 2,3        | 1,0         |
| Gainontzeko zerbitzuak                     | 3,6        | 2,5        | 2,6        | 3,0        | 2,5        | -11,0       |
| Balio erantsi gordina oinarrizko preziotan | 3,3        | 3,0        | 2,8        | 2,9        | 2,3        | -9,3        |
| Ekoizkinen gaineko zerga garbiak           | 0,2        | 6,8        | 2,3        | 4,9        | 2,2        | -10,4       |

Iturria: Eustat.

Sektoreen azterketak azaltzen duenez, pandemiak eragindako gorabeherek eragin handia izan zuten ekoizpen jarduera nagusi guztietan, baina industria izan zen urteko batez besteko beherakada handiena ezagutu zuen sektorea (-%11,8). Jarduera horren beherakada %26,7ra iritsi zen bigarren hiruhilekoan, nahiz eta ondorengo aldietan tasak azkar leundu ziren. Industria motaren arabera, ez dago alde handirik talde garrantzitsuenen artean, eta guztiek urteko ekoizpena gutxienez %10,0 murriztu zuten. Aipatu beharreko salbuespen bakarra kontsumoko ondasun galkorrak izan ziren, %5 inguru jaitsi baitziren.

Eraikuntzak bere balio erantsia %9,5 murriztu zuen 2020an eta tasa horrek BPGaren jaitziera berdindu zuen. Haren bi osagaiek intentsitate handiko beherakadak ezagutu zituzten beren jardueran, zertxobait nabarmenagoak eraikinetan obra zibilean baino, azken horren esleipena eta egikaritzea epe luzeagoetan gertatzen baita. Izan ere, lizitazio ofiziala nabarmen handitu zen urteko azken hilabeteetan, baina ekoizpen jarduera bihurtu arte denbora beharko da. Bestalde, etxebizitzaren salmenta ia %15 murriztu zen urteko batez bestean eta eragin handia izan zuen konfinamendu-hilabeteetan, nahiz eta azken hilabeteetan susperraldia nabari den.

Hasiera batean, zerbitzuak izan ziren murrizketek gutxien kaltetu zuten sektorea, balio erantsian izandako aldaketaren arabera (-%8,5), ekonomiaren batez bestekoa baino puntu bat txikiagoa izan baitzen. Halere, bereizi egin behar dira sektore pribatuari lotutako zerbitzuak eta diru publikoarekin finantzatutakoak. Azken horien artean daude administrazio publikoa, osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak, eta horien balio erantsia %1,0 handitu zen, gainerako jardueren beherakadetatik urrun, birusari aurre egiteko hartutako neurri sanitarioen eta bestelako onddoriorik. Bestalde, merkataritzaren, ostalaritzaren eta garraioaren blokeak -%12,3ko batez besteko aldakuntza izan zuen, eta gainerako zerbitzuek -%11,0ko aldakuntza, industriakoaren antzekoa.

Jarduera ekonomikorik ezak eragina izan zuen prezioen bilakaeran eta behera egiteko joera izan zuten, eskari nahikorik ez zegoelako. Zehatz-mehatz, BPGaren deflatoarea hamarren bat jaitzi da, eta azken hamaika urteetako lehen jaitziera izan da hori. Espero zen bezala, prezioen murrizketa bigarren hiruhilekoan hasi zen, konfinamendu betean, eta urtearen bigarren erdian leundu zen. Kontsumoko prezioek ere, KPIarekin neurtuta, jaitziera txiki bat izan zuten urteko batez bestekoan (-%0,1), apiriletik urte arteko tasa negatiboak etengabeak izan ziren arren. Energiaren prezioek eragin nabarmena izan zuten bilakaera horretan. Aitzitik, azpiko inflazioak ohiko egonkortasuna erakutsi zuen.

Pandemiak eremu makroekonomikoan utzi duen ezaugarrietako bat da, gutxienez hogeita bost urtean lehen aldiz, lan faktorearen itxurazko produktibitateak balio negatiboa izan duela (-%1,4). Hori guztiz ezohikoa da; izan ere, produktibitate negatibo batek esan nahi du lana egitean ez dela hain eraginkorra izan, edo, bestela esanda, BPG bera lortzeko baliabide gehiago behar direla orain lehen baino. Ezohiko emaitza horren atzean dagoen arrazoia da enpleguaren jaitziera BPGarena baino txikiagoa izan zela, neurri batean enpresen ustez pandemia laster pasatuko zelako eta ez zuelako konpentsatzen hilabete batzuetan agian berriro kontratatatu behar dituzun pertsonak kaleratzea.



**EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait**  
**4. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|   | 2015  | 2016  | 2017  | 2018  | 2019  | 2020 |
|---|-------|-------|-------|-------|-------|------|
| Biztanleko BPG eurotan. EB-27=100         | 109,4 | 110,1 | 109,9 | 109,9 | 110,0 | ---  |
| Biztanleko BPG eurotan. EB-15=100         | 89,0  | 91,6  | 93,1  | 93,7  | 94,1  | ---  |
| BPG erreala merkatu prezioetan            | 3,0   | 3,3   | 2,8   | 3,1   | 2,2   | -9,5 |
| Enplegua                                  | 2,1   | 2,2   | 2,1   | 2,3   | 1,5   | -8,1 |
| Lan faktorearen itxurazko produktibitatea | 0,9   | 1,1   | 0,7   | 0,8   | 0,8   | -1,4 |
| BPG nominala merkatu prezioetan           | 3,2   | 4,0   | 3,5   | 4,3   | 3,3   | -9,6 |
| BPGaren deflatorea                        | 0,2   | 0,6   | 0,7   | 1,2   | 1,1   | -0,1 |
| KPI (urteko batez bestekoak)              | -0,3  | 0,0   | 2,0   | 1,6   | 1,0   | -0,1 |
| Kostu guztiak langile bakoitzeko          | -0,6  | -0,9  | 0,5   | 2,5   | 1,8   | -1,1 |
| Langabezia tasa                           | 15,7  | 13,8  | 11,6  | 10,5  | 9,8   | 10,5 |

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

Enpleguari dagokionez, erabakigarria izan da aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak (ABEE) erabiltzea. Figura horri esker, plantillek enpresei lotuta jarraitu ahal izan dute, nahiz eta enpresek ez izan jarduerarik ezarritako murrizketengatik. 220.000 pertsona baino gehiago egon ziren ABEEko egoeran 2020an zehar. Maiatzean, berriz, goreneko egoera izan zen, eta 139.000 pertsona baino gehixeago egon ziren figura horren pean, hileko batez bestean. Kopuruak behera egin zuen pixkanaka, nahiz eta udaren ondoren eta Gabonen ondoren gertatu ziren kutsatze olatuen ondorioz, ABEEen amaiera data atzeratu behar izan zen. 2021eko ekainean, 19.000 pertsona zeuden oraindik Euskadin ABEE baten eraginpean.

Aurreikus zitekeen bezala, jarduera ekonomikoaren beherakadak eta administrazio publikoek hain salbuespenezko egoera bati emandako erantzunak eragina izan zuten 2020ko zerga itunduen diru bilketan, %9,8 murriztu baitzen aurreko urtearekin alderatuta. PFEZren jaitsiera mugatua izan zen (-%1,1), enpleguari eusteko laguntzei esker. Beste aldetik, sozietateen gaineko zergak %20,0 gutxiago bildu zuen, jarduera faltaren eta foru aldundiek emandako atzerapenen ondorioz. Kontsumo pribatuaren jaitsiera BEZaren eta zerga berezien diru-sarreretan islatu zen, eta zeharkako zergen bidezko bilketa %13,4 jaitsi zen.

Beheranzko diru sarreren eta goranzko gastuen bilakaeraren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren zorra BPGaren %16,1era igo zen, eta aurreikusitako defizit publikoa BPGaren %1,1ean kokatu zen. Aipatu behar da 2020rako aurrekontuetan adierazten zela aurreko urteetan hasitako kontsolidazio fiskaleko prozesuarekin jarraitzeko asmoa, 2019an zor publikoaren bolumena %12,7ra iritsi baitzen, eta Euskadi izan zen Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legean aurreikusitako %13aren azpitik kokatzea lortu zuen autonomia erkidego bakarra.

Aurreko atzeraldietan ez bezala, pandemiaren aurkako erantzun fiskal eta monetarioa azkarra eta tamaina handikoa izan zen, batez ere ekonomia garatuen artean. Alde batetik, AEBek hainbat bilioi dolarreko programak jarri zituzten martxan. Bestetik, Europako Batzordeak Next Generation UE programa bultzatu zuen, 750.000 milioi euro emanez mailegu itzulgarrien (360.000 milioi euro) eta transferentzia ez-itzulgarrien (390.000 milioi euro) artean. Bolumen handieneko tresna Berreskurapenerako eta Erresilientziarako Mekanismoa (MRR) da, 672.000 milioi euro dituen. Gainera, REACT EUk 47.500 milioi euro izango ditu 2021etik 2022ra bitartean exekutatzeko. Azpimarratu behar da Europako funts horiek Europa osoko arazo komun bati emandako erantzun bateratua direla.

Eusko Jaurlaritzak pandemiari eman zion erantzuna honako hau izan zen: osasun alorreko gastu handiagoa, ikastetxe publiko eta itunduei aparteko laguntza ematea, unibertsitate sistema digitalizatzeko laguntzak, gizarte larrialdietarako diru laguntzak handitzea, lana eta familia bateragarri egiteko laguntza gehiago, ABEE baten eraginpean zeuden langileentzako laguntzak, enpresei likidezia emateko laguntzak, etab. Horrek guztiak 2020an pandemiaren aurkako borrokari, 851 milioi inguru bideratzea ekarri du. Gainera, 1.000 milioiko funtsa jarri zen martxan, zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko.

Etorkizunari begira, munduko ekonomiek, EAEkoak barne, aurre egin beharko diete klima aldaketari, digitalizazioari eta bazterketa arriskuan dauden kolektiboak gizartean integratzeari. Euskadiren kasuan, Euskadi Next programak hiru eraldaketa handi horietara bideratutako ekimenak biltzen ditu, eta zortzi osagai ditu, inbertsio lehentasunak islatzen dituztenak. Osagai horien artean daude, besteak beste, pertsonen osasuna eta zaintza, energia berriztagarrien sorrera, ekonomia zirkularra, mugikortasun iraunkorra eta habitat naturalaren zaintza.

Epe ertaineko ikuspegi ekonomikoa 2021-2030 aldirako eszenategi makroekonomikoan jasota geratzen da, eta horrek adierazten du EAEko ekonomiak oso hazkunde handia izango duela 2021ean eta 2022an, 2020ko beherakada biziari erantzuteko, eta ondoren aldakuntza tasa

apalagoetarako bilakaera erakutsiko du, %1,3 eta %2,1 artekoa izango dena, egungo hamarkada osoan zehar. Eszenategi hori osatzeko orduan, nazioarteko merkataritzak ohiko tonua berreskuratuko duela eta %5 edo %6 haziko dela aurreikusi da, Europako prezioek bilakaera neurritsuari eta %2tik beherakoari eutsiko diotela, interes tasak berriz ere positiboak izango direla 2022tik aurrera, nahiz eta baxuak izaten jarraituko duten, eta euroaren eta dolarraren arteko kotizazioa egonkorra izango dela euroaren 1,16 dolar inguruan.

## **1. PANDEMIAREN ERAGIN EKONOMIKOA**

### **1.1 Sarrera**

Covid-19 koronabirusaren inguruko lehen albisteak abenduaren amaieran ezagutu ziren, Txinako Wuhan eskualdean. Hiri horretan zabaltzen ari zen birus ezezagun baten zenbait kasuren berri ematen da, eta gizakien kontsumorako animalia basatiak saltzen diren tokiko merkatu batean izan dezake jatorria. 2020ko urtarrilean jada kutsatzeak eta hildakoak daude Asiako herrialde batzuetan, eta lehen kasuak AEBetan eta Europan ere gertatzen ari dira. Hala eta guztiz ere, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) ez zuen uste nazioarteko larrialdi sanitarioa izan zenik. Lehen heriotzak Txinan gertatu ziren, herrialde horrek neurri zorrotzak hartu baitzituen herritarrak konfinatuz eta herrialdearen jardura geldiaraziz. Nazioarteko mugikortasuna ere murriztu zen, bereziki Txinatik datozen pertsonentzat.

Martxoan birusa zabaldua zegoen Europan zehar, eta Europako herrialde guztiek mugikortasuna murrizteko eta mugak ixteko neurriak hartu zituzten. Konfinamenduak herrialde guztietan ezarri ziren eta OMEk pandemiatzat jo zuen egoera. Hasiera batean, Italia eta Espainia izan ziren herrialde zigortuenak, apirilean 1.000 pertsona inguru hil baitziren egunean. Egoera bereziki larria izan zen zaharren egoitzetan, kutsatzeek gehien zigortu zuten kolektiboa izan baitzen. Hori guztia osasun sistema aurreratua dituzten herrialdeak izan arren.

Beldurra hedatzen ari zen eta munduko herrialde gehienak kanpoaldera eta barrualdera itxi ziren, ekonomia globalean aurrekaririk gabeko kolapsoa eraginez, eta kolapso horrek herrialde eta sektore ekonomiko guztiei eragiten die aldi berean. Herrialde aurreratuek azkar erantzun zuten, milaka milioi euroko laguntza paketeekin egoera ahulenean zeuden kolektiboentzat. Musukoa, distantzia soziala eta gel hidroalkoholikoa eguneroko bizitzako ezinbesteko elementu bihurtu ziren.

Apirilean, kutsatzeen gune nagusia Europatik AEBetara igaro zen, New York hirian gune garrantzitsu bat zegoelarik. Trump administrazioak osasun alorrean neurririk hartu ez izanak birusa herrialdean zehar azkar zabaltzea erraztu zuen. Hegoalderantz ere bizkor hedatu zen, besteak beste, Ekuador, Peru eta Brasil kolpatuz.

Europar hartutako neurri murriztaileek emaitza ona eman zuten eta udan zenbait urrats eman ziren deseskalatzearen alde eta jarduera batzuk berriz irekitzearen alde. Hala ere, permisibitate handiagoaren ondorioz, kasuek gora egin zuten udazkenean, bigarren kutsatze olatu batean, nahiz eta hildakoen kopurua lehen olatuarena baino nabarmen txikiagoa izan zen. Antigeno testak eta PCRak modu masiboan erabili ziren birusaren hedapena kontrolatzeko. Hirugarren kutsatze olatu bat gertatu zen Eguberrietako ospakizunen ondorioz.

2021eko lehen hilabeteetan, Covid-19aren eta beraren aldaeren aurkako txerto batzuk onartu ziren. Pfizerrek, AstraZenecak, Modernak, Sputnik Vek, Janssenek eta beste txerto batzuek itxaropena ematen diote munduari, eta normaltasunera itzuli daitekeela pentsarazten dute, gaur egun oraindik urrun dagoen egoera bada ere.

EAEan, pandemiaren eragina Europako beste herrialde batzuetakoaren oso antzekoa izan da. Orain arteko daturik garrantzitsuenak hauek dira: 212.000 pertsona baino gehiago kutsatu dira, 4.400 pertsona baino gehiago hil dira eta 3,5 milioi proba inguru (PCR eta antigenoak) egin dira jadanik. Ezarri diren planek Bizi Berri izena hartu dute eta euren helburuen artean konfinamendu zorrotza, osasun kolapsoa, hezkuntza itxiera, koma ekonomikoa eta gizarte arrakala areagotzea saihestea aipatzen dira.

Eusko Jaurlaritzak pandemiari emandako erantzunak jarraian labur-labur aipatzen diren zenbait ezaugarri izan ditu. Batetik, pandemiak Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderen deialdiari eragin zion, eta uztailaren 12ra arte atzeratu behar izan zuten. Hauteskundeak egin eta Parlamentu eta gobernu berriak eratu ondoren, erabakiak hartzeko egoera hobean egon zen. LABiren barruan hartutako zenbait erabakik eragozpen judizialekin topo egin zuten, besteak beste, ostalaritzako establezimenduak ixtea ezartzen zuenarekin, intzidentzia handia izanez gero. Beste aldetik, hasiera batean, birusari aurre egiteko ezinbestekoak gertatu diren elementuen gabeziari aurre egin behar izan zitzaion: NBEak, arnagailuak, musukoak eta osasun materiala. Gabezia horiek pixkanaka konpontzen joan ziren, eta testak egiteko gaitasuna handitu egin zen.

Pandemiaren arazo larrienetako bat kolektibo zaugarriengan izan duen eragin handia izan da, batez ere egoitzetan bizi diren adineko pertsonengan. Pertsona horiek izan dira, hain zuzen ere, txertoa jaso duten lehenak, txertoak eskuragarri egon diren unetik bertatik. Orobat, jarduera ekonomikoari eta enpleguari laguntzeko planak abiarazi behar izan ziren, eta, horretarako, 1.100 milioi euroko bonu jasagarrien bi jaulkipen egin ziren. Hezkuntza sistema pandemiaren lehentasunezko beste jarduera eremuetako bat izan zen, presentzialtasuna aukeratuta, nahiz eta espazio txikietan kutsatzeko arriskua egon. Oro har, emaitza ona eskuratu da, hartutako neurriekin ikasgelen %98 baino gehiago irekita egon baitira etapa guztietan, baita unibertsitatean eta lanbide heziketan ere.

## **1.2 Munduko ekonomia jardueraren eta euskal ekonomiaren ingurunearen portaera**

2020rako hazkunde moderatuko aurreikuspenekin itxi zen 2019. urtea, nazioarteko tentsio geopolitikoek, Brexitari buruz argitu gabeko zalantzek eta neurri protekzionisten bilakaerak eragindako ziurgabetasun handiak baldintzatuta. Zehazki, 2019ko abenduan, Consensus Forecastek aurreikusi zuen munduko ekonomiaren hazkundera %2,5 izango zela 2020an, hots, 2019an lortutakoaren antzeko tasa. Hazkunde hori 2009an munduko jarduerak jasan zuen beherakada handiaz geroztik erregistratutako txikiena izango zen, eta munduko bilakaera ekonomikoaren sendotasunari buruzko ziurgabetasuna sortzen zuen berriz ere.

Hala ere, erakunde eta gobernu bakar batek ere ez zuen aurreikusi Txinako Wuhan hirian antzemandako pneumonia *larri* eta *atipikoaren* agerpena, azkar hedatu zena bost kontinenteetan zehar eta, azkenean, 2020an, osasun krisi global bihurtu zena, mundua astindu zuena, ia planeta osoa bere etxeetan itxi zuena eta gizateria Depresio Handiaren ondorengo krisi ekonomikorik handienera eramane zuena.

Gauzak horrela, 2020. urtea pandemiaren urte gisa, Covid-19arena, mundu osoan 189 milioi kasu baino gehiago eragin dituen eta 4 milioi pertsona baino gehiagoren heriotza ekarri duen Itxialdi Handiarena, gogoratua izango da. Koronabirusak aurrekaririk gabeko etena eragin zuen ekonomia gehienek mekanik, haren tamaina edo garapen etapa edozein izanda ere, eta hainbat ondorio ekarri zituen, hala nola berrogeialdiak hiri oso batzuetan eta aireko espazioak eta mugak ixtea. Bereziki, hesi horien sorrerak presio handia eragin zuen munduko hornidura kateetan. Hori sakonago sentitu zen elikadurarekin eta medikuntzarekin erlazionatuta dauden funtsezko loturen

kasuan, eta produktu horien munduko banaketa pandemiaren lehen etapei erantzuteko ahaleginen funtsezko gune bihurtu zen.

**Munduko ondasunen merkataritza eremuka**  
**5. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila milioi AEBetako dolarrak

|                       | Esportazioak    |             |                  |             | Inportazioak    |             |                  |             |
|-----------------------|-----------------|-------------|------------------|-------------|-----------------|-------------|------------------|-------------|
|                       | Balioa          |             | Aldakuntza tasak |             | Balioa          |             | Aldakuntza tasak |             |
|                       | 2020            | 2018        | 2019             | 2020        | 2020            | 2018        | 2019             | 2020        |
| <b>Mundua</b>         | <b>17.582,9</b> | <b>10,2</b> | <b>-2,7</b>      | <b>-7,5</b> | <b>17.812,1</b> | <b>10,3</b> | <b>-2,8</b>      | <b>-7,6</b> |
| Ipar Amerika          | 2.240,0         | 8,0         | -0,6             | -12,2       | 3.215,4         | 8,4         | -1,8             | -8,1        |
| AEB                   | 1.431,6         | 7,6         | -1,3             | -12,9       | 2.407,5         | 8,5         | -1,8             | -6,2        |
| Erdi eta Hego Amerika | 535,8           | 8,5         | -6,3             | -10,0       | 525,3           | 11,7        | -5,9             | -14,4       |
| Brasil                | 209,9           | 9,9         | -5,8             | -6,9        | 166,3           | 19,7        | -2,2             | -9,8        |
| Europa                | 6.525,7         | 9,6         | -2,7             | -6,6        | 6.478,2         | 9,9         | -2,9             | -6,6        |
| Europar Batasuna      | 5.457,8         | 9,6         | -2,8             | -6,3        | 5.135,4         | 11,4        | -3,6             | -7,3        |
| EBE (*)               | 453,6           | 24,7        | -4,3             | -19,8       | 368,3           | 7,9         | 5,3              | -7,8        |
| Errusia               | 331,7           | 25,8        | -5,4             | -21,0       | 239,7           | 4,4         | 2,3              | -5,8        |
| Africa                | 375,3           | 16,0        | -5,5             | -20,3       | 510,6           | 12,6        | -0,1             | -12,8       |
| Ekialde Hurbila       | 772,5           | 24,8        | -8,8             | -27,9       | 647,2           | 1,9         | -0,5             | -13,5       |
| Asia                  | 6.680,0         | 8,2         | -1,9             | -1,4        | 6.067,0         | 12,5        | -3,8             | -6,7        |
| Txina                 | 2.591,1         | 9,9         | 0,5              | 3,7         | 2.055,8         | 15,8        | -2,7             | -1,1        |
| Japonia               | 641,4           | 5,7         | -4,4             | -9,1        | 634,5           | 11,4        | -3,7             | -12,0       |
| India                 | 276,2           | 8,5         | -0,1             | -14,8       | 371,9           | 14,3        | -5,5             | -23,5       |

(\*) Estatu Burujabeen Erkidegoa.

Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta UNTAC.

Eusteko ahaleginak martxoaren bigarren hamabostaldian jarri ziren martxan, eta herrialde gehienetan zorrotasunez areagotu ziren apirila eta maiatza bitartean, gizarte urruntzeko neurri gogorak ezarri zirenean eta funtsezkoa ez zen jarduera guztiak itxi zirenean. Horren ondorioz, merkantzien munduko esportazioak, dolarretan neurtuta, %21,4 jaitsi ziren 2020ko bigarren hiruhilekoan.

2020ko bigarren seihilekoan, kutsatze tasak jaitsi ahala, konfinamenduak eta murrizketak lasaitu egin ziren, eta horri esker, salgaien merkataritza suspertu egin zen, eta urteko azken hiruhilekoan tasa positiboak berreskuratu ziren. Hala eta guztiz ere, munduko esportazioek %7,5 egin zuten behera 2020. urtean, eta etengabeko uzkuorduren bigarren urtea kateatu zuten. Dena dela, emaitza espero baino hobea izan zen, zeren eta aurreikuspenen arabera, munduko esportazioek gutxienez %9,2 egingo baitzuten behera. Uzkuordura txikiago hori gobernu askok hartutako moneta eta zerga politika sendoen ondorioz gertatu zen; politika horiek munduko eskariaren beherakada handiagoa saihesten lagundu zuten, eta, ondorioz, baita nazioarteko merkataritzaren uzkuordute biziagoa ere. 2008-2009ko munduko finantza krisian ez bezala, oraingoan ezarritako neurriek irismen eta estaldura geografiko askoz ere handiagoa izan zuten; beraz, beherakadak larriak izan arren, uzkuordura txikiagoa izan zen (2009ko bigarren hiruhilekoan munduko esportazioak dolarretan %32,8 jaitsi ziren) eta bizkorrago suspertu ziren.

Pandemiak dolarretan kalkulaturako esportazioetan izan zuen eragina ezberdina izan zen eskualde batetik bestera, nahiz eta guztiek beherakada nabarmenak izan zituzten bai esportazioetan bai inportazioetan. Asia izan zen kalte gutxien jaso zuena, esportazioek %1,4 soilik egin baitzuten behera. Izan ere, bere herrialde nagusietan salmenten beherakada handia izan arren, Txinan pandemiaren kudeaketa eraginkorrak moteltze ekonomikoaren irismena mugatu zuen eta kanpokoekin merkataritzan jarraitzea ahalbidetu zion. Zehazki, Txinak %3,7 handitu zituen esportazioak 2020an, 2019ko %0,5 baino askoz gehiago. Osasun materialaren salmentak azaltzen du igoera horren zati bat, Asiako erraldoiak merkatu kuotaren %14,7 bereganatu baitu maila globalean. Osasun krisiaren epizentroa izan bazen ere, Txinak abantaila nabarmena hartu zuen gainerako ekonomia nagusien aurrean, ez baitzuten lortu nahi zuten V itxurako susperraldia.


Ekialde Ertaina beste muturrean kokatu zen, bere esportazioak dolarretan %28 inguru erori zirelarik. Birusari eusteko ahalegin globalek, garraioa eta mugaz gairako bidaiak zorrotz murriztea eta, kasu batzuetan, debekatzea barne, azkenean petrolioaren eskaria nabarmen murriztea ekarri zuten. Eskariaren beherakada horrek, Errusia eta Saudi Arabiaren artean urtearen lehen erdian izandako prezioen gerra batek areagotuta, petrolioaren prezioa urteko irekiera-balioetatik (69 dolar upel bakoitzeko) apirilaren amaieran 6 dolarretara jaitea eragin zuen. Geroago, prezioak goranzko norabidea hartu zuen berriro, baina, hala eta guztiz ere, batez beste, petrolioaren prezioa %35 baino gehiago jaitsi zen 2020an. Baliabide naturaletan aberatsak diren gainerako eskualdeek ere beherakada handiak ezagutu zituzten. Zehazki, Afrikako esportazioak %20,3 jaitsi ziren eta Erdialdeko Amerikakoak eta Hegoaldekoak, berriz, %10. Azkenik, salmenten beherakada %6,6ra mugatu zuen Europak.



Pandemiaren eragina ez zen mugatu nazioarteko merkataritzara. 2020ko Itxialdi Handia historiako krisirik handienetako bat izan zen, planeta osoko ordena sozial eta ekonomikoa asaldatu zuena abiadura bizian eta orain arte bizi ez den eskalan. Ekonomia guztietara hedatu zen, nahiz eta osasun-shocka kudeatzeko moduaren, barne asaldura ekonomikoen, kanpo eskariaren erorketaren, kapital fluxuen norabide aldaketan eta lehengaien prezioen kolapsoaren arabera eragin handiagoa edo txikiagoa izan zuen. Nolanahi ere, horietan guztietan erabakigarria izan zen gobernuaren eta banku zentralen jarduna, neurri eta ekintza ugarirekin babestu baitzuten jardura ekonomikoa eta gainbehera are handiagoa izatea saihestu baitzuten.

Latinoamerika izan zen Covid-19ak gehien kolpatu zuen eskualdea. Bere BPGa  $-7,0\%$  jaitsi zen, 2008ko krisian izandako  $2,0\%$ ko beherakadaren oso azpitik. Osasun krisiak kostu ekonomiko eta sozial izugarriak izan ditu, zeren eta zenbait urtez jardura ahula (2019an, eremuaren hazkundera  $0,2\%$  mugatu zen) izan ondoren iritsi zen, batez besteko hazkunde txikia izan zuen ( $0,6\%$  2014 eta 2019 artean), eta 2019ko amaieran herrialde batzuk astindu zituen gizarte asaldurako aldi baten ondoren. Izan ere, eskualdeko herrialde nagusietako batzuek moteltzea izan zuten 2019an, eta, Argentina bezala, atzeraldi handi batean murgilduta zeuden.

**Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak**  
4. irudia



Iturria : NDF.


Eremuko herrialde nagusien bilakaera antzekoa izan zen. Sektoreka, industria izan zen 2020an krisiak gehien kaltetu zuena. Beherakada horren arrazoa, neurri handi batean, apirilean eta maiatzean lantegiak itxi izana da, funtsezkotzat jotzen direnak izan ezik, eta kanpoko eskari bat poliki-poliki suspertuz joan zena. Industriaren atzetik zerbitzuen sektorea kokatu zen. Merkataritzak eta ostalaritzak bezero kopurua eta ordutegia murriztu behar izan zituzten, eta turismoa, hego ekialdean oso garrantzitsua baita, amildu egin zen aireko bidaiarien etorreraren murrizketen ondorioz. Lehen sektorea izan zen murriztu ez zen jarduera bakarra. Herrialde guztiek behera egin zuten urteko bigarren laurdenean, eta gero pixka bat gora egin zuten, nahiz eta guztiek tasa negatiboetan amaitu zuten urtea. Hain zuzen ere, Argentinako jarduera ekonomikoak hirugarren beherakada izan zuen jarraian, eta %10,0 egin zuen behera, 2002tik (-%10,9) izandako beherakada handiena baita. Mexiko, berriz, %8,2 erori zen eta bi urtez jarraian uzkurdu zen. Arestian aipatutako faktoreak alde batera utzita, Mexikoko ekonomian eragin berezia izan zuen urtariletik urrira bitartean petrolioaren sarreraren %42,9ko beherakadak. Brasilen BPGa %4,1 murriztu zen, Venezuelan %30,0 egin zuen behera, eta Perun, berriz, -%11,1.

Aldiz, Asia izan zen gutxien kaltetutako eremua, hango jarduera ekonomikoa %1,0 bakarrik murriztu baitzen. Txina, pandemia horren guztiaren epizentroa, izan zen Covid-19aren ondorio kaltegarriei ondoen eutsi zien herrialdea, 2020an bertako barne produktu gordina %2,3 hazi baitzen. Txinako Gobernuak 2020ko urtarrilaren amaieran hartu zituen euste neurri sendoei esker, Asiako erraldoian kutsatze berrien kopurua nabarmen jaitsi zen, eta, otsailaren amaieran, enpresen %80 martxan jarri ziren berriro. Izan ere, agintariak kontuan hartu zuten, neurri handi batean, herrialdearen ekoizpen ahalmena geldiarazten zuena eskaintzaren aldetiko krisi bat zela, eta, beraz, krisi horrek gehien kaltetutako sektoreetan izan zitzakeen ondorio disruptiboak arintzea izan zuten helburu, epe laburrean jarduera nabarmen jaitea nekez saihestuko zuen eskala handiko estimulu bat abiarazi beharrean. Erabaki horri esker, pandemiak geldiarazi zituen herrialde askori ondasunak hornitzeko industriaren ekoizpena handitu zen, eta, horren ondorioz, esportazioek bultzada handia ezagutu zuten.


Indian, pandemiak kontrolatik kanpo jarraitzen du gaur egun ere, eta kutsatzeak egunez egun gero eta gehiago dira. Kontsumoaren eta inbertsioaren apaltzeak, oraindik kontrolatu ez duten osasun alorreko krisi baten aurreko etengabeko murrizketen ondorioz, BPGa -%8,0ra hondoratu zuen 2020an, 40 urtean jaso duen lehen uzkurdua. Iazko laugarren hiruhilekoan emaitza positiboa lortu zuten arren (%0,1), ez dirudi osasun egoera zoritzarrekoak jarraitutasun hori bermatzen duenik 2021eko lehen hilabeteetan.

**Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak**  
**5. irudia**


Amerika Latinoa




Brasil



Txina



India



Iturria: NDF.

Japoniari dagokionez, herrialde horrek 2020an jarduera %4,8 jaitsi zuen, 1955. urtean hasi zen serie historikoko bigarren beherakadarik handiena baita. Beherakada hori 2009an finantza krisiak eragindako %5,7ko hondoratzeak soilik gainditu zuen. Eredu bera erakutsi zuen: kontsumo pribatuaren murrizketa handia (-%6,3), Japoniako hazkundearen zutabe nagusia baita, esportazioen beherakadarekin batera (-%12,5). Kontrakzio garrantzitsu horiek Japoniako gobernuak sustatutako estimulu programa ambizio handikoa gorabehera erregistratu ziren. Egitasmo hori hiru errondatan

banatu zen eta, oraingoz, 308 bilioi yen (2,4 bilioi euro) dira, hau da, bertako BPGaren %60. Langabezia kontrolpean mantentzea zen lehentasunetako bat, eta hala izan da. 2020an, langabezia tasak lau hamarren baino ez zuen gora egin 2019ko datuekin alderatuta eta %2,8an kokatu zen, ekonomia aurreratuen artean txikiena delarik.

Gainerako ekonomia aurreratuen bilakaera antzekoa izan zen. Kontsumo pribatuak, inbertsio pribatuak eta esportazioek behera egin zuten, eta nahiz eta gobernu guztiek gastu publiko handia egin zuten ekoizpen sistemai eusteko, gizarte kostuak murrizteko eta BPGaren beherakada arintzeko, azken hori nabarmen murriztu zen. Hala eta guztiz ere, bilakaera heterogeneoa izan da herrialdeen eta arloen artean, eragin epidemiologiko desberdinagatik, politika publikoen (sanitarioa eta ekonomikoa) erantzunagatik eta ekonomia bakoitzaren ekoizpen egituragatik, batez ere, gizarte elkarreraginaren eragin handiena duten sektoreen pisuari dagokionez. Hala izanda, BPGaren beherakada %3,5 izan zen AEBetan, %6,6, berriz, eurogunean eta %9,9 Erresuma Batuan.

Euroaren eremua %6,6 uzkurdu zen. 2008-2009ko finantza krisi globalarekin eta 2011-2012ko euroguneko zor subiranoaren krisiarekin alderatuta, pandemia eragin zuen atzeraldia biziagoa izan zen hasierako faseetan, eta susperraldirako seinale eta igurikimen sendoak hauteman ziren beste krisialdian baino lehenago. Krisiaren izaera exogenoak eragin zuen hori, bai eta Europako Banku Zentralak (EBZ) moneta eta zerga politikarako hartutako neurri egoki eta irmoek ere. Neurri horiek erabakigarriak izan ziren baldintza onuragarriak eusteko eta eskualdearen zatiketa saihesteko. Estatu mailan ere erantzuna azkarra izan zen. Gobernuak, osasun sistemari baliabide gehiago emateaz gain, neurri sorta bat jarri zuten abian, lan errentak babesteko, familia ahulenei laguntzeko eta enpresak likideziaz hornitzeko.


Hala ere, egindako ahalegin guztiak eta ezarritako neurri guztiak gorabehera, Espainian jarduera ekonomikoa %10,8 jaitsi zen, Italian %8,9, Frantzia %8,1 eta Alemanian %4,9. Alemaniako ekonomiaren uzkurdura txikiagoarekin alderatuta, lehen hiruretan izan den beherakadarik handiena herrialde horietan pandemiaren bilakaera kaskarragoa izan delako gertatu da, eta, horren ondorioz, euste neurri larriagoak ezarri direlako.

Jarduera ekonomikoaren uzkurtze azkar eta biziarekin alderatuta (%15aren ingurukoa 2020. urteko lehen seihilekoan), enpleguaren beherakada txikiagoa izan zen, baina, hala eta guztiz ere, baita garrantzitsua ere. Zehazkiago adierazita, Euroguneko enplegua, gutxi gorabehera, 4 milioi pertsonatan murriztu zen aldi horretan, eta, beraz, 2018a baino lehenagoko mailetan kokatu zen berriro. 2020. urtearen amaierarako, kopuru hori erdira murriztu zen, 2,1 milioi pertsona baino


zertxobait gehiagora, 2,5 milioira Europar Batasunaren kasuan. Bi kasuetan, enpleguaren galerak ez ziren oso handiak izan, euroguneko herrialdeek hartutako babes publikoko neurriei esker, kaleratzeak mugatzen lagundu baitzuten.

***Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak***  
***6. irudia***


AEB




Japonia



Eurogunea



Alemania



Iturria: NDF eta Eurostat.

Aurreko krisi ekonomiko eta finantzarioekin alderatuz gero, eremuko gobernuek langile gehiago sartu dituzte orain enplegua mantentzeko programetan, eta horrek nabarmen lagundu zuen kaleratzeak geldiarazten, langile bakoitzaren eta enpresa bakoitzaren giza kapital espezifiko babesten lagunduz. Abian jarritako mekanismo nagusietako bat aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak (ABEE) edo antzekoak izan ziren. Horrelako figurak lehendik ere bazeuden ordenamendu juridiko gehienetan, Espainiakoan barne, baina larritasun handiko kausetarako baino ez ziren erabiltzen, oro har, ezbehar handiekin (suteak, adibidez) edo hondamendi naturalekin (uholdeak edo lurrikarak) lotuta.

Horiek horrela, Alemaniak, Espainiak, Frantziak, Italiak, Herbehereek eta Erresuma Batuak aldi baterako langabezia sistemak indartu zituzten ABEEen bidez. Izan ere, Bloombergen ikerketa baten arabera, sei herrialde horien artean koronabirusak 40 milioi langilek baino gehiagok ABEE baten eraginpean egotera behartu ditu. Eta, are gehiago, uneren batean aldi baterako lanik gabe geratu ziren langile guztiak azkenean langabezian geratu izan balira, Alemaniako, Frantziako eta Italiako langabezia-tasa %42,0ra iritsi zitekeela uste du agentzia ekonomiko horrek, eta zifra hori %53,1era igoko litzateke Espainiaren kasuan. Hala eta guztiz ere, ABEEen ezarpena eraginkorra izan da eta langabezia tasak maila apalagoetan mantendu ditu. Izan ere, 2020an, euroguneko langabezia tasa %8,2 izan zen, 2019ko erregistrotik 1,1 puntu gorago bakarrik, eta, ondorioz, 2020an, 2019ko datuekin alderatuta, 1,8 milioi langabe gehiago zenbatu ziren. Horietatik %32,3 Italiako langabetuak dira, eta %23,1 Espainiakoak.

Azkenik, prezioen hazkundea %0,3 izan zen 2020an, batez beste, eurogunean, nahiz eta abuztua eta abendua bitartean tasa negatiboetan kokatu zen. Are gehiago, eremua osatzen duten 19 herrialdeetatik 12tan prezioek behera egin zuten 2020an. Jaitsiera horrek, funtsean, energiaren prezioen aldakuntza tasaren ekarpen txikiagoa eta turismoarekin zein bidaiarekin lotutako zerbitzuen prezioen beherakada (bereziki, garraioa eta ostalaritza) islatu zituen, horiek izan baitziren krisiak gehien kaltetu zituenak.

Urtarrilaren 31n Erresuma Batua Europar Batasunetik atera zen, eta abenduaren 31n sinatutako Merkataritza eta Lankidetzako Akordioarekin amaitu zen. Era berean, urte amaieran presidentetzarako hauteskundeak egin ziren AEBetan, baina polemika handia sortu zen Joe Bidenek Donald Trumpen aurrean lortutako garaipenaren aurrean, azken horrek onartu nahi izan ez zuena. Horri guztiari pandemia baten bilakaerak eragindako ziurgabetasuna gehitu behar zaio; izan ere, ekonomia pandemiaren aurreko mailetara azkar itzuliko zen V moduko susperraldiaren itxaropena desagertu egin zen, jarduera ekonomikoaren funtzionamendu normala eragozten zuten agerraldi berriak sortu ahala.

**Ekonomiaren aldagai nagusiak**  
**6. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|                         | BPG erreala |       | Inflazioa |      | Langabezia tasa |      |
|-------------------------|-------------|-------|-----------|------|-----------------|------|
|                         | 2019        | 2020  | 2019      | 2020 | 2019            | 2020 |
| Mundua                  | 2,8         | -3,3  | 3,5       | 3,2  | --              | --   |
| Ekonomia garatuak       | 1,6         | -4,7  | 1,4       | 0,7  | 4,8             | 6,6  |
| AEB                     | 2,2         | -3,5  | 1,8       | 1,2  | 3,7             | 8,1  |
| Japonia                 | 0,3         | -4,8  | 0,5       | -0,0 | 2,4             | 2,8  |
| Europar Batasuna        | 1,7         | -6,1  | 1,4       | 0,7  |                 |      |
| Alemania                | 0,6         | -4,9  | 1,4       | 0,4  | 3,2             | 4,2  |
| Frantzia                | 1,5         | -8,2  | 1,3       | 0,5  | 8,5             | 8,2  |
| Erresuma Batua          | 1,4         | -9,9  | 1,8       | 0,9  | 3,8             | 4,5  |
| Italia                  | 0,3         | -8,9  | 0,6       | -0,1 | 9,9             | 9,1  |
| Espainia                | 2,0         | -10,8 | 0,7       | -0,3 | 14,1            | 15,5 |
| Garapen bidean daudenak | 3,6         | -2,2  | 5,1       | 5,1  | --              | --   |
| Asia                    | 5,3         | -1,0  | 3,3       | 3,1  | --              | --   |
| Amerika Latinoa         | 0,2         | -7,0  | 7,7       | 6,4  | --              | --   |
| Ekialdeko Europa        | 2,4         | -2,0  | 6,6       | 5,4  | --              | --   |

Iturria: NDF.

Aurreko guztiaren ondorioz, 2020an, munduko BPG %3,3 gutxitu zen, Nazioarteko Diru Funtsaren kalkuluen arabera, eta, krisi horrek jatorria ekonomian izan ez bazuen ere, Depresio Handiaz geroztik (1929an hasi zen) izan den krisi ekonomiko handiena izan da. Analistek espero dute pandemia inflexio puntura iristea 2021ean, eta susperraldiaren sendotasuna baldintzatzea, batez ere txertaketa prozesuaren abiaduraren eta eraginkortasunaren arabera. Hala eta guztiz ere, 2021erako munduko hazkundearen iragarpenak ziurgabetasun handia izaten jarraitzen du, eta %5 eta %7 artean kokatuko dela uste da, nahiz eta herrialde gehienek gutxienez 2022ra arte itxaron beharko duten pandemiaren aurreko jardura mailak berreskuratu ahal izateko.

### 1.3 Krisiaren eragina Euskadin

Sei urteko dinamismo ekonomikoaren ondoren, 2020an EAEko ekonomia krisi sakon batean murgilduta egon zen, hasieran aurreikusitakoa baino larriagoa izan zena, eta historian aurrekaririk

gabeko atzeraldia pairatu zuen. EAEko ekonomiaren bilakaerak beherakada libreko profila erakutsi zuen, batez ere urteko bigarren hiruhilekoan jarduera eta mugikortasuna gehien murriztu ziren hilabeteetan. Hurrengo hilabeteetako joera zalantzazko aurrerapena izan zen murrizketak malgutzeko aldien eta jarduera mugatzeko aldien artean, irizpide aldaketa horiek guztiak pandemiaren olatu berriekin bat etorri zirela. Horrela, urte osorako kalkulatu den urte arteko batez besteko tasaren beherakada %9,5 izan zen, EAEko estatistika ofizialetan inoiz zenbatetsi den beherakadarik handiena. Termino nominaletan, jaitsiera -%9,6ra iritsi zen, eta deflatoarea -% 0,1ean kokatu zen.

**Lehen arloko adierazle nagusiak**  
**7. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|                        | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020  |
|------------------------|------|------|------|------|------|-------|
| BEG bolumeneko indizea | 13,1 | 1,0  | 10,1 | 1,7  | 3,2  | -9,3  |
| BEG uneko prezioak     | 3,9  | 4,2  | 25,2 | -4,9 | -3,1 | -14,2 |
| Deflatoarea            | -8,1 | 3,2  | 13,7 | -6,5 | -6,1 | -5,4  |
| Enplegua               | -1,0 | 0,7  | 0,1  | 2,1  | -1,9 | -2,5  |
| Produktibitatea        | 14,3 | 0,2  | 10,0 | -0,4 | 5,2  | -7,0  |

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, ekoizpen sektore guztien hazkunde negatiboak nabarmendu behar dira, inolako salbuespenik gabe. Jarduera adar guztietan erregistratutako uzkurdurak EAEko barne produktu gordinaren profila beheratu zuen. Lehen sektoreak -%9,3ko batez besteko aldakuntza tasa batekin amaitu zuen 2020. urtea, eta balio hori, ohiko portaera gorabeheratsuen barruan, ez zen serie historikoaren minimo historikoa izan. Industriari dagokionez, -%11,8ko beherakada batekin, krisi ekonomikoa gogorren pairatu zuen sektoreetako bat izan zen. Barne eta kanpo eskariaren okertze handiak sektorea 2009ko krisian zenbatutakoetatik gertu hondoratzea eragin zuen. Bestalde, eraikuntzan eskuratutako hazkunde tasak jarduera etetearen eta ekonomiaren bilakaera orokorraren inguruan sortutako ziurgabetasunaren ondorio saihestezinak ere adierazten ditu. Hala eta guztiz ere, Covid-19ak eragindako krisiak gehien kaltetu zuen sektorea zerbitzu pribatuen adarra izan zen, batez ere interakzio sozial handiagoa behar duten eta pandemiaren aurkako borrokan ezarritako murrizketek gehien kaltetu zituzten jarduerak. Hirugarren sektorearen



beherakada, batez beste, %8,5koa izan zen. EAEko balio erantsiaren bilakaerari ekarpen positiboa egin zion azpikategoria bakarria salmentara bideratuta ez zeuden zerbitzuena izan zen.

Nekazaritza eta arrantzako sektorearen balio erantsi gordinak %14,2ko atzerakada izan zuen 2020an termino nominaletan: %9,3ko beherakada bolumenari dagokionez eta %5,4ko jaitsiera, berriz, prezioen aldakuntzari dagokionez.

**EAEko industriaren BEGaren bilakaera**  
**8. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|                                 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020  |
|---------------------------------|------|------|------|------|------|-------|
| BEG bolumeneko indizea          | 3,1  | 4,2  | 2,5  | 2,0  | 1,3  | -11,8 |
| BEG uneko prezioetan            | 4,4  | 4,0  | 2,8  | 3,9  | 2,2  | -13,4 |
| Deflatorea                      | 1,3  | -0,2 | 0,3  | 1,9  | 0,9  | -1,8  |
| Enplegua                        | 1,3  | 1,9  | 2,9  | 1,7  | 0,9  | -10,0 |
| Produktibitatea                 | 1,7  | 2,3  | -0,4 | 0,3  | 0,4  | -2,0  |
| Industria produkzioaren indizea | 3,3  | 3,1  | 5,8  | 2,2  | 1,6  | -13,3 |
| Industria jarduera indizea      | -3,5 | -4,8 | -3,7 | -6,9 | -7,1 | -19,5 |


Iturria: Eustat eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa.

2020. urtean, Euskadiko industriaren balio erantsiak %11,8ko urte arteko jaitsiera izan zuen, eta tasa horrek erakusten du bigarren sektorearen narriadura sakona aurreko aldiekin alderatuta. Beherakada horren arrazoiak izan ziren, alde batetik, pandemiaren mundu mailako ondorio hertsatzaileak, EAEko esportazioen helmuga diren ekonomien atzeraldiko ingurune batean, eta, bestetik, barne eskariaren beraren ahulezia handia. Termino nominaletan, industriaren aldakuntza tasa -%13,4an kokatu zen, eta horrela deflatorea %1,8 jaitsi zen.


Industriak 2020an izan duen balio erantsiaren hiruhileko seriea aztertzean, hautematen da osagai horrek atzeraldi sakoneko profila izan zuela iazko bigarren hiruhilekoan, eta gorakada oso txikia lortu zuela bigarren seihilekoan. Portaera eredu bera erregistratu zuen EAEko industria produkzioaren indizeak ere. Hain zuzen ere, IPIaren hazkundeaz Eustatek zenbatetsi dituen datuak bi digituko tasa negatiboetan kokatu ziren batez beste 2020an zehar.

**EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.**  
**Urte arteko aldakuntza tasak**  
**7. irudia**


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Ondasunen erabilera ekonomikoaren arabera, EAEko IPI indizearen portaera homogeneoa izan zen 2020an, eta uzkurdua ekonomikoak intentsitate handiz eragin zien kategorია guztiei. Berezi dramatikoa izan zen bitarteko ondasunen ekoizpenaren egoera, ekipamendurako ondasunena, kontsumo iraunkorreko ondasunena eta energiarena, %12tik gorako beherakadak izan zituztelako. Bestalde, kontsumo iragankorreko ondasunen ekoizpenak ere

okerrera egin zuen, urteko batez bestekoaren %5,0 inguruko tasa negatiboekin. Industria adarren bilakaera aztertuta, Eustatek 16 jarduera azpisektoreen industria produkzioaren indizeari buruz argitaratutako datuek erakusten dute 2020an adar guztiek kontrakzioak izan zituztela ekoizpenean, erauzketa industriaren eta farmazia produktuen azpisektoreetako jarduerak izan ezik. Azken industria adar hori, batez beste, %10,1 hazi zen urtean.

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak enpresen iritziei buruz egindako inkestako datuek industria sektoreko enpresaburuaren aurreikuspen negatiboak islatu zituzten. Hala, industria giroaren indizeak (-19,5) eta eskaera zorroaren aldagaiak (-42,5) gutxieneko mailak ezarri zituzten beren serie historikoan 2020an zehar.

**Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak**  
**9. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|                                | 2015  | 2016  | 2017  | 2018 | 2019 | 2020  |
|--------------------------------|-------|-------|-------|------|------|-------|
| BEG bolumeneko indizea         | 1,1   | 0,2   | 1,6   | 4,0  | 3,4  | -9,5  |
| BEG uneko prezioak             | 1,2   | 0,6   | 2,4   | 5,9  | 4,8  | -9,0  |
| Deflatorea                     | 0,1   | 0,4   | 0,8   | 1,8  | 1,4  | 0,6   |
| Enplegua                       | 2,2   | 0,3   | -0,1  | 3,7  | 3,0  | -6,5  |
| Produktibitatea                | -1,0  | -0,1  | 1,7   | 0,3  | 0,4  | -3,2  |
| Higiezinen transakzioak        | 21,1  | 12,2  | 11,6  | 10,8 | 2,1  | -12,5 |
| Prezioa €/m <sup>2</sup>       | 1,0   | 2,6   | 5,2   | 5,4  | 4,3  | 2,3   |
| Hasitako etxebizitzak          | -16,9 | 77,2  | -74,6 | 57,6 | -0,1 | -31,4 |
| Amaitutako etxebizitzak        | 15,4  | -37,4 | 8,7   | 17,4 | 7,5  | -16,9 |
| Bisatuak. Etxebizitzen kopurua | 40,1  | -14,0 | 20,2  | 11,6 | 2,1  | 10,2  |
| Eraikuntzaren kointura indizea | -0,1  | 1,3   | 5,4   | 12,3 | 8,7  | -7,8  |

Iturria: Eustat, INE eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa.

Sektorearen beherakada seinalatzen duen beste adierazle bat enpleguaren aldagaia da. Hain zuzen ere, Eustatek argitaratu dituen kontu ekonomikoetako datuek urtetik urterako aldakuntza tasa negatiboa ezarri zuten, -% 10,0koa, hau da, 2020an zehar lanaldi osoko ia 21.000 lanpostu suntsitu ziren.

EAEko eraikuntzaren sektorea nabarmen uzkuritu zen 2020. urtean, eta %9,5eko hazkunde negatiboa eskuratu zuen. Sektorearen azpikategoriak aztertzeke orduan, beherakadaren profil bera hautematen da. Zehatzago adierazita, Eustatek argitaratutako eraikuntzaren koiunturako indizearen arabera, 2020an eraikinen azpisektorearen uzkuritzea -%8,1ekoa izan zen, eta obra zibilarena, berriz, -%6,1ekoa. Adierazle guztiek beheranzko profil bera adierazten dute urtean zehar. Deigarria da etxebizitza berriak eraikitzeke bisatuak aldagaiaren batez besteko hazkunde positiboa. Hala ere, adierazle hori nabarmen negatiboa izan zen urteke lehen seihilekoan eta nabarmen hazi zen 2020ko bigarren erdian.

Lan merkatuaren ikuspegitik, 2020an eraikuntza sektoreke jardueran bizi zen jaitsierak lanaldi osoko ia 4.000 lanpostu baliokide galtzea ekarri zuen berekin. Horrek esan nahi du -%6,5eko aldakuntza tasa jaso zuela.

**Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak**  
**10. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|                                  | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020  |
|----------------------------------|------|------|------|------|------|-------|
| BEG bolumenen indizea            | 3,5  | 2,8  | 2,9  | 3,1  | 2,5  | -8,5  |
| BEG uneko prezioak               | 3,7  | 3,6  | 3,8  | 4,2  | 3,6  | -8,0  |
| Deflatorea                       | 0,2  | 0,8  | 0,9  | 1,1  | 1,1  | 0,5   |
| Enplegua                         | 2,4  | 2,5  | 2,1  | 2,3  | 1,6  | -7,8  |
| Produktibitatea                  | 1,1  | 0,3  | 0,8  | 0,8  | 0,9  | -0,8  |
| Bidaiarien gaudialdiak           | 8,2  | 8,9  | 2,6  | 7,2  | 3,7  | -61,5 |
| Batez besteko egonaldia (egunak) | 1,91 | 1,94 | 1,92 | 1,95 | 1,95 | 2,69  |
| Plazen betetze maila (ehunekoa)  | 49,8 | 53,0 | 54,2 | 56,2 | 56,7 | 30,8  |
| Zerbitzuen koiuntura indizea     | 3,1  | 3,7  | 3,0  | 1,1  | 0,6  | -16,7 |

Iturria: Eustat.

Euskadiko zerbitzuen sektoreak beherakada handia nozitu zuen, -%8,5era arte, 2020. urtean. Azpisektoreen arabera aztertuz gero, beherakada handiena merkatuko zerbitzuek izan zuten (merkataritza, ostalaritza eta garraioa), -%12,3ko aldakuntza tasa batekin, pandemia ez hedatzeko neurri murriztaileek eraginda, batez ere mugikortasunarekin eta gizarte interakzioarekin lotutako adarrei eragiten baitzieten. Merkatuko gainerako zerbitzuak ere -%11ko tasara iritsi ziren. Bestalde,

salmentara bideratuta ez dauden eta administrazio publikoei, hezkuntzari, osasunari eta gizarte zerbitzuei lotuta dauden zerbitzuak batez beste %1,0 hazi ziren 2020an, sektore publikoaren hedapen portaera antiziklikoa islatuz.

Hirugarren adarraren narriadura EAEko kontu ekonomikoetatik ateratako balio erantsiaren datuetan ez ezik, 2020. urterako sektoreari buruzko adierazle ekonomikoetan ere islatuta geratu zen. Merkataritzako azpisektoreari dagokionez, Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen indize koiunturalak (ZKI) nabarmen egin zuen behera handizkako eta txikizkako merkataritzan. Bi taldeetan, salbuespena elikadurakoak ez diren produktuen salmenta (handizkako merkataritza) eta elikagaiak (txikizkako merkataritza) izan ziren; kategoria horiek hazkunde tasa positiboak lortu zituzten 2020ko batez bestekoan.

**Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka. Bolumenaren indize kateatua**  
**11. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|  | 2015       | 2016       | 2017       | 2018       | 2019       | 2020        |
|--|------------|------------|------------|------------|------------|-------------|
| <b>Zerbitzuak guztira</b>                          | <b>3,5</b> | <b>2,8</b> | <b>2,9</b> | <b>3,1</b> | <b>2,5</b> | <b>-8,5</b> |
| Merkataritza, ostalaritza eta garraioa             | 5,0        | 3,6        | 4,1        | 4,3        | 2,6        | -12,3       |
| AA. PP., hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak | 1,5        | 2,4        | 2,2        | 1,8        | 2,3        | 1,0         |
| Gainontzeko zerbitzuak                             | 3,6        | 2,5        | 2,6        | 3,0        | 2,5        | -11,0       |

Iturria: Eustat.


Turismoaren sektoreari dagokionez, Eustatek argitaratzen duen turismoko establezimendu hartzaileei buruzko inkestak erakusten du adar horrek dinamismo galera handia izan zuela 2020an. Zehazki, gaudien kopurua eta okupazio maila nabarmen jaitsi ziren urteko batez bestekoan, nahiz eta beherakada bereziki handia izan zen iazko lehen seihilekoan eta Estatutik kanpoko turistek kasuan. Sektore hori pandemiak eta horri eusteko ezarri ziren neurriek gehien erasandako jardueretako bat da.

Ildo beretik eta aurrekoari oso lotuta, garraioaren azpisektorea dago. EAEko aireportuetako mugimenduei buruz Hegazkigintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak emandako datuek erakusten dutenez, 2020an nabarmen egin zuen okerrera, bai hegazkinen kopuruan, bai bidaiarien eta salgaien zirkulazioan, bai nazioan eta nazioartean. Beste garraiobide batzuei buruzko

informazioaren azterketak azpisektore honetako adierazleen bilakaeraren ikuspegi negatiboa ematen du. Horrela, 2020an Euskotrenen eta Bilboko metroaren erabiltzaile ziren bidaiarien kopuruak beherakada handia izan zuen, konfinamenduaren, garraio kolektiboaren erabileraren zehurtziaren eta telelaneko lan neurrien hedapenaren ondorioz.

Lan arloan, zerbitzuen sektorean lanaldi osoko 54.000 lanpostu inguru galdu ziren, hau da, urtetik urterako aldakuntza tasa  $-7,8\%$  izan zen. Termino absolutuetan, hirugarren sektoreko jardura adarra izan da krisi ekonomikoa gehien pairatu duena, bai balio erantsiari dagokionez, bai enplegu-galerari dagokionez.

**Barne eskariaren osagaien hazkundea. Urte arteko aldakuntza tasak**  
**8. irudia**



Iturria: Eustat.

EAEko ekonomiak markatu zuen beherakadaren profila handia izan zen, eskariaren guztizkoak, hala barnekoak nola kanpokoak, nabarmen egin zuelako okerrera. Barne eskariaren osagai guztiek, salbuespen bakarra administrazio publikoen kontsumo gastuak izan zelarik, uztegi historiko handiak pairatu zituzten. Kontsumo publikoa erorialdia minimizatzen saiatu zen, eta EAEko barne eskariaren bultzatzaile bihurtu zen, oso hazkunde tasa esanguratsu batekin eta portaera antizikliko nabarmen batekin. Eragile ekonomikoen igurikimen ezkorrak, pandemiaren olatuei lotutako

murrizketak eta nagusi den ziurgabetasun handia izan ziren familietan kontsumoko proiektuak eta enpreetan inbertitzeko proiektuak hasteko oztopo nagusiak. Horiek horrela izanda, azken kontsumoko gastuak -%7,5eko tasa jaso zun, eta kapital eraketa gordina nabarmen murriztu zen eta -%11,6ko urte arteko tasa eskuratu zuen. Kanpoko eskariak ere ekarpen negatiboa egin zion hazkundeari, kasu horretan sei hamarrenekoa. Barne eskariaren ahuleziarekin eta atzeraldian murgilduta zegoen nazioarteko ingurunearekin, EAEko esportazioak eta inportazioak nabarmen murriztu ziren.

Azken kontsumoko gastua %7,5 jaitsi zen 2020an zehar. Nabarmentzekoa da administrazio publikoen gastuak eduki zuen %4,5eko igoera, jokaera antizikliko tradizionalari eutsi baitzion, baina ezin izan zuen konpentsatu familietako kontsumoaren beherakada handia, -%10,7 izan baitzen. Ziurgabetasun handia, krisiak lan merkatuan zuen eragina eta kontsumitzaileek atzeraldi ekonomikoaren aurrean duten mesfidantza izan ziren kontsumoaren narriaduraren faktore erabakigarriak. Haren igurikimeneak gorabeherak izan zituzten pandemiaren bilakaeraren arabera, eta zuhurtzia izan zen kontsumoaren jarraibideak markatu zituen elementua. Portaera horren ondorioz, familien aurrezki-tasak gora egin zuen.

**Errenten adierazleen bilakaera**  
**12. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|  | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|--|------|------|------|------|------|------|
| Soldatapekoen ordainketa                           | 2,5  | 3,0  | 3,2  | 3,4  | 3,5  | ---  |
| Urtean adostutako soldata igoera                   | 0,6  | 1,0  | 1,5  | 1,9  | 2,0  | 1,7  |
| Enplegua   | 2,1  | 2,2  | 2,1  | 2,3  | 1,5  | -8,1 |
| Pentsioen kopurua (*)                              | 1,2  | 1,2  | 1,3  | 1,4  | 1,3  | 0,4  |
| Batez besteko pentsioa (*)                         | 2,0  | 2,0  | 2,0  | 2,7  | 4,9  | 2,0  |
| PFEZren diru bilketa                               | 5,9  | 4,1  | 6,0  | 5,4  | 5,7  | -1,1 |
| Banku arteko int. tasa (urte 1erako euriborra)(**) | 0,2  | 0,0  | -0,1 | -0,2 | -0,2 | -0,3 |
| KPI  | -0,3 | 0,0  | 2,0  | 1,6  | 1,0  | -0,1 |

(\*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak. (\*\*) Hilabeteko batez bestekoekin osaturako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Inklusioa, Gizarte Segurantza eta Migrazioak Ministerioaren, Lan Harremanen Kontseilua, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

Ildo horretan, eskariaren osagai horri buruzko adierazleen bilakaerak agerian utzi zuen familien kontsumoko gastua murriztu egin zela 2020an. Laboral Kutxak egindako Euskadiko kontsumitzailearen konfiantza indizeak beherakada handia erakutsi zuen, EAEko etxeetan langabeziaren eta ekonomia orokorraren bilakaerari buruz zegoen kezka handiaren ondorioz. Familiak enpleguari dagokionez aurreikusten ari ziren zalantzazko eszenategi horretan, ez da erosketa handiei ekiteko asmorik aurreikusten. Txikizkako merkataritzaren indizeak ere familien gastuaren beherakada islatu zuen, ziurgabetasunaren eta ezkortasunaren testuinguruan. Ondasun iraunkorren kontsumoari dagokionez, autoen matrikulazioak %21,9ko beherakada izan zuen 2020 osoan.

***Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera***

***13. taula***

Urte arteko aldakuntza tasak

|                                     | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020  |
|-------------------------------------|------|------|------|------|------|-------|
| Kontsumo pribatua (bolumen indizea) | 3,3  | 3,3  | 3,1  | 3,0  | 1,8  | -10,7 |
| Kontsumo publikoa (bolumen indizea) | 2,1  | 1,8  | 2,1  | 1,2  | 2,2  | 4,5   |
| IPI kontsumo ondasunak. EAE         | 3,4  | 1,6  | 5,4  | 4,9  | 2,8  | -6,6  |
| IPI kontsumo ondasunak. Estatua     | 1,3  | 1,4  | 0,7  | -0,1 | 1,5  | -7,1  |
| Automobilen matrikulazioa           | 16,6 | 4,7  | 8,0  | 4,6  | -2,4 | -21,9 |
| Txikizkako merkataritzaren indizea  | 1,7  | 3,3  | 1,7  | 0,7  | 0,9  | -4,9  |

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Barne eskariaren beste osagai nagusiak, hots, kapital eraketa gordinak, ere beherakada handia izan zuen 2020an. Urte arteko aldakuntza tasa -% 11,6 izan zen, hau da, denbora seriearen historiako bigarren beherakadarik handiena; lehenengoa 2009an izan zen. Moteltzea inbertsio produktibo pribatuaren osagai guztietara hedatu zen, eta narriadura kapitalaren eraketa gordinari buruzko adierazleetan islatu zen.

Hori horrela izanda, ekipamendurako ondasunen industria ekoizpenaren indizeak hazkunde tasa negatiboak izan zituen urtean zehar. Bilakaera bera deskribatu zuten ekipamendurako ondasunen inportazioek ere, eta aldi horretan tasa negatiboa izan zuen (-%13,9). Beste aldagai batzuek, esaterako zama ibilgailuen matrikulazioek, -%20,8 inguruko aldakuntza tasak izan zituzten, eta bi urtez jarraian beherakada handia ezagutu zuten.



**Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera**  
**14. taula**

| Urte arteko aldakuntza tasak                        | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019  | 2020  |
|---|------|------|------|------|-------|-------|
| Kapital eraketa gordina (bolumenen indize kateatua) | 3,8  | 5,5  | 3,1  | 4,9  | 3,3   | -11,6 |
| - Ekipamendurako ondasunak                          | 7,3  | 8,6  | 3,5  | 4,5  | 2,1   | -13,3 |
| - Gainontzeko inbertsioa                            | 2,0  | 3,8  | 2,9  | 5,1  | 4,0   | -10,6 |
| IPI ekipamendurako ondasunak:                       | 7,0  | 8,5  | 3,3  | 4,1  | 2,0   | -12,5 |
| - IPI garraio materiala                             | 3,0  | 20,3 | 6,4  | 3,9  | 0,8   | -15,2 |
| - IPI makineria eta ekipamendua                     | 6,7  | 2,3  | 0,4  | 4,0  | 1,0   | -7,3  |
| Ekipamendurako ondasunen inportazioak               | 40,9 | 12,7 | 5,6  | 4,6  | 4,4   | -13,9 |
| Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa              | 32,4 | 6,2  | 10,3 | 18,7 | -12,7 | -20,8 |

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Covid-19ak eragindako krisia eta bere ondorio ekonomikoak ondasun eta zerbitzuen sare komertzialera ere iritsi ziren. C-interreg datu basearen arabera, Euskadik Estatuko gainerako erkidegoekin (erkidegoen arteko merkataritza) eta hiru euskal lurraldeekin (lurraldeen arteko merkataritza) dituen merkataritzako ondasun fluxuak (zerbitzurik gabekoak) aztertzeke aukera ematen du. Hala, 2020an, Estatura bidalitako ondasunen esportazioak %9,4 jaitsi ziren. Euskal Autonomia Erkidegoak beste autonomia erkidego batzuetan egindako ondasun erosketek dagokionez, %7,5 murriztu ziren. Egindako esportazioen balioa inportazioena baino pixka bat txikiagoa izan zen. Horrela, merkataritza saldoa 281 milioi eurokoa izan zen, Euskadiren kontrakoa, eta beste eskualde batzuekiko merkataritza defizitaren joera tradizionalari berrekin dio. Eskualde barruko merkataritzari dagokionez, aldakuntza tasa -% 11,7 izan zen.

Esportazioen kuotari dagokionez, EAEk atzerrian eginiko salmentek munduko salmenta guztiekiko duten partaidetza neurtzen baitu, pandemiak 2019an hasitako beheranzko joera indartu egin zuen. Nazioarteko merkataritza modu nabarmenean gutxitu zen mundu osoan, baina EAEko kanpo merkataritzaren uzkurdua handiagoak (-%16,2, dolarretan neurtuta) munduko merkataritzaren beherakada txikiagoarekin alderatuta (-%7,5 dolarretan) merkatu kuotaren galera ekarri zuen. Inportazioekin joera antzekoa izan zen. Bi kasuetan, 2020an erregistratutako kuota azken 15 urteetako txikiena izan zen.

**Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn**  
**15. taula**


Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

|  | 2015 | 2016 | 2017 (P) | 2018 (A) | 2019 (*) | 2020 (*) | Milioi €<br>2020(*) |
|--|------|------|----------|----------|----------|----------|---------------------|
| <b>Erkidegoen arteko merkataritza</b>  |      |      |          |          |          |          |                     |
| Esportazioak                           | 4,9  | -1,5 | 7,9      | 1,5      | 11,4     | -9,4     | 14.817              |
| Inportazioak                           | 10,9 | 0,2  | 7,7      | 4,5      | 1,4      | -7,5     | 15.098              |
| Saldoa guztira (milioi €)              | -673 | -900 | -939     | -1.417   | 33       | -281     | -281                |
| <b>Erkidegoen barneko merkataritza</b> |      |      |          |          |          |          |                     |
| Totala                                 | -1,4 | -3,4 | 8,8      | 6,8      | 7,1      | -11,7    | 11.153              |


(B) Behin-behineko datuak. (A) Aurrerapena (\*) Aurreikuspena.  
Iturria: C-interreg proiektua.

**EAeko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko**  
**9. irudia**

Esportazioak




Inportazioak




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) eta Eustaten datuetan oinarrituta. .

**Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan Urte arteko aldakuntza tasak (I)  
10. irudia**


Esportazioak guztira




Inportazioak guztira



Energiaren esportazioak



Energiaren inportazioak



Iturria: Eustat. 2020ko datuak behin-behinekoak dira.

Izan ere, Covid-19ak, blokeo nazionalak eta horiek kontrolatzeko ezarri ziren mugen itxierak ekonomia gehienen mekanikari aurrekaririk gabeko etena ekarri zioten, haien tamaina edo garapen etapa edozein zela ere, eta presio handia egin zuten munduko hornidura kateetan. Munduko ekonomiaren geldialdiak eragin erabatekoa izan zuen EAEko esportazioetan martxotik (-%21,8)

aurrera; hala ere, apirilean (-%53,2) eta maiatzean (-%36,0) hauteman ziren eragin handienak kanpo merkataritzan. Hurrengo hilabeteetan, joera negatibo hori leuntzen joan zen. Izan ere, 2019. urtea orain arteko bigarren erregistrorik onenarekin itxi ondoren (25.500 milioi euro inguru), EAEko ondasunak erosten dituzten merkatu handien beherakadak Euskadiko esportazioak 20.864,5 milioi eurora murriztea ekarri zuen, hau da, %17,8ko murrizketa 2019an esportatutakoarekin alderatuta, eta 2014tik izandako kopuru txikiena. Beherakada hori merkataritza bazkide nagusiek izan zutena baino zertxobait handiagoa da. Izan ere, guztizko esportazioek %8,3 egin zuten behera Europar Batasunean, %9,9 eurogunean, %9,3 Alemanian, %9,7 Italian, %14,6 Erresuma Batuan eta, azkenik, %16,3 Frantzian.

Uzkurdura hori are handiagoa izango zen prezioen bilakaeraren ondorioz izan ez balitz, zeren eta bilakaera horrek garrantzi handia izan baitzuen. Zehazki, guztizko esportazioen prezioek %0,2 egin zuten behera, eurotan egindako guztizko salmentek izandako beherakadaren oso azpitik, tonatan izandako salmenten jaitsieraren ildotik (-%15,7).


Energia esportazioen beherakada askoz handiagoa izan zen, bai eurotan neurtuta (-%53,0), bai tonatan (-%29,9), bai preziotan (-% 9,2). Arrazoi nagusia Petronorren bi ekoizpen unitateetako bat geldiaraztea izan zen. Zehazkiago adierazita, enpresa horren 2. Findegia gelditu zen, instalazioen ekoizpen osoaren %40 ematen duena eta urtean petrolioaren deribatuen 88.000 tona ekoizten dituen. Erregaien kontsumoaren beherakadaren ondorioz, findegiak instalazio hori maiatzetik aurrera ixtea erabaki zuen. Azaroan ireki zen berriro, baina salmenten bilakaera txarraren ondorioz, berriro itxi zen hilabete bat geroago. Izan ere, gasolinaren kontsumoa %42,6 jaitsi zen 2019 eta 2020 artean.

Ondasunen guztizko inportazioek %21,9 egin zuten behera urteko batez bestean, eta 2012ko mailara itzuli ziren. Energia produktuen erosketek hartu zuten beherakada handiena (%46,4), mugikortasunaren murrizketen eta petrolioaren prezioaren beherakada handiaren ondorioz. Kasu honetan, prezioen uzkuetzea ere zertxobait txikiagoa izan zen, eta horrek erosketa guztien gutxitzearen zati bat arindu zuen. Hala eta guztiz ere, EAEk ahultasun nabarmena du oraindik ere: mendekotasun energetiko handia. Eustaten datuek hori berresten dute. Izan ere, epigrafe horren atzerriko erosketa hiru aldiz handiagoa izan zen salmenta baino. Zehazki, 2020an ia 2.900 milioi euroko balioa zuten produktu energetikoak inportatu ziren, esportatutako 951 milioien aldean. Hori guztia dela eta, 1.947 milioi euroko defizit komertzial energetikoa sortu zen, kopuru handia, baina 2019ko 3.370 milioietatik urrun.


Energiaz bestelako esportazioen beherakada ez zen hain handia izan, baina oso nabarmena izan zen hori ere. Hain zuzen ere, eurotan neurtuta, esportazio ez-energetikoak 19.910 milioi euro baino gehiago izan ziren, orain arteko laugarren zenbatekorik altuena baita, baina ez zen nahikoa izan hazkunde positiboa eragiteko. Pandemia alde batera utzita (horrek, jakina, salerosketa guztiak murriztu zituen), 2019a maximo berri bat izan zen salmenta ez-energetikoetan, ekipamendurako ondasunen salmentak bizi zuen bilakaera ikusgarriak bultzatuta, batez ere garraio materialarenak. Beraz, urte horrekin alderatzeak beherakada ikusgarriagoak dakartza berekin. Zehatz-mehatz adierazita, energiaz bestelako esportazioek %14,8 egin zuten behera, sektore guztietan, lehen sektorean izan ezik, salmenta gelditu izanaren ondorioz, eta, zehazkiago, elikagaien eta edarien taldeetan izan ezik; izan ere, horien esportazioak %6,7 hazi ziren, pandemian funtsezko sektoretzat hartu zelako. Hori dela eta, sektore esportatzaileen artean nekazaritzaren arloak puntu bat irabazi du urtebetean.

**Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II)**  
**11. irudia**

Esportazio ez energetikoak



Inportazio ez energetikoak



Iturria: Eustat. 2020ko datuak behin-behinekoak dira.

Gainerako epigrafeak nabarmen gutxitu ziren. Pisu handieneko taldeen artean, garraio materialean salmenten murrizketa oso esanguratsua izan zen (-%22,4), atzetik eta hurbil metal arruntek eta haien manufaktura jasandako %16,7 zegoela. Krisi soziosanitarioak bi sektore horietan izan du eragin handiena. Kasu horretan, prezioen bilakaerak garrantzi berezia hartu zuen, %0,3ko hazkunde

positiboa izan baitzuen. Horrek esan nahi du eurotan esportazio ez-energetikoen beherakada arindu egin zela prezioen gorakadagatik, batez ere kontsumorako ondasunen prezioena, zuzeneko lotura baitute premia biziko ondasunekin, horien prezioa %3,8 igo baitzen.

Eremu geografikoen arabera, EAEko produktuen salmenten beherakada eremu guztietara hedatu zen, nahiz eta ELGEko herrialdeetara bideratutako esportazioen uzkurdurak (-%16,5) garapen bidean dauden herrialdeetara egindako salmentek izandakoak (-%24,0) baino zertxobait txikiagoak izan. Europar Batasuna izan zen berriz ere EAEko produktuen merkatu nagusia eta esportatutako guztizkoaren %62,7 bereganatu zuen. 2006. urtetik ez zen portzentaje horretara iristen. Salmenten ahultasuna merkataritza bazkide nagusi guztietara hedatu zen, eta bilakaera antzekoa izan zen guztietan, epigrafe garrantzitsuenetan uzkurdura handiak izan baitziren. Zehatzago esanda, garraio materiala, Europar Batasunari saldutako %30,8 biltzen baitu, %10,2 jaitsi zen. Beherakada hori automobilgintzaren atalean gertatu zen bereziki, zehazki 10 pertsona baino gutxiagoko turismoetan (-%23,3) eta ibilgailu automobilen zati eta osagarrietan (-%19,5). Metal arruntak eta horien manufakturak (guztizkoaren % 23,8 biltzen baitute), berriz, %11,2 uzkurdu ziren. Nekazaritzako produktuek soilik lortu zuten bilakaera ona, funtsezko ondasuntzat jotzen baitira, baina esportatutako produktu guztien gainean duten pisu txikia (%5,5) ez zen nahikoa izan gainerako taldeen uzkurdurak konpentsatzeko. Horren guztiaren ondorioz, Europar Batasunera egindako guztizko salmentak %12,6 jaitsi ziren.

Hala ere, emaitza hori erabat baldintzatu zuten esportazio talde nagusiek urteko lehen seihilekoan izandako ezohiko beherakadek. Izan ere, urteko bigarren seihilekoan hasi zen ikusten nolabaiteko hobekuntza esportazioetan, batez ere lehen aipatutako garrantzi handieneko taldeetan. Hori dela eta, epigrafe horietan pisu handiena zuten herrialdeek urteko lehen sei hilabeteetan izandako beherakadaren zati bat konpentsatu zuten, eta urteko balantzean beherakada nabarmen txikiagoa jaso zuten.

Hori izan zen Alemaniaren kasua. Izan ere, EAEko esportazioen %52,1 ibilgailu automobileren zegozkien arren, EAEko esportazioen guztizko beherakada %6,1era mugatu zen, Europako bazkide nagusien artean izandako txikiena delarik. Bigarren seihilekoan, garraio materialaren salmentek gora egin zuten (%4,3 hazi ziren uztaila eta abendua bitartean), baita sektoreari lotutako beste partida batzuek ere (plastikoa eta kautxua %13,9 hazi ziren aldi horretan), eta horrek azaltzen du jaitsiera txikiagoa izatea. Joera horri esker, Alemaniak lehen postua berreskuratu zuen EAEko espedizioen helmugan artean.

Frantziak, berriz, dibertsifikazio handiagoa erakusten du EAEko eragileei erositako produktuen artean. Horri esker, ordura arte, uzkurdurak saihestu ahal izan zituen, epigrafe bakar batek ere ez baitzuen erabat baldintzatzen esportazio guztien bilakaera. Kasu horretan, ibilgailu automobilak guztizkoaren %16,9 baino ez dira, eta urtean zehar ez zuten hazkunde positiborik lortu. Lehen sektoreak eta plastikoaren eta kautxuaren sektoreak baino ez zuten lortu erorketak saihestea, baina haien pisu erlatiboa, guztizkoaren %20,5 baino ez baita, ez zen nahikoa izan gainerako uzkurdurak konpentsatzeko. Ondorioz, Frantziara bidali ziren EAEko esportazioak %17,3 jaitsi ziren. 1993tik erregistratutako bigarren uzkurdura da, 2009an Atzeraldi Handiaren ondorioz jasandako hondamendiak bakarrik gainditu duena.

**EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga**  
**16. taula**

|                     | Urte arteko aldakuntza tasak |             |             |            |             |              | Milioi €        |
|---------------------|------------------------------|-------------|-------------|------------|-------------|--------------|-----------------|
|                     | 2015                         | 2016        | 2017        | 2018       | 2019        | 2020(*)      | 2020 (*)        |
| <b>Esportazioak</b> | <b>-2,9</b>                  | <b>-1,6</b> | <b>11,5</b> | <b>7,0</b> | <b>-1,2</b> | <b>-17,8</b> | <b>20.864,5</b> |
| ELGE                | -0,7                         | 1,7         | 11,9        | 8,0        | -1,2        | -16,5        | 17.483,3        |
| Europar Batasuna 27 | -2,0                         | 2,7         | 10,3        | 7,2        | -1,2        | -12,6        | 13.079,6        |
| Alemania            | 3,2                          | 4,7         | 13,0        | 1,2        | 0,9         | -6,1         | 3.607,4         |
| Frantzia            | 3,2                          | -0,4        | 4,0         | 5,0        | 0,3         | -17,5        | 3.232,9         |
| Erresuma Batua      | 2,3                          | -7,7        | 16,1        | 14,5       | 35,9        | -42,2        | 1.343,3         |
| Italia              | 13,0                         | -9,2        | 6,0         | 12,8       | -5,9        | -9,4         | 1.067,5         |
| AEB                 | 0,6                          | -10,5       | 18,4        | 16,5       | -15,5       | -23,8        | 1.362,5         |
| Japonian            | 90,8                         | 191,9       | -29,9       | -13,0      | 11,9        | 0,7          | 125,9           |
| Errusia             | -12,3                        | 13,4        | 23,3        | 6,4        | 14,9        | -1,4         | 287,6           |
| Txina               | -30,5                        | 18,9        | 2,3         | -12,7      | 5,6         | -12,1        | 436,3           |

(\*) Behin-behineko datuak.


Iturria: Eustat.

Estatu Batuak izan ziren EAEko produktuen hirugarren helmuga. Merkatu hori produktu energetikoen salmentak baldintzatu izan du tradizionaliki, baina azken urteotan banaketa dibertsifikatu egin da. 2008an, Amerikako merkatu horretara esportatutakoaren %53,0 energia zen, eta 2020an, berriz, ehuneko hori %17ra mugatu zen. Horien lekua makinek eta gailuek, eta garraio materialek hartu dute, 20 eta 12 puntu irabazi baitute, hurrenez hurren. Merkatu horretan, ibilgailu automobilaren salmentak gora egin zuen urte osoan zehar eta %201 hazi ziren, baina gainerako

epigrafeek pandemiaren eraginak nabarmen erakusten jarraitu zuten, eta, beraz, AEBetara bideratutako esportazioak %23,8 jaitsi ziren.

Erresuma Batuak, 2019an EAEko hirugarren merkatua izan baitzen, bere posizioa galdu zuen trenbideetako ibilgailuen salmentek behera egin zutelako. Izan ere, 2019an 782,4 milioi eurokoa izatetik 2020an 200,5 milioi eurokoa izatera igaro zen. 2019an trenen eta trenbideen eragiketak eta mantentze lanak barne hartzen zituzten proiektuetarako CAFek Erresuma Batuan irabazitako kontratuen amaierak azaltzen du beherakada handi hori. Izan ere, 2019 eta 2020 artean 981 milioi gutxiago esportatu zituzten EAEko agenteek Erresuma Batura. Horietatik, %59 (581 milioi euro) partida horri dagozkio. Gainerakoak ibilgailu automobilen salmentaren beherakadari dagozkio; bigarren partida garrantzitsua baita, eta, ondoren, metal arruntak eta horien manufakturak daude.

**Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena. 2020**  
**17. taula**



Iturria: Eustat. 2020ko datuak behin-behinekoak dira.

Italiako merkatura, 2015etik hona bosgarren merkatua baita, bidalitako esportazioak %9,4 jaitsi ziren, nahiz eta nekazaritzaren, energiaren eta paperaren sektoreek urtea tasa positibotan amaitu zuten. Hala eta guztiz ere, saldutako guztiaren %11 baino ez dute pisatzen, eta, beraz, hazkunde horiek ez zuten konpentsatu gainerako epigrafeen beherakada handiak. Are gehiago, Italiako merkatuaren ahultasuna ez da pandemiaren ondorioz etorri, 2019an ere ahul zegoelako.



EAEko merkatu tradizionalak salmentak alde batera utzita, Euskadiko eragileek beren zifrak hobetu zituzten Japoniako merkatuan (%0,7), eta okerrera egin zuten, ordea, Txinan (-%12,1), Brasilen (-%10,5) eta Errusian (-%1,4).

**EA Eren eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria**  
**18. taula**

|                     | Urte arteko aldakuntza tasak |             |             |            |             |              | Milioi €<br>2020(*) |
|---------------------|------------------------------|-------------|-------------|------------|-------------|--------------|---------------------|
|                     | 2015                         | 2016        | 2017        | 2018       | 2019        | 2020(*)      |                     |
| <b>Inportazioak</b> | <b>-1,8</b>                  | <b>-7,3</b> | <b>19,9</b> | <b>9,5</b> | <b>-1,6</b> | <b>-21,9</b> | <b>15.704,9</b>     |
| ELGE                | 4,0                          | -6,9        | 17,1        | 5,3        | 1,1         | -18,9        | 11.105,0            |
| Europar Batasuna 28 | 6,1                          | 1,3         | 8,9         | 6,3        | 0,7         | -59,4        | 8.548,5             |
| Alemania            | 19,4                         | 9,9         | 6,7         | 5,1        | 3,4         | -14,9        | 2.562,4             |
| Frantzia            | 11,1                         | -8,9        | 12,9        | 5,2        | -7,9        | -11,8        | 1.560,2             |
| Erresuma Batua      | 14,8                         | -52,5       | 60,6        | -42,1      | -17,8       | -20,0        | 507,3               |
| Italia              | 2,2                          | 3,1         | 8,2         | 7,7        | -3,8        | -11,3        | 849,8               |
| AEB                 | 3,1                          | -4,6        | 19,5        | 14,0       | 85,6        | -39,9        | 565,3               |
| Japonian            | 2,1                          | 63,5        | 6,9         | -8,9       | -0,6        | -32,0        | 136,9               |
| Errusia             | -47,2                        | 33,7        | -44,0       | -38,5      | 192,1       | -50,0        | 571,9               |
| Txina               | 25,0                         | -11,1       | 0,5         | 9,9        | 16,1        | -7,0         | 1.243,0             |
| Brasil              | 47,1                         | 42,1        | 98,3        | 126,1      | -69,6       | 27,6         | 247,1               |

(\*) Behin-behineko datuak.  
Iturria: Eustat.

Lehenago aipatu den bezala, atzerritik ekarritako ondasunen inportazioak %21,9 murriztu ziren, esportazioen erregistroaren zertxobait gaineratik. Salmentek bezala, beherakada horrek gorabidean dauden herrialdeei eragin zien bereziki (-%28,4), eta herrialde aurreratuetatik etorritako erosketek, berriz, %18,9 egin zuten behera. Kasu honetan, bilakaera desberdin hori eremu bakoitzetik inportazioen osaerak baldintzatu zuen. Garatzeko bidean dauden herrialdeetan, energiaren inportazioak salmenta guztien %34,8 izan ziren, eta herrialde garatuetan, berriz, %12,2. Dena den, osaera hori asko alda daiteke urte batetik bestera. Konfinamenduak produktu mineralen eskaera txikiagoa ekarri zuen, batez ere erregaiena, eta horrek, prezioa murriztearekin batera, inpaktu handiagoa ekarri zuen garapen bidean dauden merkatuen artean. Izan ere, inportazio ez-energetikoetan, herrialde aurreratuetatik ekarritako salmentek %15,1 egin zuten behera eta garapen bidean dauden herrialdeetan, berriz, %5,2ra mugatu zen uzkurdua.


Energiaz bestelako inportazioen bilakaera, esportazioena bezala, jarduera ekonomikoaren murrizketek eta paralisiak markatu zuten, baina kasu honetan lehen sektorea ere ez zen gai izan egoera positiboan kokatzeko. Erregai mineralen (-%46,8), metal arrunten eta haien manufakturen (-%18,9), makinen eta aparatuen (-%14,3) eta garraio materialaren (-%12,9) inportazioak nabarmendu ziren, haien beherakaden intentsitateagatik. Atzeraldi Handian erregistratutako aurrekaririk gabeko uzkurdua ez bezala, epigrafe guztiak modu malkartsuan eta guztiak %20 baino gehiago erori baitziren, Itxialdi Handian epigrafe guztietan inportatutako zenbatekoa 2009an erregistratutakoa baino askoz handiagoa izan zen, produktu energetikoen kasuan izan ezik, horiek 2004tik izandako kopuru txikiena zenbatu baitzuten. Krisi honen ezohikotasunak azaltzen du desberdintasun hori.

Euskadiko hornitzaile nagusien artean, Alemaniatik etorritako inportazioak %14,9 beheratu ziren, Frantziakoak, berriz, %11,8 eta Italiakoak %11,3, eta, azkenik, Erresuma Batukoak %20,0 gutxitu ziren. Britainiarren kasuan, produktu energetikoen pisu handiak areagotu egin zuen haien uzkurtzea. Errusiako merkatuak britainiarraren bilakaera bera izan zuen, 2019an Errusia izan baitzen EAEko energia hornitzaile nagusia. Zehatzago esanda, 2019an Errusiak ia 1.000 milioi euro esportatu zituen Euskadira energian, inportatutako guztiaren %18,5. 2020an, zenbateko hori 477 milioi eurora murriztu zen. Hala ere, hornitzaile nagusia izaten jarraitu zuen, inportatutako energia guztiaren %16,4 ekarriz.

Laburbilduz, Covid-19ren pandemiak aurrekaririk gabeko astinketa eragin zuen EAEko ekonomian eta kanpo-merkataritzan, eta horrek epigrafe guztietako salmenten jaitsiera ekarri zuen, salbuespen bakarra lehen sektorea izan zelarik, funtsezkotzat jotzen zelako. Inportazioen kasuan, uzkurdua epigrafe guztietara hedatu zen, salbuespenik gabe. Hala eta guztiz ere, bien kopuru guztizkoak 2008ko krisian erregistratutakoak baino askoz handiagoak izan ziren, eta 2013an jasotako mailen parekoak izan ziren. Dena dela, merkataritza saldo osoa Euskadiren aldekoa izan zen, 5.160 milioi eurotan, hau da, BPGaren %7,2. Saldo ez-energetikoa ere positiboa izan zen, 7.106 milioi eurotik gorakoa.

EAEko ekonomia irekia da eta oso lotuta dago kanpoaldearekin. Integrazio hori izan zen, hain zuzen ere, birusaren hedapena ahalbidetu zuena. Euskadik bere aldeko jarrera du oraindik merkataritza bazkide nagusiekin. Hala baieztatzen du estaldura tasak, 2019ko mailekin alderatuta ia hamar puntu murriztu arren, %123,2koa izan baitzen, bazkide komertzial nagusien estaldura tasa baino askoz handiagoa. Herbehereek bakarrik izan zuten tasa handiagoa. Nolanahi ere, tasa horiek guztiak 2019koak baino txikiagoak izan ziren.

**EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak**  
**12. irudia**




Iturria: Eustat EAEko datuentzat eta Datacomex eta Eurostat. 2020ko datuak behin-behinekoak dira.

Osasun krisia kontrolatu ahala eta txertaketak aurrera egin ahala, merkataritzaren susperraldia hasierako beherakada bezain azkarra izaten ari da. 2021eko lehen hiruhilekoan, EAetik kanpoko salmentek gora egin dute, eta urte arteko igoera %9,1 izan da. Datu horrek amaiera ematen die 2020an izandako beherakada handiei. Guztira, esportazioen balioa 6.000 milioi eurotik gorakoa izan zen, kopuru handia, baina 2018 eta 2019 urteen hasieran lortu ziren kopuruetara iritsi gabe. Epigrafe

guztiek hazkunde positiboekin zieten, produktu energetikoen esportazioak izan ezik, horiek ez baitzuten gorakadarik izan eta %27,3ko beherakada izan baitzuten. Horrela, bederatzi hiruhileko jarraian izan dira beherakadak atal horretan.

Koronabirusaren eragina nabarmena izan zen EAEko lan merkatuan, eskariak behera egin zuelako eta ekoizpenerako murrizketak gertatu zirelako. Eragin hori oso garrantzitsua izan zen pandemia martxoan hasi zenetik. Ondorengo hilabeteetan areagotu egin zen eta biztanleria landunaren beherakada nabarmena eragin zuen, baita langabeziaren eta lana aurkitzeko adoregabetuta zeuden pertsonen kopurua handitzea ere.

**Partaidetza tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn**  
**13. irudia**



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat.

Gogogabetasun hori biztanleria aktiboaren beherakadan islatu zen, %1,3 murriztu baitzen. Jaitsiera horri (14.000 pertsona aktibo gutxiago) gehitu behar zaizkio lan egin nahi duten arren BJA zenbatu ez zirenak, enplegua aktiboki bilatzeko baldintzak ez betetzeagatik. Kolektibo horrek, beste behin ere, 25 eta 44 urte bitarteko taldea izan zuen ahulena, biztanleria aktiboa %3,7 jaitsi baitzen; biztanleria gazteenak, berriz, %7,6 egin zuen gora nabarmen, eta zaharrenak, berriz, %0,1. Aitzitik,

sexuaren arabera aldea askoz ere txikiagoak izan ziren: %1,2 jaitsi ziren gizonak eta %1,4, berriz, emakumeak.


Bilakaera horren ondorioz, partaidetza tasa orokorrak puntu bat baino gehiago galdu zuen Euskadin, %55,7ra jaitsiz, eta beherakada bana hauteman zen adin talde guztietan, gazteenetan izan ezik, horietan igoera erregistratu baitzen; hala ere, egia da partaidetza tasa oraindik oso txikia dela talde horretan eta %30etik beherakoa dela. Hala ere, Lanbidek 2030era arte egindako Futurelan prospektiba-tresnaren arabera, datozen urteetan enplegua lortzeko aukera handiak sortuko dira, bai ekonomiaren hazkundeagatik eskari handiagoa dagoelako, bai erretiroengatik ordezkapen beharra areagotuko delako.

Biztanleria aktiboaren beherakadaren ildotik, okupazioak ere behera egin zuen, nahiz eta iturri estatistikoek tamaina ezberdinetako beherakadak jaso zituzten. Hori horrela izanda, Gizarte Segurantzako afiliazioak aldaketa ez hain negatiboak erakutsi zituen (-%1,3), eta lan merkatuko estatistikak (BJA eta BAI inkestak) oso antzekoak izan ziren, hurrenez hurren -%2,2an eta -%2,0an kokatu zirelako. Aitzitik, jaitsiera biziena zenbatetsi duen estatistika, alde handiz gainera, Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoak dira, eragiketa horren arabera %8,1 jaitsi baitzen. Azken estatistika hori benetan egindako lanorduetan oinarritzen da, lanaldi osoko lanaldietan multzokatuta, eta, beraz, ezin da aurrekoekin alderatu.

Lanaldi osoko lanpostuen kopuruaren jaitsierak ez du aurrekaririk estatistika horren historian eta jaitsiera nabarmenak erakutsi zituen produkzio sektore guztietan. Hala, kontu ekonomikoen arabera, industriaren sektoreak erregistro txarrenak eskuratu zituen (-%10,0), eskariak behera egin zuelako, pandemiari eusteko murrizketek gutxiago eragin zioten arren. Ondoren, zerbitzuen beherakada (-%7,8) nabarmendu zen, mugikortasunari ezarritako murrizketek beraren jarduera geldiarazi zutelako. Azkenik, eraikuntza kokatu zen, %6,5 murriztu zena, eraikuntzako zein obra zibileko obrak gelditu zirelako.

Beste aldetik, 2019an urtetik urterako % 2,0ko igoera lortu ondoren, Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,3 egin zuen behera 2020an, pandemiaren ondorioz. Jaitsiera apirilean hasi zen, baina ekainean izan zuen beherakadarik handiena. Hala ere, beherakada horiek aurreko krisialdikoak baino txikiagoak izan ziren. Hori horrela izateko arrazoi nagusia aldi baterako enplegu espedienteen erabilera izan zen, enpresekin lotutako langileei eusteko aukera eman baitzieten eta ematen jarraitzen baitute.

**Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak**  
**14 irudia**



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzak eta INE.

Pandemiak ekonomian izan zuen eragina desberdina izan zen jarduera ekonomikoaren arabera, eta gehien kaltetutako adarra ostalaritzarena izan zen, turismo jardueraren beherakadaren ondorioz, mugikortasunari ezarritako murrizketek bereziki kaltetuta. Era berean, bai merkataritzak bai garraioak, murrizketa horiek neurri txikiagoan pairatu bazuten ere, aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten. Kontrako zentzuan, osasun alorreko jarduerak nabarmendu ziren, eta horien okupazioa areagotu egin zen, koronabirusa zuten gaixoak artatzeko osasun zentroetako plantillak indartu

zirelako. Hezkuntza sektoreak ere afiliazio handiagoa izan zuen, eta langile gehiago kontratatu zituen, ikasturte zaila aurrera atera ahal izateko.

**Enplegua sektoreka**  
**19. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak


|                         | 2015       | 2016       | 2017       | 2018       | 2019       | 2020        |
|-------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|-------------|
| <b>Enplegua guztira</b> | <b>2,1</b> | <b>2,2</b> | <b>2,1</b> | <b>2,3</b> | <b>1,5</b> | <b>-8,1</b> |
| - Enplegua lehen arloan | -1,0       | 0,7        | 0,1        | 2,1        | -1,9       | -2,5        |
| - Enplegua industrian   | 1,3        | 1,9        | 2,9        | 1,7        | 0,9        | -10,0       |
| - Enplegua eraikuntzan  | 2,2        | 0,3        | -0,1       | 3,7        | 3,0        | -6,5        |
| - Enplegua zerbitzuetan | 2,4        | 2,5        | 2,1        | 2,3        | 1,6        | -7,8        |

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.

BJAren arabera, eta okupazioari dagokionez, iazko enplegu suntsiketa %2,2koa izan zen, eta, horrela, bost urtez jarraian lanpostuak sortu eta gero, amaiera eman zitzaion aldi horri. Hala eta guztiz ere, beherakada espero zitekeena baino apalagoa izan zen; izan ere, aldi baterako lan erregulazioko egoeran zeuden pertsona gehienek okupatutzat jotzen jarraitu zuten, hiru hilabete baino gutxiagoan lanera itzultzeko asmoa zutelako edo soldataren %50 baino gehiago kobratzen jarraitzen zutelako.

Okupazioaren beherakada hori nabarmenagoa izan zen gizonezkoen artean (-%2,8) emakumezkoen artean baino (-%1,5), jarduera feminizatuenek portaera hobea izan baitzuten. Era berean, pandemiak EAeko lan merkatuan izan zuen eragina desberdina izan zen adin tarteen arabera. Hala, 25 eta 44 urte bitartekoak kaltetuenak izan ziren bitartean (-%5,7), biztanleria gazteenak (%1,1) bilakaera positiboa izan zuen, 45 urtetik gorakoek bezala (%0,8), enplegu egonkorragoak baitituzte.

**Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn**  
**15. irudia**



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.

Iturria: Eustat.


Bereziki interesgarria da azpimarratzea erreferentziako astean lanik egin ez zuten pertsona landunen ehunekoaren bilakaera. Izan ere, koronabirusak enpleguan izan zuen eragina hautematea ahalbidetzen du, bereziki bigarren hiru hilekoarekin alderatuz gero, azken hori izan baitzen konfinamendua gertatu zen aldia. Zehatz-mehatz adierazita, 2020ko hiru hileko horretan tasa %26,6koa zen, eta azken urteetan, berriz, %7,5aren eta %11,0aren artean kokatu zen. Aitzitik, hirugarren hiru hilekoetan, nahiz eta zifrak beti handiagoak izaten diren, biztanleria landunaren zati handi baten opor asteak orduan jasotzen direlako, erregistratu ziren aldeak ez ziren bereziki esanguratsuak izan, normaltasunera itzultzeko urrats nabarmenak eman diren seinale.

Zalantzarik gabe, krisialdi honetako elementurik nabarmenetako bat ABEEen tresnaren erabilera orokorra da. Tresna horrek modu eraginkorrean lagundu zuen kaleratzeak eragozten eta horrela lanpostuak babesten eta langileen errentei eusten lagundu zuen. Hori horrela izanda, martxoaren erdialdean alarma egoera ezarri eta ABEEek koronabirusari aurre egiteko dekretua argitaratu ondoren, EAeko enpresek aukera horri heldu zioten. Mekanismo horrek eraginkortasun handia erakutsi du enplegura itzultzea errazteko, joan den udaberrian hartutako konfinamendu neurrien ostean.



ABEEen figura aurretik ere egon bazegoen ere, inoiz ez ziren hain modu masiboan aplikatu, eta Gizarte Segurantzatik salbuetsi ziren haietaz baliatu ziren enpresak, eta abantaila bat ere bazuten: langileek soldataren %70 jasotzen zuten langabezia prestazioak kontsumitu gabe. Hobari horiek langileak 2020ko maiatzean hasitako desekalatze fasean berriz lanpostuetara itzultzea sustatu zuten, eta etengabea izan ziren ABEEen ondorengo luzapenetan. Hain zuzen ere, data hartatik aurrera, 220.000 pertsona baino gehiago egon ziren ABEE baten eraginpean EAEn uneren batean, eta punturik gorena 2020ko maiatzean izan zen. Kopuru hori murriztu egin zen epealdi horretatik, baina gora egin zuen berriro hilabete batzuetan, kutsatze olatuen eta hartutako murrizketen ondorioz.

**Aldi baterako enplegu erregulazioko egoeran dauden pertsonen bilakaera**  
**16. irudia**



Iturria: Gizarte Segurantza.

Tresna horrek, ordea, ez zuen lortu enplegu erregulazioko espedienteak, hau da, aldi baterakoak ez diren espedienteak, lan harremana azkentzea dakartenak, nabarmen areagotzea saihestea. Hala, behin betiko kaleratze kolektiboak ia bost aldiz biderkatu ziren, 297tik 1.313ra igaro baitziren. 2014tik izandako daturik txarrena izan zen hori; izan ere, aldi horretan, azkentze espedienteek eragindako pertsonak 1.460 ziren. Hala ere, BPGaren jaitiera aurreko krisian

baino askoz handiagoa izan zela kontuan hartuta, datuak erakusten du ABEEak eraginkorrak izan direla kaleratzeak saihesteko.

**Enplegua erregulatzeko EAEn baimendu diren espedienteak**  
**20. taula**

Kopurua

|                           | 2015       | 2016       | 2017       | 2018       | 2019       | 2020          |
|---------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|---------------|
| <b>Espediente kopurua</b> | <b>695</b> | <b>446</b> | <b>266</b> | <b>187</b> | <b>173</b> | <b>30.690</b> |
| Eragindako langileak      | 8.108      | 6.283      | 4.342      | 3.187      | 2.449      | 210.019       |
| <i>Dosier mota</i>        |            |            |            |            |            |               |
| - Lanaldia murriztekoa    | 1.530      | 1.172      | 481        | 355        | 219        | 26.243        |
| - Behin-behineko etetea   | 5.718      | 4.473      | 2.864      | 2.299      | 1.933      | 182.463       |
| - Kontratua amaitzekoa    | 860        | 638        | 997        | 533        | 297        | 1.313         |

Iturria: Lana eta Enplegu Saila.



Etorkizunari begira, gaur egungo osasun eta ekonomia testuinguruaren ezaugarri den ziurgabetasuna dela eta, komenigarria da ABEEek langileen eta enpresen arteko lan harremanen funtsezko euskarri gisa jokatzeko jarraitzea, langile talde batzuek zailtasunak izan baitituzkete lan munduan berriz sartzeko, krisiak denboran aurrera egin ahala. Horrela, enplegu atxikipenen erabilera orokorrak lan egoera apur bat arintzea ahalbidetu bazuen ere, enpleguak denbora beharko du erabat suspertzeko.

Lehenago ere adierazi den bezala, langile talde zaugarriagoak egon ziren. Horietako bat prestakuntza gutxien duten pertsonena da, pandemiak gehiago kaltetu zituenak. Hori dela eta, goi mailako hezkuntza mailaren adierazleak 30-34 urteko adin tartean duen garrantzia, goranzko joerarekin jarraitzen baitu azken hiru urteetan, eta Europar Batasunak aurkeztutakoak baino askoz erregistro handiagoak lortu baititu (%59,6 eta %40,9, hurrenez hurren). Era berean, hezkuntza sistema arautua goiz uztea neurtzen duen adierazleak Europak eskatutako %10etik oso behera jarraitzen zuen, eta, zorionez, pandemiak ez zituen kopuru horiek igo.

**Goi mailako hezkuntza maila (30-34 urte bitarteko taldea)**  
**17. irudia**

Euskadi

EB-27





Iturria: Eustat eta Eurostat.

**Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera**  
**18. irudia**

Enplegu tasa


Langabezia tasa



Iturria: INE.

Aurreko urteetan bezala, prestakuntza handieneko kolektiboak lan posizio hobea izan zuen, enplegu tasa handienak (%72,3) eta langabezia tasa txikienak (%6,6) erregistratu baitzituen. Hala eta guztiz ere, Lanbideren laneratzeari buruzko datuek erakusten dutenez, EAEko unibertsitarioen %20 inguruk oraindik ere betetzen dituzte egin dituzten ikasketekin oso lotuta ez dauden lanpostuak, lan merkatuak goi mailako tituludun berrien fluxuak xurgatzeko duen zailtasunagatik; kasu batzuetan, ordea, zailtasunak izaten ari dira profil espezializatu batzuk kontratatzeko.

**Aldi baterako enplegu tasa soldatapekoekiko**  
**19. irudia**




Iturria: Eustat eta Eurostat.

Enpleguaren kalitateari dagokionez, EAEko lan merkatuaren bitasuna zuzendu gabe dago oraindik, eta, urte horretan, aldi baterako kontratua zuten soldatapekoengan egin zen, batez ere, lan doikuntza. Hala, koronabirusaren krisi honetan, aldi baterako enplegua nagusi zen sektorerik zigortuenak izan ziren, esate baterako ostalaritza. Doikuntza horren ondorioz behin-behinekotasun tasa puntu bat baino gehiago murriztu zen arren (%29,4 izan zen eta %30,8, berriz, aurreko urtean), oraindik oso urrun dago Europako mailetatik (%13,6).

**Lanaldi partziala duten landunek landun guztiekiko  
20. irudia**

Euskadi

EB-27



Iturria: INE eta Eurostat.


Aldiz, behin-behinekotasunarekin ez bezala, enpleguan intentsitate txikiagoa duten langileen kolektiboek, hau da, lanaldi partzialean lan egiten dutenek, aurreko urtekoak baino erregistro txikiagoak jaso zituzten, sei hamarren jaitsi baitziren, %16,7tik %16,1era. Kontratu horietan desoreka nabarmenak jarraitu zuen, emakumeen kaltetan, azken hauek lanaldi partzialeko kontratuen ia %80 bereganatu baitzuten.

Langabezian zeuden pertsonen kopuruaren bilakaerari dagokionez, kolektibo hori lotutako bi faktorek baldintzatu zuten: koronabirusa agertzeak berak eta jarduera murrizketei aurre egiteko hartutako neurriek. Neurri horien artean, aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak daude, langabeziaren igoera hain nabarmena ez izatea ahalbidetu zutenak. Izan ere, langile askok enpleguari eusteko programa horiek erabili ahal izan zituzten, nahiz eta enpresak jarduerarik ez izan.

Horiek horrela, lan merkatuak, aipatutako neurriek babestuta, koronabirusaren pandemiak eragindako ondorio ekonomikoari aurre egiteko gaitasun nabarmena erakutsi zuen, eta urteko batez besteko langabezia tasa %10,6 izan zen.

Langabezia tasa hori aurreko atzeraldietan izandakoa baino askoz gutxiago igo zen, batez ere emakumeen langabeziaren bilakaerari esker; izan ere, azken horiei mesedea egin zien krisiak gutxien eragindako funtsezko jarduerak feminizatuago egoteak.

**Langabezia tasaren bilakaera EAEn**  
**21. irudia**




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat eta INE.


Alde nabarmenagoak agertu dira adin tarteen arabeko analisian, ohikoa izaten ari denez. Hala, enpleguaren suntsipenak batez ere gazteenei eragin zien, eta langabezia %30 baino gehiago igo zen. Beste aldean, adin handieneko taldea dago: ez zuen enplegurik suntsitu eta, aitzitik, beheranzko joerarekin jarraitu zuen, langabeen kopuruari dagokionez. Azkenik, erdiko adin taldean, aurreko urteetako joera positiboa hautsi zen eta langabezia dauden pertsonen kopurua %13,0 baino gehiago hazi zen.

**Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn**  
**22. irudia**

Gizonak



Emakumeak



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat.

**Erregistratutako lan kontratuen bilakaera**  
**21. taula**

|                          | Kontratuak     |             | Urte arteko aldakuntza (%) |            |            |            |              |
|--------------------------|----------------|-------------|----------------------------|------------|------------|------------|--------------|
|                          | 2020           | 2015        | 2016                       | 2017       | 2018       | 2019       | 2020         |
| <b>Guztira</b>           | <b>680.409</b> | <b>14,1</b> | <b>6,5</b>                 | <b>3,0</b> | <b>3,9</b> | <b>0,7</b> | <b>-30,3</b> |
| Lanaldi osoko mugagabeak | 20.558         | 12,4        | -0,2                       | 11,6       | 18,2       | -10,8      | -29,5        |
| Obra edo zerbitzukoak    | 114.998        | 9,2         | 1,3                        | 2,2        | 3,4        | -2,4       | -28,9        |
| Abagunekoak              | 193.910        | 20,5        | 10,9                       | 6,6        | 7,2        | 4,5        | -29,8        |
| Lanaldi laburrekoak      | 260.583        | 12,8        | 8,6                        | 3,7        | 3,1        | 2,6        | -34,2        |
| Prestakuntzakoak (*)     | 4.951          | 29,8        | -11,6                      | 5,1        | 6,9        | -17,2      | -35,7        |
| Gainontzekoak            | 85.409         | 13,2        | 2,8                        | -6,2       | -3,7       | -5,9       | -18,5        |

(\*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuak erabiliz.

Azkenik, kontratazioaren bilakaera benetan negatiboa izan zen: behera egin zuten osagai guztiek eta baita kontratu finkoek (-%29,0) zein aldi baterakoek (-%30,3) ere. Azken horien beherakada berritasun bat izan zen aurreko ekitaldiekin alderatuta, eta, neurri batean, txandakatze handia murriztea ahalbidetu zuen, kontratu kopuruaren eta kontratatutako pertsonen arteko erlazioa neurtzen baitu, 3,3tik 2,9ra.

Barne jatorriko kostuen presioei erreparatzen badiegu, BPGaren deflatorearekin neurtuta, 2020an adierazle horrek urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jaso zituen, oso bakanetan gertatzen dena, baina 2009an ere, Atzeraldi Handian, gertatu zena. 2020. urteko batez bestekoa -%0,1eko aldakuntza izan zen, pandemia hedatu aurreko lehen hiruhilekoarekin, positiboan, eta gainerako hiruhilekoetan prezioen jaitsierak erregistratu ziren. Jaitsiera horretan deflatore guztiak izan ziren partaide, inolako salbuespenik gabe, eta esportazioen deflatorearen balio negatiboak nabarmendu ziren, petrolioaren prezioaren gorabeherak eragin handia izan baitzuten.

KPIari dagokionez, eskari agregatuaren ahultasunak kontsumoko prezioak beherantz bultzatu zituen, oro har, azken urte honetako zatirik handienean. Beraz, pandemiaren eragina erabat desinflazionista izan zen, hau da, prezioak murriztu ziren, baina deflazioan sartu gabe. Zehazki, kontsumoko prezioek, urtea tasa positiboetan hasi ondoren, apiriletik aurrera ez zituzten balio negatiboak alde batera utzi, neurri handi batean petrolioaren prezioaren beherakada handiak baldintzatuta.

**Deflatoreen bilakaera**  
**22. taula**

|                             | 2015       | 2016       | 2017       | 2018       | 2019       | 2020        |
|-----------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|-------------|
| <b>BPGaren deflatorea</b>   | <b>0,2</b> | <b>0,6</b> | <b>0,7</b> | <b>1,2</b> | <b>1,1</b> | <b>-0,1</b> |
| Barne eskariaren deflatorea | -0,2       | 0,2        | 0,8        | 1,5        | 1,2        | 0,3         |
| Kontsumo pribatuaren        | -0,2       | 0,1        | 0,9        | 1,5        | 1,0        | 0,0         |
| Kontsumo publikoaren        | -0,1       | 0,1        | 0,3        | 1,3        | 2,0        | 1,2         |
| Inbertsioaren deflatorea    | -0,4       | 0,2        | 0,8        | 1,4        | 1,3        | 0,5         |
| Esportazioen deflatorea     | -1,5       | -0,7       | 2,1        | 3,2        | 0,9        | -0,5        |
| Inportazioen deflatorea     | -2,0       | -1,4       | 2,3        | 3,6        | 1,1        | 0,2         |

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta



Gauzak horrela, petrolioaren kotizazioak gorabehera handiak ezagutu zituen 2020. urtean zehar, apirilean 5 dolarren eta urte hasieran 70 dolarren arteko erregistroekin. Beraz, pandemia hasi baino lehenagoko denboran petrolioaren balioak oso altuak ziren, baina koronabirusa hasi zenean, munduko eskariaren ahultasuna zela eta, Brent upelaren prezioa modu esanguratsuan jaitsi zen, mugikortasunaren murrizketek eta telelanak lehengai horren kontsumoa nabarmen gutxitzea eragin baitzuten.

Petrolioak bezala, gainerako lehengaiak ere nabarmen murriztu zituzten prezioak urteko hilabete nagusietan, jarduera ekonomikoa eten egin zelako, eta horrek oinarritzko produktu industrial nagusiei eragin zielako. Prezioen jaitsiera handietatik ihes egin zuten ondasun bakarrak elikagaiak izan ziren, hazkunde ekonomikoari gutxiago lotuta baitaude, eta jaitsiera txikiagoak baino ez zituzten izan joan den ekitaldiko lehen hilabeteetan.

Beste aldetik, azpiko inflazioak beheranzko joerari jarraipena eman zion, baina beherakada hori inflazio orokorrak izandakoa baino txikiagoa izan zen, jaitsiera energiaren prezioen merkatzeak eragin baitzuen nagusiki. Zehazkiago adierazita, inflazioaren nukleo egonkorak atzera egin zuen 2020an, eta batez beste %0,8an kokatu zen; 2019an, berriz, %1,0koa izan zen, eta urtea oso balio txikietan amaitu zen.

**Kontsumoko prezioen indizearen banaketa**  
**23. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

|                                     | 2016        | 2017       | 2018       | 2019       | 2020        | Ekarpena    |
|-------------------------------------|-------------|------------|------------|------------|-------------|-------------|
| <b>Inflazioa guztira (%100)</b>     | <b>0,0</b>  | <b>2,0</b> | <b>1,6</b> | <b>1,0</b> | <b>-0,1</b> | <b>-0,1</b> |
| <b>Azpiko inflazioa (%81,2)</b>     | <b>0,9</b>  | <b>1,1</b> | <b>0,9</b> | <b>1,0</b> | <b>0,8</b>  | <b>0,6</b>  |
| KPI landutako elikagaiak (%13,9)    | 0,9         | 0,0        | 0,9        | 0,6        | 1,7         | 0,2         |
| KPI industriako ondasunak (%24,4)   | 0,8         | 0,3        | -0,1       | 0,3        | 0,3         | 0,1         |
| KPI zerbitzuak (%42,9)              | 1,1         | 1,7        | 1,5        | 1,6        | 0,8         | 0,3         |
| <b>Hondarreko inflazioa (%18,8)</b> | <b>-4,2</b> | <b>6,5</b> | <b>4,6</b> | <b>0,8</b> | <b>-4,0</b> | <b>-0,7</b> |
| KPI landugabeko elikagaiak (%7,8)   | 2,6         | 3,7        | 2,9        | 1,3        | 4,0         | 0,3         |
| KPI energia (%11,0)                 | -8,2        | 8,2        | 5,9        | 0,4        | -9,4        | -1,0        |

Iturria: INE.

Azpiko inflazioaren osagaien artean, zerbitzuek bakarrik erakutsi zuten beheranzko bilakaera handia. Hain zuzen ere, pandemiaren testuinguruan ezarri ziren konfinamenduek eta birusari eusteko neurriek eragin handiagoa izan zuten zerbitzuen aldakuntza tasan, eta hori bereziki nabarmena izan zen turismoarekin, bidaiekin eta aisialdiarekin lotutako partiden inflazioaren jaitsieran. Era berean, energiaz bestelako industria ondasunek, nahiz eta eskariaren hondoratzeak beraietan ere eragina izan, ez zuten aldaketarik izan. Azkenik, landutako elikagaien prezioak nabarmen garestitu ziren.

Beste aldetik, kontsumoko prezioen indizearen osagai gorabeheratsuenak kontrako norabideetan garatu ziren. Hain zuzen ere, energiaren prezioek minimo historikoak izan zituzten (-%9,4), pandemia hasi zenean petrolioaren prezioak behera egin izanaren isla. Hala eta guztiz ere, elikagai freskoek (%4,0) ekarpen positiboa egin zioten hondar-inflazioari. Aurrekoaren ondorioz, hondar inflazio osoak -%4,0 esanguratsua jaso zuen.

**EAEko kontsumo prezioen indizea**  
**24. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak


|   | 2015        | 2016       | 2017       | 2018       | 2019       | 2020        |
|---|-------------|------------|------------|------------|------------|-------------|
| <b>Indize orokorra</b>                  | <b>-0,3</b> | <b>0,0</b> | <b>2,0</b> | <b>1,6</b> | <b>1,0</b> | <b>-0,1</b> |
| - Janariak eta alkoholik gabeko edariak | 1,4         | 1,6        | 1,2        | 1,5        | 0,9        | 2,8         |
| - Edari alkoholdunak eta tabakoa        | 0,9         | 0,4        | 1,7        | 2,2        | 0,3        | 0,2         |
| - Jantziak eta oinetakoak               | 0,4         | 0,8        | 0,7        | 1,1        | 1,0        | 1,0         |
| - Etxebizitza                           | -1,7        | -4,1       | 3,7        | 2,6        | -1,4       | -3,3        |
| - Etxeko hornidura                      | 0,0         | 0,5        | -0,3       | 0,3        | 1,0        | 0,5         |
| - Medikuntza                            | 0,1         | 1,0        | 1,1        | 0,2        | 0,4        | 0,5         |
| - Garraioa                              | -4,1        | -1,8       | 4,3        | 3,4        | 2,7        | -3,6        |
| - Komunikazioak                         | -1,7        | 2,6        | 1,3        | 2,4        | 0,9        | -1,1        |
| - Aisia eta kultura                     | -0,2        | -1,0       | 1,9        | -0,4       | -0,2       | -1,0        |
| - Irakaskuntza                          | 2,2         | 0,6        | 1,6        | 1,0        | 1,0        | 1,1         |
| - Hotelak, kafeak eta jatetxeak         | 0,3         | 1,0        | 1,8        | 1,9        | 1,9        | 1,2         |
| - Besteak                               | 1,7         | 1,7        | 0,7        | 0,7        | 1,6        | 0,9         |

Iturria: INE.


Jakina, inflazioa osatzen duten taldeen bilakaera oso baldintzatuta egon zen pandemiaren ondorioengatik. Zehatz-mehatz azalduta, garraio taldeak (-%3,6) eta etxebizitza taldeak (-%3,3) izan ziren inflazioaren jaitsieran ekarpen handiena egin zutenak, erregaien eta elektrizitatearen prezioen beherakadek eraginda, jarduera ekonomikoaren etetearen ondorioz. Era berean, zerbitzuekin lotutako talde batzuek, hala nola aisialdiak eta kulturak (-%1,0), bidaien geldialdia eta hotelen itxiera pairatu zuten. Aitzitik, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldeak (%2,8) goranzko bilakaera erakutsi zuen bere prezioetan, zeren eta kontsumitzaileek oinarritzko elikagai ez-galkorrak pilatuz erantzun baitzioten alarma egoerari. Azken batean, pandemiak kontsumoan egindako gastuaren esleipena aldatu zuen eta nabarmen murriztu zen turismoan, bidaietan, hoteletan eta jatetxeetan egindako gastua; elikagaien eta edarien erosketan, berriz, handitu egin zen.

**KPIaren bilakaera**  
**23. irudia**

Indize orokorra: EAE




Indize orokorra: Eurogunea



Iturria: INE eta Eurostat.

Hala ere, suspertzeko aukerak hobetu izanak, txertaketa prozesuan izandako aurrerapenek eta zerga pizgarri berriek inflazioaren goranzko igurikimenak aurreikusten dituzte, eta horiek handitu egin dira eskaintzaren eta eskariaren artean gertatu diren zenbait desorekaren ondorioz. Espero izatekoa da, pandemiaren aurreko normaltasuna berreskuratzen denean, inflazioak azken urteetan erakutsi dituen balio apaletan kokatuko dela berriro.

**EA Eren eta Eurogunearen arteko inflazio tartea. 2019ko batez besteko balioak**  
**24. irudia**



Iturria: INE eta Eurostat.

**EAEko industriako prezioen indizea**  
**25. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|                         | 2015        | 2016        | 2017       | 2018       | 2019       | 2020        |
|-------------------------|-------------|-------------|------------|------------|------------|-------------|
| <b>Indize orokorra</b>  | <b>-2,6</b> | <b>-2,9</b> | <b>2,8</b> | <b>3,2</b> | <b>1,4</b> | <b>-3,1</b> |
| - Kontsumoko ondasunak  | -0,6        | 0,6         | 1,0        | 2,1        | -0,3       | 1,9         |
| - Kontsumo iraunkorrak  | -0,3        | -0,7        | 2,4        | -0,5       | 1,9        | 0,9         |
| - Kontsumo iragankorrak | -0,7        | 0,8         | 0,7        | 2,5        | -0,7       | 2,1         |
| - Ekipamendu ondasunak  | 0,3         | 0,8         | 2,7        | 1,9        | 1,6        | 0,8         |
| - Bitarteko ondasunak   | -0,8        | -1,9        | 1,9        | 2,6        | 0,0        | -0,5        |
| - Energia               | -11,6       | -10,4       | 6,6        | 7,8        | 5,0        | -15,1       |

Iturria: Eustat.

Industriako prezioak ez ziren salbuespena izan prezioak aztertzen dituzten adierazleek erakutsi zuten beheranzko joera orokor horretan. Hala, IPRIk aldakuntza negatiboa jaso zuen urteko batez bestekoan (-%3,1), 2016az geroztik gertatu ez dena, eta ia osagai guztiek moteltzeko joera izan zuten. Salbuespena kontsumoko ondasunak izan ziren, 2019ko beherakada arina gainditu baitzuten

eta prezioak %1,9 igo baitziren. Aitzitik, gainerako taldeek aurreko urtean baino aldakuntza tasa txikiagoak eskuratu zituzten. Prozesu horretan, energiaren atala nabarmentzen da (-%15,1), petrolioaren prezioak izan zuen beherakadagatik. Era berean, bitarteko ondasunek eta ekipamendurako ondasunek ere apaltzeko joera bera izan zuten, lehengaien prezioen merkatzean oinarrituta.

Azkenik, EAEko negoziazio kolektiboak, nabarmen devaluatu baitzen 2012ko erreformarekin, aurrerapen esanguratsua izan zuen elkarrizketa sozialaren suspertzeari esker. Hala, 2020an, 2009az geroztik hitzarmena indarrean zuten soldatapekoen ehunekorik handiena lortu zuen (%55,4 eta %57,7, hurrenez hurren).

Hala ere, pandemiak negoziazio kolektiboak erritmo onean jarraitzea eragotzi ez bazuen ere, soldata igoerak gutxitzea ekarri zuen, bai indarrean zeuden hitzarmenatarako, bai urtean zehar sinatutakoetarako. Horrela, lau urtez jarraian gero eta igoera handiagoak izan ondoren, 2020an goranzko joera gelditu zen, nahiz eta langileek erosteko ahalmena irabazi zuten, inflazioak aldakuntza tasa negatiboak izan zituelako.

***Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak***  
***26. taula***

|                                     | 2015       | 2016       | 2017       | 2018       | 2019       | 2020       |
|-------------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| <b>Indarrean dauden hitzarmenak</b> | <b>0,6</b> | <b>1,0</b> | <b>1,5</b> | <b>1,9</b> | <b>2,0</b> | <b>1,7</b> |
| - Urtean zehar sinatutakoak         | 0,7        | 1,1        | 1,7        | 2,2        | 2,3        | 1,2        |
| Negoiazio esparruaren arabera:      |            |            |            |            |            |            |
| - Sektoreko hitzarmenak             | 0,6        | 1,0        | 1,5        | 2,0        | 2,1        | 1,7        |
| - Enpresako hitzarmenak             | 0,6        | 1,1        | 1,5        | 1,6        | 1,8        | 1,7        |

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

## 2. PANDEMIARI ERANTZUNA

### 2.1 Politika ekonomikoa, pandemiaren kolpe gogorra arintzeko ezinbestekoa

Covid-19 birusa aurrekaririk gabeko shock ekonomikoa izan da ekonomia guztientzat, eta, beraz, politika ekonomikoko erantzun azkar, sendo eta eraginkorra ezinbestekoa izan da pandemiak familia eta enpresa askori eragin zien eta eragiten jarraitzen duen kolpe gogorra arintzeko eta susperraldi ekonomikoa bultzatzeko. Hala, pandemia hasi zenetik, politika ekonomikoaren arloan erantzukizuna duten agintarien erantzuna oso zabala izan da, bai maila nazionalean, bai nazioz gaindikoan, hala zerga esparruan nola moneta esparruan.

Covid-19aren krisiari erantzuteko erabili ziren pakete fiskalen tamaina oso garrantzitsua izan zen ia herrialde guztietan, eta haien ikuspegia dinamikoa izan zen. Horri esker, neurriak egokitu egin ziren krisia garatu ahala. Hori horrela izanda, hasiera batean, gobernuen erantzunak etxeen diru sarrerak handitzera eta enpresen likidezia areagotzera bideratu ziren, beren jarduerarekin jarraitzen laguntzeko. Hala eta guztiz ere, pandemiaren iraupenaren eta luzapenaren ondorioz, herrialde askok zabaldu egin dituzte hasierako erantzun sortak, baita aldatu ere. Izan ere, egoera nazional desberdinetan oinarrituta, laguntza fiskala aldatu egin da hasierako lehentasun horietatik krisiak gehien eragindako ekoizpen sektoreetan fokalizatutako neurrietara, bai eta familia zaurgarrienen finantza egoera babestera ere. Era berean, zerga politikak gero eta arreta handiagoa jarri du epe luzeko erronka batzuetan, hala nola klima aldaketan eta eraldaketa digitalean.

Garapen bidean dauden herrialdeetan, funtsezkoa izan zen Munduko Bankuaren laguntza. Izan ere, pandemia hasi zenetik, neurri zabalak eta erabakigarriak hartu zituen bide azkarretik ordaintzeko mekanismoak abian jartzeko, herrialdeei krisiari bizkor erantzuten laguntzeko, etxeei eta enpresei laguntzeko, erantzuna finantzatzeko eta susperraldi jasagarri azkar baterako oinarriak ezartzeko.

12.000 milioi dolarreko pakete batekin hasi zen, osasun eta euste politketan inbertitzeko, eta arreta berezia jarri zuen herrialdeei funtsezko ekipo eta hornidura medikoak eskuratzen laguntzean, erosketei eta logistikari lagunduz. Ondoren, pakete hori 160.000 milioi dolarrera arte handitzea erabaki zuen, eta 2021eko ekainaren 30era arte erabiliko dute, pandemiak eragindako behar ugari aurre egiteko. Funts horiek Nazioarteko Sustapen Elkartek (AIF) emandako 50.000 milioi dolar baino gehiago biltzen dituzte, dohaintza eta finantzaketa gisa emanda, baldintza oso kontzesionarioetan. Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), berriz, 250.000 milioi dolar konprometitu zituen krisiari aurre egiteko. Horietatik, erdia baino gehiago, 127.000 milioi, Latinoamerikara bideratu dituzte, eta Brasilek eta Uruguaiak bakarrik ez diote babesik eskatu nazioarteko erakunde horri.

Era berean, ekarpen ekonomikoen gain, 2020ko martxoan, Munduko Bankuak eta NDFk alde biko hartzekodun ofizialei eskatu zieten AIFren bezero diren herrialdeen zorrren ordainketak eteteko, eta, apirilean, G-20ko liderrek akordio historiko bat eman zuten ezagutzera, zeinaren bidez eten egiten baitziren alde biko zorraren zerbitzuaren ordainketak, maiatzaren 1etik, oraingoz, 2021aren erdialdera arte, eta merkataritza hartzekodunei eskatzen zitzaizen antzeko tratamendua eskaintzeko. Hori herrialde pobrenei laguntzeko nazioarteko lankidetzaren adibide adierazgarria izan zen. Hain zuzen ere, pandemiak, 2020an bakarrik, muturreko pobrezia 100 milioi pertsona gehiago eraman zezakeela kalkulatu zen.

Ekonomia garatu nagusien artean, Europako Banku Zentrala (EBZ) izan zen neurriak modu erabakigarrian eta eraginkorrean sustatu zituen lehen erakundea. Zehazki, EBZk, 2020ko martxoaren 18an, baloreak erosteko aldi baterako beste programa bat abiarazi zuen, pandemiari aurre egiteko larrialdiko erosketa programa (PEPP), eta aldi baterako lasaitu zituen berme aktiboei ezarri beharreko irizpideak, kontrapartidako erakundeek Eurosistemako kreditu eragiketetan bete-betean parte hartzen jarraitu ahal izango zutela ziurtatzeko.

Hala ere, aurreikuspen ekonomikoen okertzeak, petrolioaren prezioen beherakada handiak eta kutsatzeen gorakadak agerian utzi zuen pandemiak epe laburrean espero baino inpaktu handiagoa izan zuela ekonomian, eta inflazioaren ahultasuna aurreikusitakoa baino luzeagoa zela. Hori dela eta, EBZk PEPPERa bideratutako zenbatekoa handitzea erabaki zuen. Zehazki, oraingoz, 1,85 bilioi euro bideratu dira, 2022ko martxoaren amaierara arte gutxienez, eta PEPPERen esparruan eskuratutako baloreen artean, 2023aren amaierara arte gutxienez mugaeguneratuz joango liratekeen baloreak berriro inbertitzen jarraitzeko aukera dago.

Era berean, Next Generation EU suspertze plana ere aipatu behar da, Europako Batzordeari Europar Batasunaren izenean 750.000 milioi euro arte zorpetzeko baimena ematen diona. Funts horiek 360.000 milioi euro arteko mailegu itzulgarriak eta 390.000 milioi euroko transferentzia ez-itzulgarriak emateko erabil daitezke. Zenbateko horiek sei urtean zehar ordainduko dira, 2026. urtearen amaierara arte. Mailegu itzulgarriari dagokien zatia 2058ko abenduaren 31 baino lehen itzuli beharko da.

Plan hau aldi baterako berreskuratze tresna bat da, eta, maileguen eta diru laguntzen bidez, pandemiaren eragin ekonomiko eta soziala arindu nahi du eta Europako ekonomiak eta gizarteak jasangarriagoak eta erresilienteagoak izatea nahi du, eta hobeto prestatuta egon daitezen trantsizio ekologiko eta digitalen erronka eta aukeren aurrean. Estatu kide bakoitzak bere berreskuratze eta erresilientzia planak lantzen ditu funtsak eskuratzeko, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren (MRR) esparruan. Espainiaren kasuan (*España puede* du izena planak), Europako Batzordeak argi berdea eman dio hurrengo sei urteetan Gobernuari itzuli beharrik gabeko diru-laguntzetan 69.500 milioi euro eskuratzeko aukera emango dion planari, Next Generation EU programan Espainiari esleitutako 140.000 milioien barruan, erreformak eta inbertsioak finantzatzeko kreditu bigunetan beste 70.000 milioi euro barnean dituen.

Moneta politika, bera bakarrik, ez da nahikoa tamaina honetako krisi handi hau arintzeko, eta, beraz, agintariak zerga politikako neurriak ere hartu dituzte ia ekonomia aurreratu guztietan. Horiek horrela, aurrekontu-neurriak –diru-laguntzak eta enpresentzako eta familientzako zuzeneko transferentziak– eta aurrekontutik kanpoko neurriak konbinatu ziren. Horrelako neurriak hartzea da krisi honen berritasun nagusia, aurretiko beste krisi batzuen aldean, enpresei likidezia emateko berme publikoen programei eman zaizkien pisuaren eta garrantziaren ondorioz.

Europar Batasuneko herrialdeetan, neurri horietako asko hartu ahal izan dira estatu nazionalak enpresei ematen dizkieten laguntzak arautzen dituen lege esparrua lasaitzeko Europako Batzordeak emandako onarpenari esker. Horri esker, salbuespen gisa eta aldi baterako, zailtasunak dituzten enpresei laguntzak banatu ahal izan zaizkie bermeen, interes tasa subsidiatuak dituzten maileguen, birkapitalizazioen, laguntza zuzenen eta zergen ordainketa atzeratzeen bidez. Era berean, behar zuten eremuko herrialdeei ihes klausula aktibatzeke aukera eman zien, aurrekontu arau nazionalak ez betetzeko.

AEBetan, Senatuak suspertzeko hainbat plan onartu zituen, zergadunei zuzeneko ordainketak egitea barnean hartzen zituenak. Lehen plana 2,2 bilioi dolarrekoa izan zen, 2009an, finantza krisiak



eztanda egin ondoren, martxan jarri zena halako hiru, azken hori 700.000 milioi dolarrekoa izan baitzen. Urtearen amaieran, berriz, 900.000 milioi dolarreko bigarren plana onartu zen. 2021eko martxoan, 1,9 bilioi dolarreko hirugarren pizgarri plan bat onartu zen. Izan ere, pandemian galdutako 25 milioi lanpostuetatik 8,5 milioik oraindik lan merkatutik kanpo jarraitzen dute.

Jarraian, eta Espainiako Bankuak egindako ikerketa bat oinarritzat hartuta, mendebaldeko ekonomia nagusietan (Alemania, Frantzia, Italia, Espainia, Erresuma Batua eta AEB) hartutako neurri behinenak aztertuko dira. Horietan heterogeneotasun handia ikusten da iragarritako paketeen kopuruari dagokionez, baina ez hainbeste hartutako neurri motei dagokienez. Zehatzago adierazita, pandemiaren eztrandarekin, ekonomia guztiek neurri sorta zabala onartu zuten osasun sistemari laguntzeko, ospitale sistema indartzeko eta gobernu bakoitzaren baliabideak handitzeko, osasun eta babes materialaren erosketak masiboak eginez, ahulenen zerbitzuen estaldura bermatuz eta ikerketarako funts berriak sortuz.

Aldi berean, enpresentzako eta autonomoentzako euskarri neurriak lantzen hasi ziren, batez ere negozioen likidezia laguntzera bideratu zirenak. Aurrekontu mekanismoen artean, erreferentziatzko sei herrialdeetan zerga aitortpenak eta likidazioak aldi baterako atzeratu ziren, nahiz eta iraupena nabarmen aldatzen den herrialde batetik bestera. Orobat, Alemaniak, Frantziak, Italiak eta Erresuma Batuak enpresa txiki eta ertainei edo pandemiak bereziki kaltetutako sektoreei zerga salbuespenak edo murrizketak ematea erabaki zuten, bai eta zuzeneko ordainketetan edo itzuli beharrik gabeko diru laguntzetan gauzatutako laguntzak ematea ere. Espainian estalduraren alde egin zen horniduren, alokairuen eta hipoteken ordainketa geroratzeko.

Bestalde, aurrekontuz kanpoko laguntzak ere orokortu ziren, berme publikoko programen bidez eta, neurri txikiagoan, zuzeneko finantzaketaren bidez. Kasu honetan, euroguneko ekonomia handiek estatuko berme programak erabili zituzten banku sistemak emandako maileguetarako, sustapen eta garapen banku publiko nazionalak kudeatutakoak, eta AEBetan eta Erresuma Batuan, berriz, banku zentralak operatutako inbertsio ibilgailuak sortu ziren. Azkenik, Alemanian, Italian eta Espainian, enpresa handiei laguntzeko eskema espezifikoak aktibatu ziren; gainerako herrialdeetan, berriz, sektore estrategikoei, hala nola automobilgintzari eta aeronautikari, laguntzeko neurri zehatzak hartu ziren.

Enplegua babesteko neurriei dagokienez, Frantzia, Italia eta Espainiako kasuetan, neurri horiek, funtsean, langabezia partzialeko eta aldi baterako langabeziako sistemak indartzearen bidez gauzatu ziren, eta Alemaniaren kasuan, lan egindako orduak murrizteko mekanismoen bidez.

Enplegua aldi baterako eteteko programak hainbat berezitasunekin hartu dira hainbat herrialde garatutan, hala nola aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak (ABEE) Espainian, Kurzarbeitergeld sistema Alemanian eta Austrian, chômage partiel delakoa Frantzian eta NOW-3 izeneko Herbehereetan. AEBetan eta Erresuma Batuan, bestalde, maileguen, diru laguntzen edo kenkari fiskalen bidez jardutea erabaki zuten, konfinamendu garaietan funtsezkoak ez ziren jarduerak eten bitartean plantillak mantentzea erabakitzen zuten enpresentzat.

Neurri horiekin, diru kutxa publikoek beren gain hartzen dituzte hala eskatzen duten enpresetako langileen soldaten zatirik handienak. Hain zuzen ere, soldatapeko horiek, pandemiak eragiten dien bitartean, aldi baterako edo partzialki etenda ikusten dute beren lanpostua, eta konpainiek soldata kostuak saihestu ahal izatea bultzatzen dute, kaleratzerik gabe diru sarrerak sortzeko aukerarik ez duten bitartean. Izan ere, kalkuluen arabera, pandemiaren lehen hilabeteetan, politika horiek ahalbidetu zuten Europako enpleguaren beherakada geldiaraztea. Hala, maiatzaren hasieran, 40 milioi langile inguru zeuden enplegua eteteko programa horien barruan, Europako sei ekonomia handienetan. Hilabeteek aurrera egin ahala, herrialde gehienek luzatu egin dute programa horien iraupena, koronabirusaren agerpen berriak eta kutsatzeak geldiarazteko murrizketak direla eta. Zehazki, Espainian, Gobernuak maiatzean ABEEak 2021eko irailaren 30era arte luzatu zituen, hau da, bosgarren aldiz luzatu zituen, hilabete horretan eta erregimen horretan jarraitzen zuten ia 600.000 langileen babesa mantentzeko.

Bloomberg enpresaren ikerketa baten arabera, uneren batean lana etenda geratu ziren langile guztiak azkenean langabezia geratu izan balira, Alemaniako, Frantziako eta Italiako langabezia tasa %42,0ra iritsi zitekeen, eta Espainiaren kasuan, berriz, %53,1era. Hala eta guztiz ere, ABEEen ezarpena eraginkorra izan da eta langabezia tasak asko ez igotzea lortu du. Hain zuzen ere, euroguneko langabezia tasa %8,2 izan zen 2020an, 2019ko erregistrotik 1,1 puntu gora soilik, eta 2020an, 2019ko datuekin alderatuta, 1,8 milioi langabe gehiago egotea ekarri zuen. Horietatik, %32,3 Italiako langabetuak dira eta %23,1 Espainiakoak.

Azkenik, familia ahulenei laguntzeko, gobernuek neurri ugari hartu zituzten. Hedatuenean artean, hipotekak, maileguak eta alokairuak ordaintzeko atzerapenak (Espainian, Italian eta Erresuma Batuan), familia bateratzeko eta seme-alabak zaintzeko laguntza (Italian eta Frantzian) edo oinarritzko errenten sistemak indartzea eta Espainian, Italian, Alemanian, Frantzian eta AEBetan elikagaiak erosteko ezarri ziren laguntzak nabarmendu zituzten.

**Zerga politikaren erantzuna. Aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko neurriak**  
**27 taula**

| Herrialdea     | Enpresentzako zergen atzerapena eta etendura  | Gizarte kostuetarako diru laguntzak eta enpresentzako laguntza  | Enpresentzako laguntza (abalak, kredituak,...)   | Familientzako laguntza   | Beste gastu neurri batzuk   |
|----------------|---|---|--|--|---|
| Espainia       | Enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen zerga zorren 6 hilabeteko atzerapenak, gehienez 30.000 €.<br>Autonomoentzako errenta zergaren ordainketa doitzea  | ABEEen malgutzera, langabezia prestazioa zabaltea, urte sasoiako lanak egiten dituzten langabeen babes handiagoa  | Abalak eta berme publikoak (KOI): 100 (+40) mm€ enpresa ez-finantzarioentzako maileguetarako, 2 mm€ gehiago esportatzaile entzako.<br>Enpresa estrategikoen kaudimena handitzeko funtsa. | Ohiko etxebizitzaren gaineko hipotekak eta alokairua ordaintzeko luzamendua errenta baxuko langile eta autonomoentzat.<br>Autonomoentzako eta etxeko langileentzako prestazioak, jarduera uzteagatik                                       |   |
| Italia         | Enpresen eta autonomoen zergak irailera arte atzeratzea<br>Autonomoen eta enpresen ekoizpen jardueren gaineko eskualdeko zergaren uztailako ordainketa ezeztatzea.<br>Ekaineko udal zergak hotelei kitzatzea.   | Eragindako enpresen langabezia laguntzak, estali gabeko sektoreetara hedatzea, Gizarte Segurantzaren kontribuzioa etetea, kaleratzeak eta langile irregularraren erregulazioa.  | Maileguen luzamendurako abalak; ETEentzako berme funtsa indartzea eta abal publikoen programa 450 mm€-ra arte.   | Hipotekaren luzamendurako abalak, osasun zaintzagariko abalak, autonomoentzako 600 euroko sorospena, errenta baxuko lana, etxe ahuletarako larrialdi errenta, kontziliazioa, elikagaien laguntza.  |   |
| Alemania       | Enpresei zerga aldi baterako geroratzea eta inbertsioa laguntzeko zerga neurriak.<br>Jatetxe arloko enpresei BEZa murriztea urtebetez.  | <i>Kurzarbeit</i> erlaxatzea eta malgutzera eta prestazioak handitzea.<br>MikroETEei eta autonomoei diru laguntzak eta zuzeneko ordainketak emateko prog. Langabeziaren luzapena 3 hilabetez (2 urtera arte 50 urtetik gorakoentzat).<br>Gizarte Segurantzari laguntzeko %40ko muga | Abal publikoen programa 820 mm€.<br>Enpresa handien erreskate funtsa 400 mm€ bermetan.<br>Sektore aeronautikoari laguntzea   | Oinarriko errentaren programa indartzea.<br>Hornidurarik ordaindu ezin duten familien babes handiagoa.<br>Diru sarrera txikiko familientzako laguntza.<br>BEZaren aldi baterako murrizketa<br>Ordainketa bakarra seme-alabentzat (300 €)   | Inbertsio plana 12 mm€ 4 urterako<br>55 mm€-ko erreserba behar gehigarrieta rako. |
| Frantzia       | Enpresen zerga aldi baterako geroratzea<br>Kreditu fiskalen itzulketa bizkortu da   | Langabezia partzialaren sistema indartzea.<br>Gizarte aseguruaren, alokairuen eta horniduren ordainketa geroratzea<br>Mikroenpresen eta autonomoen Elkartasun Funtsa sortzea  | Edozein tamainatako enpresentzako berme publikoen programa<br>Enpresa estrategikoentzako laguntza  | Seme-alabak zaintzeko ordainketa.<br>Familia ahulentzako gizarte laguntzak areagotzea.   |   |
| Erresuma Batua | Merkataritzakoa ez den OHZ murriztea, BEZ ordaintzeko atzerapena eta autonomoentzako errenta zerga.<br>Argitalpen elektronikoetarako BEZ murrizketaren aurrerapena.   | Soldataren %80 eta kontribuzioak ord. langile ezinduek dituzten enpresei, eta gaixotasunagatikoko bajak itzultzea enpresa txiki eta ertainei.<br>Enpresa txiki eta ertainentzako sorospena eta autonomoei irabaziaren % 80 ord. 3 hilabetetan.                                      | Abal publikoak eta enpresentzako kreditua eskuratzea   | Errenta laguntzak eta alokairu laguntzak hobetzea.<br>Behartsuenentzako sorospenak handitzea   | Aurrekont. beste partida batzuk handitzea   |
| AEB            | Errenta eta Giz. Seg.-ko kotiz. zenbatekoa geroratzea.<br>Errent. g/ kenkariak handitzea, bai eta ezintasunak eta galerak ordaintzeagatikoko kenkariak ere Enplegua mantentzeagatikoko kenkaria (ord. soldaten % 50, gehienez 10.000\$ langile bakoitzeko).<br>Abiazio zerga aldi baterako etetea | Berrogeialdian dauden langileen lan baja ordaindua; ETEen desgrabazioak laneko bajengatik.<br>Langabeziagatikoko zuzkidura 600\$ asteen handitu da, eta iraupena 13 aste gehiagoz luzatu da.  | Interesik eta bermerik gabeko ETEentzako maileguak, diru laguntza bihur daitezkeenak.<br>Maileguak enpresa ez finantzarioei, hala nola airelineei eta konpainia estrategikoei            | Ikasleentzako mailegu federalen interesak ordaintzea salbuestea.<br>Janari bonuak.<br>Norbanakoei eskudirutan egindako ordainketak (1.200\$) eta 500\$ ardurapeko seme-alaba bakoitzeko, errentaren arabarako murrizketa progresiboarekin. |   |

Iturria: Espainiako Bankuak osatua, iturri nazionalatik.

Susperraldia sendotu ahala, politika horietako batzuen ikuspegia ere birbideratzen ari da eta garrantzi handiagoa ematen ari zaie epe ertain eta luzeko gaiei. Behin susperraldia bideratuta dagoenean, gobernuek krisiaren kudeaketa aldatu beharko dute, erreforma fiskal estrukturalagoak ezartzeko, baina erabakiak behar den unean baino lehen hartu gabe, horrek susperraldi hori arriskuan jar baitezake.

Nolanahi dela ere, nabarmendu behar da bai neurri fiskal diskrezionalek bai egonkortzaile automatikoez eragin handia izango dutela defizit publikoan, eta, beraz, osasun krisiak ondorio garrantzitsuak izango dituela, zalantzarik gabe, herrialde aurreratuetako zor publikoaren etorkizuneko bilakaeran.

## **2.2 Euskal sektore publikoaren erantzuna**

Eusko Jaurlaritzak aurrekontuen oreka eta zorraren %12 inguruko bolumena lortzeko helburuarekin prestatu zituen 2020ko aurrekontuak. 2020ko aurrekontu horiek jarraipena ematen zioten aurreko urteetako kontsolidazio fiskaleko prozesuari. Atzeraldi Handiaren (2008) hasierarekin batera, bederatziz urtez jarraian saldo negatiboak jaso zituen aldi bati hasiera eman zitzaion, 2017an amaitu zena. Izan ere, Urte horretatik aurrera, aurrekontuetan superabitak lortu ziren. Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren zorraren bolumena %2tik beherako zifra izatetik (2008ko krisiaren aurretik) %14,8ra iritsi zen 2016an. Hurrengo urteetan, kontu publikoek hobera egin zuten eta zorraren bolumenak behera egin zuen. 2019an, %12,7koa izan zen, eta Euskadi da Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legean<sup>2</sup> aurreikusitako %13ko atalasearen azpitik zegoen autonomia erkidego bakarra.

Hala eta guztiz ere, pandemiaren agerpenak guztiz aldatu zuen aurreikusitako eszenategia. Jardueraren bat-bateko beherakadak eta, ondorioz, zerga sarreraren jaitsierak, bai eta pandemiaren ondorio sanitario, sozial eta ekonomikoak arintzeko gastu publikoaren igoerak ere, berehalako finantza desorekak eragin zituzten. Politika publikoen lehentasun nagusia, erakunde maila guztietan, pandemiari modu eraginkorrean aurre egitea eta haren ondorio ekonomiko eta sozialak arintzea izan zen.

---

<sup>2</sup> Espainiako Bankua. Gehiegizko defizitaren protokoloaren arabeko zorra.

2019an zerga bidezko diru sarrerek inoizko zenbakirik gorenak lortu ondoren, 2020an izandako murrizketa oso handia izan zen, ekonomiaren jarduera eten egin zelako eta koronabirusak kontsumoa murriztu zuelako. Era berean, zerga alorrean neurri batzuk onartu ziren, hala nola zergen ordainketa atzeratzea eta itzulketak aurreratzea, enpresen kaudimenari laguntzeko neurri gisa, eta horiek ere diru bilketa murriztea eragin zuten. Zehatz-mehatz adierazita, ekitaldia ixtean, foru aldundien zerga itunduen diru bilketa 13.949 milioi eurokoa izan zen, hau da, urte batetik bestera %9,8 murriztu zen, eta aurrekontuak egitean egindako bilketa aurreikuspena baino 1.800 milioi gutxiago bildu ziren.

Pandemia deklaratu ondoren, egoera ekonomikoari eta horrek eramaten zuen aurrekontu eszenategiari buruzko ziurgabetasunak hainbat zenbatespen egitera eraman zuen, pandemiak zergen bidezko diru bilketan izango zuen eragina jakiteko. Aurreikuspen horiek gehiegizko eragina kalkulatu zuten. Izan ere, hasierako estimazioak 2009koaren antzeko eragina (%15) kalkulatu zuen, eta hurrengoak %18 eta %23 artekoak izan ziren. Hala ere, benetako diru bilketak uste baino hobeto erantzun zuen, eta urrian egindako aurreikuspena (% 13,3ko jaitiera) 500 milioi euro baino gehiago hobetu zuen.

Krisi honetan, Atzeraldi Handian ez bezala, diru bilketa jardueraren beherakadarekin batera gertatu da, eta ez da gehiegizko erreakziorik gertatu, 2009an gertatu zen bezala. Urte hartan, krisi ekonomikoak zerga bilketaren beherakada handia eragin zuen, eta BPGaren hiru puntu baino gehiago murriztu baitzen 2008 eta 2009 artean, jarduera ekonomikoak okerrera egin zuelako (BPGa %4,1 jaitzi zen 2009an) eta higiezinaren eta finantza merkatuen gorakadaren ondorioz lortu ziren sarrera batzuk desagertu zirelako, baita ere familiei eta enpresei likidezia emateko neurri fiskal batzuk onartu zirelako.

Diru sarreren beherakada, 2020an, zeharkako zergek eragin zuten nagusiki, zerga horien diru bilketa %13,4 murriztu baitzen. Aitzitik, zuzeneko zergen diru bilketak erakutsi zuen erresistentzia nabarmendu behar da, soilik %4,1 gutxitu baitzen. Partida horien portaerari mesede egin zion pandemiari aurre egiteko hartu ziren neurri batzuek diru sarrera horiek zehazten dituzten oinarrietan izan zuten eragin positiboak, bereziki gizarte prestazioen igoerak eta administrazio publikoek ABEEko langileen eta jarduera utzi zuten autonomoen gizarte kotizazioen ordainketa beren gain hartzeak.

Hala, PFEZa %1,1 bakarrik murriztu zen, eta lan errendimenduaren atxikipenak nabarmendu behar dira, urte arteko %0,1eko igoerarekin, sektore publikoko soldata masaren eta pentsioen bilakaera

positiboak bultzatuta. Hala ere, enpleguaren suntsipenak eta ABEEen ugaritzeak ia erabat indargabetu zuten haren eragina. Aitzitik, bai kapital higigarriaren etekinengatik atxikipenak bai kapital higiezinarenak negatiboak izan ziren. Lehenengoetan, bilakaera horren arrazoia dibidenduaren banaketa sozietate askotan etetea izan zen, eta bigarrenetan, berriz, higiezinaren sektoreko alokairuen merkatuan izandako jarduera eskasa.

Zuzeneko zergapetzearen barruan ere, sozietateen gaineko zergaren bilketa %20 jaitsi zen. Zerga horren bilketan pisu handiena duen osagaia kuota diferentziala da. Kuota horrek oso balio txikiak erakutsi zituen (-%24,9), PFEZak ez bezala; izan ere, koronabirusaren krisiaren eragina arintzeko, zenbait zergadunentzako epeak luzatzea erabaki zen, eta, orobat, kasu batzuetan ordainketa zatikatutik salbuetsi ziren.

Zeharkako zergei dagokionez, haien bilakaera oso negatiboa izan zen, diru bilketa osoarena baino are emaitza okerragoa jasota (-%13,4 eta -%9,8, hurrenez hurren). Hala, familien kontsumoaren beherakadak eta konfinamenduek eraginda, BEZak bere gutxieneko kota maitatzean eskuratu zuen, pandemiaren lehen olatuaren unerik gogorrean, hain zuzen ere. Hortik aurrera, jaitsiera erritmoa moteltzen joan zen pausoz pauso, eta urtea diru bilketaren %14,3ko beherakada batekin amaitu zen.

Azkenik, zerga berezietako figura nagusi guztiek 2019an erregistratutakoak baino kopuru txikiagoak eskuratu zituzten. Horiek horrela, hidrokarburoen diru bilketa %12,6 murriztu zen, mugikortasunaren mugek oso baldintzatuta. Beste aldetik, iazko lehen seihilekoan, tabakoaren laboreen gaineko zergak aldakuntza tasa positiboak izan zituen, urteko une batzuetan urritasuna aurreikusten zen akaparamenduei lotuta, gero zuzentzeko eta urtea balio negatiboetan amaitzeko (-%6,0). Alkohola zergapetzen duen zergari dagokionez, diru bilketaren pisua oso txikia izanik, diru bilketaren beherakada ere erakutsi zuen (-%42,8), ostalaritzaren aldi baterako itxierari eta edukieren mugei lotuta. Azkenik, elektrizitatearen gaineko zerga ere ez zen salbuespena izan, eta hidrokarburoen beherakaden oso antzekoak izan zituen (-%12,2), energiaren eskariaren beherakadaren ondorioz.

**Zerga itunduen bilakaera****28. taula**


Mila euro

|  | Diru-bilketa      |             | Urte arteko aldakuntza (%) |              |             |             |              |
|--|-------------------|-------------|----------------------------|--------------|-------------|-------------|--------------|
|  | 2020              | 2015        | 2016                       | 2017         | 2018        | 2019        | 2020         |
| <b>PFEZ</b>  | 5.650.225         | 5,9         | 4,1                        | 6,0          | 5,4         | 5,7         | -1,1         |
| - Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikip.            | 5.316.815         | 1,6         | 2,8                        | 3,7          | 4,7         | 6,4         | 0,1          |
| - Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak             | 135.357           | -11,0       | -13,8                      | 10,7         | 8,4         | -21,8       | -4,2         |
| - Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak              | 76.526            | -1,8        | -2,9                       | 1,9          | 1,1         | 1,8         | -8,2         |
| - Ondare irabazien atxikipenak                           | 49.658            | 59,7        | -44,5                      | 52,0         | 14,6        | -22,6       | 25,1         |
| - Esp. zergak hainbat loteria sarien gain                | 7.422             | 25,5        | -63,8                      | 57,5         | 80,3        | 30,7        | -87,0        |
| - Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak            | 111.120           | 3,8         | 2,3                        | 6,7          | 6,4         | 4,8         | -37,2        |
| - Kuota diferentzial garbia                              | -46.673           | 35,1        | 43,9                       | 38,9         | 0,7         | 13,9        | 50,8         |
| <b>Sozietateen gaineko zerga</b>                         | 1.042.548         | -10,4       | -3,5                       | 10,9         | 32,8        | -11,7       | -20,0        |
| - Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak             | 135.357           | -11,0       | -13,8                      | 10,7         | 8,4         | -21,8       | -4,2         |
| - Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak              | 76.526            | -1,8        | -2,9                       | 1,9          | 1,1         | 1,8         | -8,2         |
| - Ondare irabazien atxikipenak                           | 49.658            | 59,7        | -44,5                      | 52,0         | 14,6        | -22,6       | 25,1         |
| - Kuota diferentzial garbia                              | 781.008           | -13,8       | 1,9                        | 10,2         | 41,9        | -10,5       | -24,9        |
| <b>Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga</b>           | 50.788            | -669,3      | 95,6                       | -            | -2,4        | 59,8        | -2,0         |
| <b>Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga</b>           | 122.169           | 1,2         | -2,4                       | 6,2          | 12,0        | -7,4        | -0,1         |
| <b>Ondarearen gaineko zerga</b>                          | 177.197           | -0,9        | 6,8                        | 1,2          | 13,3        | -9,3        | 5,7          |
| <b>Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.</b>     | 27.629            | 98,6        | -0,4                       | 2,1          | -1,0        | -1,6        | 14,3         |
| <b>Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga</b>  | 29.756            | 32,2        | -13,9                      | 2,2          | 6,1         | -32,0       | 25,6         |
| <b>ZUZENKO ZERGAK GUZTIRA</b>                            | <b>7.100.312</b>  | <b>1,6</b>  | <b>3,5</b>                 | <b>7,2</b>   | <b>10,2</b> | <b>1,6</b>  | <b>-4,1</b>  |
| <b>BEZaren bertoko kudeaketa</b>                         | 3.534.767         | 2,5         | 0,9                        | 2,3          | 7,9         | 1,7         | -14,4        |
| <b>Ondare eskualdatzeen gaineko zerga</b>                | 140.473           | 12,7        | 19,3                       | 19,0         | 10,8        | 1,7         | -13,7        |
| <b>Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga</b>      | 35.831            | 19,3        | -10,2                      | -0,9         | 20,9        | 1,1         | -24,6        |
| <b>Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak</b> | 16.063            | 10,8        | 8,6                        | 21,1         | 20,0        | 7,9         | -42,9        |
| <b>Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa</b>   | 1.685.897         | 0,9         | 4,6                        | 1,7          | 2,0         | 10,5        | -11,5        |
| <b>Aseguru sarien gaineko zerga</b>                      | 79.761            | 3,2         | 2,4                        | 2,0          | 4,6         | -0,3        | 1,1          |
| <b>Joko jardueren gaineko zergak</b>                     | 6.852             | -46,6       | 20,6                       | 20,5         | 11,0        | -5,9        | 10,0         |
| <b>Berotegi efektuko gasen gaineko zergak</b>            | 2.829             | 266,7       | -16,3                      | 65,2         | -7,6        | -20,8       | -7,1         |
| <b>Iraungitako zergak</b>                                | -104              | -3.891,3    | 15,0                       | 20,6         | -23,5       | 70,2        | 96,3         |
| <b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>                          | <b>5.502.379</b>  | <b>2,1</b>  | <b>2,3</b>                 | <b>2,9</b>   | <b>6,3</b>  | <b>4,3</b>  | <b>-13,4</b> |
| <b>TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA</b>                 | <b>76.453</b>     | <b>10,9</b> | <b>4,7</b>                 | <b>-11,5</b> | <b>11,0</b> | <b>-7,5</b> | <b>-30,3</b> |
| <b>BERTON KUDEATUTAKO Z/ ITUNDUAK</b>                    | <b>12.679.144</b> | <b>1,9</b>  | <b>3,0</b>                 | <b>5,0</b>   | <b>8,4</b>  | <b>2,7</b>  | <b>-8,6</b>  |
| <b>BEZaren doikuntza</b>                                 | 1.628.998         | 5,1         | 3,0                        | 70,0         | -21,9       | 6,9         | -14,2        |
| <b>Zerga berezian doikuntza</b>                          | -358.892          | 5,2         | -19,9                      | -4,1         | -17,2       | -0,5        | -18,2        |
| <b>ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA</b>                         | <b>13.949.250</b> | <b>2,4</b>  | <b>2,7</b>                 | <b>11,8</b>  | <b>3,5</b>  | <b>3,3</b>  | <b>-9,8</b>  |

Iturria: Foru aldundiak.

BPG nominala eta zergen bidezko diru bilketa 2020an oso antzeko ehunekoetan murriztu zirela kontuan hartuta (-%9,8 eta -%9,6, hurrenez hurren), zerga itunduen presio fiskala ia ez zen aldatu (BPGaren %19,4 izan zen 2020an). Ikusi den bezala, portaera hobea izan zuen zuzeneko zergapetzetik PFEZa nabarmendu behar da, bere pisua BPGaren %7,9ra igo baitzen, aurreko urteko erregistroa baino zazpi hamarren gehiago direlarik. Hala eta guztiz ere, zuzeneko zergen beste osagai nagusiak, hau da, sozietateen gaineko zergak, beheranzko joerarekin jarraitu zuen (BPGaren %1,5 izatera jaitsi zen), eta BEZak portaera negatiboena erakutsi zuen, bere pisua lau hamarren jaitsi baitzen (BPGaren %7,2); beraz, PFEZaren azpitik geratu zen nabarmen, eta ez zen halakorik gertatu 2012tik.

**Zerga nagusien bilketa 2005-2020. BPGaren %**  
**25. irudia**



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta foru aldundien datuekin.

Zerga itunduak %10 inguru gutxitu ziren arren, Eusko Jaurlaritzaren diru sarrera arruntak %5,4 baino ez ziren murriztu, Estatuak sortutako Covid-19 Funtsetik jasotako diru sarreraren ondorioz. Funts hori 16.000 milioi euroko ezohiko kredituaz hornitu zen, eta ezohiko aurrekontu funts gisa eratu zen. Funts hori ez zen itzuli behar, eta haren helburua zen finantzaketa handiagoa ematea autonomia erkidegoei transferentzien bidez, Covid-19ak eragindako krisiaren ondoriozko aurrekontuko



eraginari aurre egiteko. Hori gertatzen da autonomia erkidegoek garrantzi handia dutelako oinarritzko zerbitzu publikoak emateko orduan, hala nola hezkuntza, gizarte zerbitzuak eta, bereziki, osasuna, pandemiak eragindako laguntza eskaera nabarmen areagotu baitzen. Covid Funtsa lau tarte osatzen dute: bi osasun arlokoak (6.000 eta 3.000 milioi euro) dira, hezkuntza alorreko tarte bat dago (2.000 milioi euro) eta laugarren tarte (5.000 milioi euro) araubide komuneko erkidegoentzat da, pandemiak<sup>3</sup> eragindako jarduera ekonomiko txikiagoaren ondoriozko diru sarrera autonomikoen murrizketa konpentsatzeko. Lehen hiru tarteetatik, Euskadiri 585,6 milioi euro egokitu zaizkio.

2021eko martxoan, 11.000 milioi euroko beste laguntza sorta bat onartu zuen Estatuak, krisiak gehien zigortutako enpresen bideragarritasuna eta finantza kaudimena indartzeko. Autonomoentzako eta ETEentzako zuzeneko laguntzen lerroa, 7.000 milioi eurokoa, autonomia erkidegoei transferitzen zaie, pandemiak gehien kaltetu dituen sektoreetako autonomoei eta enpresei zuzeneko laguntzak eman diezazkieten, baldin eta 2019arekin alderatuta beren sarrerak %30 baino gehiago jaitsi badira. Banaketa horretatik, 218 milioi euro egokitu zaizkio Euskadiri.

Estatu mailan beste neurri batzuk ere onartu ziren, eta horien artean nabarmentzen dira aurrekontuz kanpoko neurriak, abal publikoen eta zuzeneko finantzaketaren programen bidez. Zehazki, Espainiako programak ezarri zuen Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioak gehienez 100.000 milioi euroko (BPGaren %8) abalak emango dituela kreditu erakundeek, kredituko finantza establezimenduek, diru elektronikoko erakundeek eta ordainketa erakundeek emandako finantzaketarako. Kreditu Ofizialeko Institutuak (KOI) kudeatzen du programa hori eta enpresei eta autonomoei zuzenduta dago, besteak beste, fakturen kudeaketak, zirkulatzaileak, finantza edo zerga betebeharren epemugek edo bestelako likidezia premiek eragindako beharrei erantzuteko. ETEen eta autonomoen kasuan, abala eragiketaren %80ra igotzen da gehienez; gainerako enpresen kasuan, berriz, abalak eragiketa berrien %70 eta berritze eragiketen %60 estaliko ditu gehienez.

---

<sup>3</sup> Covid Funtsak lau zati ditu. Lehenengoa, 6.000 milioi euroko zuzkidurarekin, honako hauen arabera banatu da: ZIU dauden gaixoak (%30), ospitaleratutako pazienteak (% 25), egindako PCR guztiak (%10) eta biztanleria babestua (% 35), birusak 2020ko apirilaren 30ean izandako eraginari buruzko datuen arabera. Hezkuntza tarte, 2.000 milioi eurokoa, 0 eta 16 urte bitarteko populazioaren (%80) eta 17-24 urte bitarteko populazioaren (%20) arabera banatu zen, 2019ko urtarrilaren 1eko eroldako datuen arabera. Bigarren osasun tarte, 3.000 milioi eurokoa, honako hauen arabera banatu zen: ZIU dauden gaixoak (%25), ospitaleratutako pazienteak (%20), egindako PCR guztiak (%10) eta biztanleria babestua (%45), birusak 2020ko urriaren 31n izandako eraginari buruzko datuak jarraituz. Azkenik, laugarren zatia, 5.000 milioi eurokoa, araubide komuneko autonomia erkidegoen artean banatu zen, jarduera ekonomikoa murrizteagatik izandako diru sarrera txikiagoak konpentsatzeko, zerga irizpideei, biztanleriari eta garraio publikoaren arloko aurrekontu-inpaktuari jarraikiz.

**Eusko Jaurlaritzaren gastua koronabirusaren krisiari erantzuteko. Partida nagusiak (I).**  
**2020. urtea**  
**29. taula**

Miloi euro

|   |          |
|---|----------|
| Osasun sistema indartzea  | 397,2    |
| Langileen indartze gehigarriko gastuak                                      | 139,6    |
| Osasun materialaren hornidura   | 137,4    |
| Kanpoko beste hornidura eta zerbitzu batzuk                                 | 46,6     |
| Ospitaletako egonaldien kostua  | 44,8     |
| Inbertsioak   | 28,8     |
| Enpresentzako eta autonomoentzako neurriak                                  | 219,1    |
| Gizarte ekonomiako enpresentzako laguntzak                                  | 1,1 (*)  |
| Nekazaritza, elikagai eta arrantza sektoreetarako laguntzak                 | 1,1      |
| Arrantza jardueraren lehiakortasunari eusteko laguntzak                     | 3,0      |
| Bideratu laguntza itzulgarriak  | 21,8     |
| I+G proiektuak finantzatzeko zuzeneko diru laguntza                         | 1,2      |
| Nekafin programa - Bermeak  | 2,0      |
| ETEen finantzaketa kostua murrizteko finantza erakundeentzako diru laguntza | 37,1 (*) |
| Elkargiren hornidura teknikoen funtsa indartzea                             | 51,3 (*) |
| Bizkaiko Garraio Partzuergoaren ezohiko finantzaketa                        | 6,0      |
| Euskal merkataritza sektorerako laguntzak                                   | 13,9 (*) |
| Euskal turismo sektorerako laguntzak  | 13,9     |
| Ostalaritzako laguntzak   | 30,5 (*) |
| Turismo Bona  | 2,0      |
| Merkataritza Bona   | 3,7      |
| Laneratzeko enpresentzako eta enplegu zentro berezientzako laguntzak        | 1,7      |
| Norberaren konturako langileentzako edo autonomoentzako laguntzak           | 16,0     |
| SPRI laguntza programak - Ekonomia suspertzea                               | 4,7 (*)  |
| PAVEA programa - Ekonomia suspertzea  | 5,0      |
| Bestelako laguntzak   | 3,1      |
| Pertsonen eta familiei zuzendutako neurriak                                 | 41,9     |
| Gizarte larrialdietarako laguntzak  | 16,0     |
| Etxebizitza librea alokatzeko laguntzak                                     | 3,3      |
| Alokairua eta komunitate gastuak ordaintzetik salbuestea                    | 1,4      |
| Bazterkeriaren eremuko funtsaren laguntzak                                  | 8,4      |
| ABEEak dituzten langileentzako laguntzak                                    | 8,7 (*)  |
| Covid-19 bidezko Ekintza Humanitarioko Linea Etengabeko Hedapena            | 1,8      |
| Bestelako laguntzak   | 2,2 (*)  |

(\*) Hurrengo ekitaldietarako gastu konpromisoak barne hartzen ditu.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

**Eusko Jaurlaritzaren gastua koronabirusaren krisiari erantzuteko. Partida nagusiak (II).****2020. urtea****30. taula**

Milioi euro

|  |          |
|--|----------|
| Hezkuntza sektorera bideratutako neurriak                            | 126,9    |
| Hezkuntzako itunpeko ikastetxeetako Covid laguntzak                  | 36,7 (*) |
| Haurreskolak finantzaketa  | 2,5      |
| Unibertsitateak digitalizatzeko Covid funtsa                         | 3,9      |
| Ikerbasque Ikerketa laguntza   | 0,5      |
| Udaletarako laguntzak - Hezkuntzako ikastetxeetako garbiketa gastuak | 2,6 (*)  |
| Ikastetxe publikoetako ordezeko irakasleak                           | 59,9 (*) |
| Unibertsitate ikasketetarako bekak 2020-2021 ikasturtea              | 4,0      |
| Unibertsitateaz kanpoko ikasketetarako bekak, 2020-2021 ikasturtea   | 4,0      |
| Jantokietako eta eskola garraioko enpresen kalteordaina              | 12,7     |
| Kulturaren sektorera bideratutako neurriak                           | 3,0      |
| Guggenheim Fundazioaren laguntza                                     | 1,0      |
| Kulturaren sektorerako laguntzak: mikroenpresak, arte biziak, etab.  | 1,5      |
| Bestelako laguntzak  | 0,6      |
| Hornidura, zerbitzu eta inbertsio gastuak                            | 63,4 (*) |

(\*) Hurrengo ekitaldietarako gastu konpromisoak barne hartzen ditu.


Iturria: Eusko Jaurlaritza. Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

Eusko Jaurlaritzaren erantzuna pandemiari modu eraginkorrean aurre egiten eta ondorio ekonomiko eta sozialak arintzen ere saiatu zen. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak aurrekontu partidak berresleitu zituen, eta Covid-19ren osasun krisiaren eraginari aurre egiteko neurri antizikliko ugari onartu zituen: EAEko osasun sistema indartzea, titulartasun publiko eta itunduko ikastetxeei ezohiko funtsak ematea, unibertsitate sistema digitalizatzea, gizarte larrialdietarako laguntzak areagotzea, familia biziata bateratzeko laguntzak, EEE edo ABEE baten eraginpean dauden langileen langabezia prestazioen osagarria (hilean 150 euroko laguntzak, urtean 20.000 euro baino gutxiagoko diru sarrerak dituzten pertsonentzako enplegu erregulazioko espedienteen osagarri gisa), enpresak likideziaz hornitzeko laguntzak, likidezia beharren finantzaketa errazteko abal publikoak, eta abar.

Laguntza diskrezionalekin batera, egonkortzaile automatikoak ere aktibatu ziren, hala nola DSBE. 2020an, 851 milioi euro inguru bideratuko dira pandemiaren aurkako borrokara. Halaber,

Elkargirekin kudeatutako Covid Funtsa jarri zen martxan, 1.000 milioi eurokoa, zailtasunak zituzten enpresei diruz laguntzeko. Baina pandemiaren eta haren ondorioen aurkako borrokak aurrera jarraitzen du, eta, horregatik, 2021erako aurrekontuan ere beste Covid Funts bat aurreikusten da, 542 milioi eurokoa, eta 500 milioi euroko abal bermatu eta subentzionatuen lerro bat. Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzak baliabide propioako 50 milioi euro gehitu dizkie finantzazio estataleko 218 milioiei, enpresentzako zuzeneko laguntzen esparruan, eta 78 EJSN jarduera gehitu dizkie Estatuak ezarritako 95ei.

**Eusko Jaurlaritzaren eragiketa arrunten bilakaera 2005-2020 (BPGren %)**  
**26 irudia**



Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu estatistikak.

Neurri horiek guztiek zerga politikaren izaera hedakorra zehaztu zuten, eta gastu arrunta, BPGaren beherakadaren ondorioz, bi puntu handitu zen aurreko ekitaldiekiko, BPGaren % 14ra iritsiz, serie historiko osoko zifrarik altuenera baita. Diru sarrera arrunten hazkunde erlatiboak, kasu honetan izendatzailearen jaitsieraren ondorioz bakarrik lortua, aurrezki gordinari balio positiboetan eutsi zion, baina tamaina txikikoak (BPGaren %0,1 izan zen), batez ere azken ekitaldietako aurrezki mailekin alderatuta (BPGaren % 1,5 inguru). Kapitaleko gastuei eusteak (BPGaren %1,2) BPGaren %1eko finantzaketa-beharra ekarri zuen. Gogoratu behar da Eusko Jaurlaritzaren defizita 2009an


%3,8 izan zela. Aldea, batez ere, zerga bilketaren erantzun desberdinean datza; izan ere, aurreko krisialdian gehiegi erreakzionatu zuen eta gaur egun jarduerarekin batera eboluzionatu zuen, Estatuko Covid-19 Funtsetik etorritako diru sarrerek ere lagunduta; izan ere, bi egoera horietan, krisiari erantzuteko partidak onartzeak eta egonkortzaile automatikoak aktibatzeak BPGaren gaineko gastu arruntaren ratioa 2 eta 3 puntu artean handitzea ekarri zuten.

Sektore publikoak krisiari erantzuteko, osasuna, hezkuntza, gizarte babesa eta sustapena, besteak beste, handitu ziren. Baina pandemiari eusteko hartutako neurriek (konfinamenduak, jarduera jakin batzuen aldi baterako itxierak, edukieren mugak, etab.) eragina izan dute Eusko Jaurlaritzaren gastuan arlo jakin batzuetan, hala nola etxebizitzan, gastua erdira baino gehiagora murriztu baitu. 2020ko ekitaldian, zorraren kostuak ere arindu zuen gastu publikoaren presioa, interesen ordainketa 32 milioi euro murriztu baitzen, orduan zeuden interes tasa txikiei esker.

Egonkortasun eta Hazkunderako Ituna babesteko klausula orokorra aplikatu ondoren, zeinak estatu kideek aurrekontuen arloan bete beharreko baldintza normalak aldi baterako desbideratzea ahalbidetzen duen, Espainiak etenda utzi zuen 2020rako eta 2021erako aurrekontu egonkortasuneko, gastu arauko eta zor publikoko helburuen aplikazioa, estatuko administrazio publiko guztiak horren mende baitzeuden. Testuinguru horretan kokatzen da Euskadiren eta Estatuaren artean lortutako akordioa, 2020ko iraileko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan sinatua. Akordio horretan, Euskadirentzako defizit eta zor muga berriak ezarri ziren, EAEko administrazioei finantza baliabideak eta pandemiaren ondoriozko erronkei erantzuteko aurrekontu marjina handiagoa ahalbidetzeko. Lehen aldiz, zorpetzeko gaitasun propioa aitortzen zitzairen foru aldundiei. Euskadirentzako helburu berri horiek ziren %2,6ko defizita (%0,9 gehiago foru aldundientzat) eta %16,3ko zorra 2020rako, %2,2ko defizita (gehi %0,8 gehiago aldundientzat) eta %16,9ko zorra 2021erako.

Joko arau berri horiekin, Eusko Jaurlaritzak aukera izan zuen 2020rako hasierako aurrekontu orekatu batetik BPGaren %1,0ko defizitera pasatzeko, zerga itunduen bilketa %11,5ean jaitsi zelako (1.818,5 milioi euro) hasierako aurrekontuarekin alderatuta, eta funtsezko zerbitzu publikoei hain une kritikoan eustearen aldeko apustua egin zuelako, 2017an hasitako aurrekontu superabitaren bidea hautsiz. Nolanahi ere, kontu publikoen narriadura handiagoa eta iraunkorragoa izango zen, epe ertainean, pandemia hasi zenetik enpresen eta familien errentei eusteko abian jarritako politikak gaitu izan ez balira.

**Eusko Jaurlaritzaren aurrekia, kapital gastua eta defizita 2005-2020 (BPGren %)**  
27 irudia




Iturria: Eustat. Sektorre publikoaren aurrekontu estatistikak.

Hala ere, defizita baimendutako mugaren azpitik geratu zen (%2,6). Alde batetik, urtean zehar ziurgabetasuna zegoen pandemiak zerga sarreretan izango zuen eraginari buruz, eta inaktuaren gehiegizko estimazio handiak egin ziren, baita ekitaldiaren amaieran ere, eta horrek gastua hain premiazkoak ez ziren partidetan eustera eraman zuen. Horrez gain, aurrekontuak ez exekutatzeko arazo ugari daude urtero, eta horrek ezinezkoa egiten du ezarritako helburuak betetzea. Kasu batzuetan, arazo horiek areagotu egin ziren pandemiako urte horretan.

Atzeraldi Handian zehar finantzazioko premiei aurre egiteko, zor jaulkipenak erabili ziren, nahiz eta gero pisua galdu zuten zorra amortizatzeko. Hala, zor jaulkipenek gora egin zuten aurrekontu defizit handien urteetan, BPGaren bi eta hiru puntu arteko jaulkipenekin, eta hurrengo ekitaldietan behera egin zuten, baina 2019an soilik BPGaren %1,0ra (%1,1) hurbildu zen. Bestalde, zorraren amortizazioek goranzko joera izan zuten, 2009ko %0,1etik 2019ko %1,7ra. 2020an, 2009ko krisian gertatu zen bezala, zorraren jaulkipena egin zen. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak inoiz egin duen zor jaulkipenik handiena da, bai diru kopuruei dagokienez (2.092,6 milioi euro), bai BPGari dagokionez

(%2,9). Balio horietara 2010eko zifrak baino ez dira hurbiltzen, orduan 1.893 milioi euro jaulki baitziren, BPGaren %2,8.

**Eusko Jaurlaritzaren zorpetze beharraren analisia 2005-2020 (BPGren %)**  
28 irudia




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu estatistikak.

2020ko hasierako aurrekontuan ez zen jasotzen finantza pasiboen gorakada hain handia izango zenik. Jaulkipena askoz apalagoa zen, 886 milioi eurokoa, baina zerga bilketari buruzko ziurgabetasunak eta pandemiari eta pandemiaren ondorioei aurre egiteko baliabideak izateko beharrak, zorraren maila igotzea ahalbidetzen zuen Estatuarekiko akordioak babestuta, aurrekontuetan jasotakoa bikoizten zuen zorraren jaulkipena ekarri zuten. Zorra BPGaren %1,0 amortizatuta eta finantza aktiboen aldakuntza %0,2 handituta, 2020ko ekitaldiko zorraren jaulkipenak BPGaren %0,8 gainditu zituen zorpetzeko beharrak, eta altxortegia handitzera bideratu zen. Jokabide hori izan du Eusko Jaurlaritzak bere historiako hainbat unetan, hala nola, Atzeraldi Handiaren aurreko urteetan eta portzentaje handiagoeekin (BPGaren % 1 izan zen 1988an, gero aparteko inbertsioa finantzatu zuena). Atzeraldi Handian guztiz kontrakoa gertatu zen: aurreko hamarkadako saneamenduarekin metatutako erreserben ondorioz, 2009ko zorraren jaulkipena zorpetze beharraren erdia baino ez zen izan, BPGaren %4,3ra iritsi baitzen.

Eusko Jaurlaritzaren finantzaziorako gaitasuna beti egon da oinarrituta epe laburreko finantzaketan, eta kopuru garrantzitsuak, ekitaldi batzuetan, BPGaren %1 gainditu dute nabarmen, eta 2011-2014 aldian, krisiaren ondorioz, %0,2 inguruko balioetara egokitu zen. 2015etik aurrera, berriz ere handitu da haren garrantzia, BPGaren %0,7 ingurura iritsi arte, hain zuzen ere, 2020ko balioa da hori.

Gehiegizko Defizitaren Protokoloaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren zorraren saldo bizia 10.785 milioi eurokoa zen 2020. urtearen amaieran, BPGaren %16,1, eta Estatuarekin adostutako mugen barruan zegoen, baina inoizko mailarik altuenera iritsi da. 2009ko finantza krisiaren aurreko hedapen ekonomikoari esker, zorra murrizteko politika gauzatu ahal izan zuen. Hori dela eta, zorpetze maila baxua izan zen, geroago, Eusko Jaurlaritzaren zorra BPGaren ia %15era iritsi baitzen 2016an. Zorraren saldo bizia eta jarduera ekonomikoaren hedapena murriztearen ondorioz, zorpetzea BPGaren %12,7koa izan zen 2019an. 2020an zor publikoaren ratioa handitu egin da, bai zorraren jaulkipen handiagoaren ondorioz, bai BPG nominalaren jaitsiera handiaren ondorioz. Aitzitik, zor publikoan gorakada nabarmena izan zen arren, interesetan egindako gastuak behera egin zuen berriro.

**Foru aldundien eragiketa arrunten bilakaera 2005-2020 (BPGren %)**  
**29 irudia**




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu estatistikak.



Eusko Jaurlaritzak ez bezala, azken 30 urteetan foru aldundiek gutxitan erakutsi dituzte finantzaketa beharrak. Zehazkiago adierazita, 2002an eta Atzeraldi Handian bakarrik. 2009ko krisiaren eragina oso desberdina izan zen bi erakundeetan, bai kuantitatiboki (BPGaren %3,8ko eta %2,3ko defizita 2009an eta 2010ean, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, eta %0,1ekoa eta %0,3koa, berriz, foru-aldundietan), bai gerora jarraitutako kontsolidazioko bideetan. Hala, eta bederatzi ekitalditan saldo negatiboak izan ostean, Eusko Jaurlaritzak superabiteria itzuli zen 2017an (2018an eta 2019an mantendu zen), eta foru aldundiek defizita bi ekitalditan baino ez zuten aurkeztu: 2009an eta 2010ean.

**Foru aldundien aurrezkia, kapital gastuak eta defizita 2005-2020 (BPGaren %)**  
30 irudia




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu estatistikak.

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 2020an ere, foru aldundi guztiek, Jaurlaritzak ez bezala, BPGaren %0,1eko finantzaketa gaitasunarekin<sup>4</sup> amaitu zuten ekitaldia, xumea izan arren, Estatuarekin lortutako akordioak BPGaren %0,9ko defizita ahalbidetzen zien arren. Nahiz eta aurrezki gordina jaitsi egin zen zerga bilketaren beherakadaren ondorioz, onartutako zerga neurriek

<sup>4</sup> Eusko Jaurlaritzak. Ekonomia eta Ogasun Saila. *Aurrekontua gauzatzeari buruzko estatistikak*.

lagunduta, eta pandemiaren kalteei aurre egiteko gastuen<sup>5</sup> hazkundearen ondorioz, aurrekontuko superabit hori kapitaleko gastuak ia %20 murriztuta lortu da 2019arekin alderatuta, eta Eusko Jaurlaritzak, berriz, inbertsio mailari eutsi dio.

**Foru aldundien zorpetze beharraren analisia 2005-2020 (BPGaren %)**  
**31 irudia**




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu estatistikak.

Finantzatzeko ahalmen hori eduki arren, foru aldundiek ere zorra jaulki dute, 400 milioi euro baino gehiago, BPGaren %0,6 dena. Horiek, finantza aktiboen eta pasiboen jokoak kontuan hartuta, BPGaren %0,4ko gehiegizko zorpetzea dakarte, eta diruzaintza handitzera bideratu dira. Hala eta guztiz ere, foru aldundiek 2020. urtearen amaieran zuten zorra, gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera, 3.012 milioi eurokoa zen, BPGaren %4 baino zertxobait gehiago, aurreko hamarkadako datuetako mailan dauden zenbakiak baitira. Atzeraldi Handiak foru aldundien zorpetzean izan zuen eragina ez zen Eusko Jaurlaritzarena bezain handia izan, zeren eta 2013an BPGaren % 5,3ko maximora iritsi baitzen, eta %3,7ra murriztu zen 2019an.

<sup>5</sup> Eusko Jaurlaritzak onartutako eta Berpiztu Programan bildutako neurriez gain, foru aldundiek ere hainbat txoke neurri hartu zituzten Covid-19aren ondorioak arintzeko, bai enpresei eta autonomoei laguntzeko neurri sozialak bai ekonomikoak.

Udalek, berriz, azken ekitaldietako zorrari eutsi diote, hau da, BPGaren %0,6aren inguruan. Horrenbestez, administrazio autonomoaren zorra, oro har, BPGaren %21 baino handiagoa izan zen 2020. urtearen amaieran. Portzentaje horretatik hiru laurdenak Eusko Jaurlaritzaren zorrari dagozkie.

**Autonomia Administrazioaren zor publikoaren bilakaera (gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera). BPGaren %**  
**32 irudia**



Iturria: Espainiako Bankua, Ogasun Ministerioa eta INE (eskualdeko kontabilitatea).

Osasun krisiak planteatutako erronkei erantzuteko onartu ziren zerga politikako neurriek kontu publikoen nariadura ekarri dute berekin, nahiz eta EAEko erakundeek ez dituzten defizitari buruz adostutako mugetara iritsi, baina zorpetzeko premien gaineko gehiegizko zorra jaulki dute. Epe luzeko interes tasen beherakada sekularraren ondorioz, zor maila handiagoei eutsi ahal zaie, finantza publikoak arriskuan jarri gabe. Hala ere, zorpetzeak gora egin duenez, EAEko sektore publikoa ahulagoa da finantzaketako baldintzetan gerta daitezkeen aldaketan aurrean. Bestalde, aipatu behar da berehalako gastu handiagorik eragin ez duten arren, enpresei banku maileguak ematea errazteko abal lerroen bidez emandako berme publikoak arrisku kontingentea dira EAEko administrazio publikoentzat.

2020an zehar, EAEko administrazioek hainbat neurri hartu dituzte, beste erronka batzuen artean, enpresen hazkundea bultzatzeko, errenten arteko desberdintasuna arintzeko eta lan merkatua hobetzeko. Zalantzarik gabe, neurri horiek guztiak aplikatzean izango den arrakastaren araberakoa izango da neurri handi batean krisitik irtetea intentsitate txikiagokoa edo handiagokoa izatea. Hona hemen jarduketa nagusiak:

| Eusko Jaurlaritzaren ekintza ildoak   | Jarduera nagusiak  |
|---|--|
| 1. Osasun sistema indartzea.  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sendagaiak kudeatzea eta material sanitarioa erostea</li> <li>• Prebentziozko arreta eta telefono bidezko aholkularitza;</li> <li>• Ospitaleetako osasun langileei laguntzea eta etxeko laguntza;</li> <li>• Ospitale espazioak berrantolatzea eta kutsatutako pertsonak artatzeko gune berriak prestatzea</li> </ul>   |
| 2. Premia handiena duten kolektiboei laguntzea eta gizarte estaldura bermatzea. | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte larrialdietarako laguntzak handitzea: familia ahulentzako laguntzak, haien premia larrienei erantzuteko.</li> <li>• Bazterkeriaren aurkako Funts Berezi berria, baliabide gutxi dituzten familiei laguntza emanez haur pobreziari aurre egiteko.</li> <li>• Familientzako zuzeneko laguntzak, lana eta familia uztartzeko.</li> <li>• Familiei eskola garraioko, laguntza-zerbitzuetako eta jantokiko gastuak konpentsatzeko laguntzak.</li> <li>• Alokairu gastuak konpentsatzeko laguntzak</li> </ul>   |
| 3. Enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei laguntzea.                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Autonomoentzako (Lanbide) laguntzak, kotizazioak eta alokairuak ordaintzeko, negozioak ixteagatiko galeren konpentsazio gisa.</li> <li>• Zailtasunak dituzten enpresentzako laguntza (Bideratu programa), enpresak berregituratzen eta berrabiarazten laguntzeko.</li> <li>• I+G+b proiektuetarako zuzeneko laguntzak, prototipoak garatzen dituzten eta prebentziorako osasun materiala ekoizten duten LHko enpresei edo zentroei laguntzeko.</li> <li>• Likidezia lerroa, zero kostuan, Finantzen Euskal Institutuaren bidez, mikroETEEi, ETEEi eta autonomoei likidezia errazteko.</li> <li>• Zirkulatzaila lerro berria EAeko enpresentzat; EAeko abalak, zero eta bost urteko kostuetan, gabealdi batekin. Baldintzak malgutzea, birfinantzatzea eta egokitzea aurrerakin itzulgarrietan, maileguetan edo Gauzatu, Bideratu edo Indartu abaletan.</li> </ul> |
| 4. Beste lerroak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Renove programak: Renove etxetresna elektrikoak, Renove leihoak, Renove makina erreminta eta Renove Industria enpresa txiki eta ertainentzat, Renove ibilgailuak.</li> <li>• Merkataritza suspertzeko bonuen programa, foru aldundiekin batera.</li> </ul>  |

| Arabako Foru Aldundiaren ekintza ildoak | Jarduera nagusiak   |
|---|---|
| 1. Neurri fiskalak                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arabako enpresen likidezia erraztea: zerga batzuen ordainketa atzeratzea, atzerapenak eta zatikapenak ematea berandutze interesik gabe eta baldintza bigunekin, eta langile autonomoen PFEZaren ordainketa etetea. Gainera, enpresei BEZa itzultzea eta hornitzaileei ordaintzea arintzen du.</li> <li>• Arabako autonomoei eta profesionalei zatikako ordainketak etetea.</li> <li>• Kenkariak baliabide soziosanitarioetarako dohaintzaren bat eman nahi duten pertsona fisikoentzat.</li> <li>• Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzen da.</li> <li>• Hiru aldundiek Elkargi Elkarrekiko Berme Sozietatearekin adostu dute hiru lurraldeetako ETEen indarreko maileguei gabeziak izapidetzen laguntzeko.</li> </ul>   |
| 2. Neurri ekonomikoak<br>PlanÁ          | <ul style="list-style-type: none"> <li>• ETE eta autonomoentzako laguntzak, likidezia neurriak eta ETEak digitalizatzeko laguntzak barne.</li> <li>• Enpleguaren sustapena. Zuzeneko ekintzak, hala nola kontratazio mugagabeak egiten dituzten enpresentzako, emakumeentzako eta 45 urtetik gorakoentzako laguntzak, bai eta helburu bereko zerga arintzeak ere.</li> <li>• Etxebizitzak berritzea eta haien iraunkortasuna. Etxebizitzak, obrak eta eraberritzeak birgaitzea erraztea.</li> <li>• Mezenasgoa eta elkartasuna sustatzea. Partikularren eta enpresen dohaintzarako zerga abantailak, gehien kaltetutako sektoreetan krisiaren ondorioak arintzeko.</li> <li>• Tokiko merkataritza sustatzeko kontsumo bonuak, bai eta saltokientzako zuzeneko diru laguntzak ere, digitalizazioan eta osasun-segurtasunean inbertsioak egiteko, besteak beste.</li> <li>• Turismo bonoak.</li> <li>• Arabako produktuak sustatzea. Planak 10,5M€ mobilizatzea aurreikusten du sektore horretan. Garrantzi berezia du mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreak.</li> <li>• Kultura sustatzea. Kultura bonoak, bai eta Arabako kultura eta sormen arloko talde eta industrientzako diru laguntzak ere.</li> </ul> |

| Bizkaiko Foru Aldundiaren ekintza ildoak   | Jarduera nagusiak   |
|--|---|
| 1. Neurri fiskalak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Prozeduren hasiera etetea edo luzatzea.</li> <li>• Epeak luzatzea.</li> <li>• Zerga prozeduren izapidetzea etetea.</li> <li>• Zergen ordainketa atzeratzea.</li> <li>• Langile autonomoen PFEZaren ordainketa zatikatuak etetea.</li> <li>• PFEZaren eta BEZaren itzulketen aurrerakina, bai eta zerga horietako hainbat kenkari ere.</li> <li>• Sozietateen gaineko zergaren kuota efektiboaren %60ko aparteko kenkaria, 2019ko ekitaldiari dagokiona.</li> </ul>   |
| <p>2. Pertsona eta sektore ahulenei laguntzeko neurriak:</p> <p>Bizkaia Aurrera! Plana</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizkaiko autonomoentzako eta besteren konturako bost langile arteko enpresa txikientzako mikrokredituak.</li> <li>• Enplegu plan berezia, lanpostuei eusten laguntzeko eta langabeen kontratazioa sustatzeko.</li> <li>• Bizkaiko tokiko merkataritzan, kulturen, turismo establezimenduetan eta ostalaritzan kontsumoa sustatzeko bonuak.</li> <li>• Bizkaiko eraikuntzako gremioen artean jarduera sustatzeko Renove Etxea Plana.</li> <li>• ETEek eta autonomoek mailegurik ez izateko laguntza programa, Elkargik bermatua..</li> <li>• Barne turismoko plana, Bizkaiko herrietan mugimendua, jarduera, kultura eta kontsumoa sustatzeko.</li> <li>• Industriari lotutako sektoreetako bost eta ehun langile bitarteko enpresa txiki eta ertainak eta enpresak ekonomia adimenez suspertzeko zuzeneko laguntzen programa.</li> <li>• Bizkaia aurrera! Digitalizazio-plana</li> <li>• Ekonomia eta enplegua suspertzeko tributu- eta zerga neurriak.</li> <li>• Covid-19ko kultura, kirol eta ikerketa jardueretarako mezenasgoa handitzea.</li> <li>• Bizkaian jarduera, ekonomia, kultura eta aisialdia dinamizatuko dituzten jarduerak bultzatzea, osasun agintaritzak horretarako aukera ematen duenean.</li> <li>• Bizkaia Gara indartzea, lurraldeko boluntarioen sarea.</li> </ul> |

| Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekintza ildoak    | Neurri fiskalak   |
|---|---|
| 1. PFEZ                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerga tratamendu jakin batzuen epeak malgutzen dira.</li> <li>• PFEZ carry back: errenta kanpainan, pertsona jakin batzuek 2020rako kalkulaturako etekin garbi negatiboa murriztu ahal izango dute zerga-oinarrian.</li> <li>• Langileek sozietateak eratzea: pizgarria sustatzen da.</li> <li>• Langile sanitarioentzako aseguru espezifikoaren salbuespena Covid-19ren ondoriozko gaixotasunagatiko eta heriotzagatiko prestazioetarako.</li> <li>• Merkataritza txikiaren eraldaketa digitalerako kenkaria.</li> </ul>  |
| 2. Sozietate zerga                            | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Luzatu egiten dira epeak, zergari buruzko araudian jasota egonik, oro har 2020. urtean amaitzen diren epeei dagokienez.</li> <li>• Carry back Sozietateak: mugak nabarmen handitu eta malgutu dira, zerga oinarria murriztu ahal izateko.</li> <li>• 64 BIS (I+G) kenkaria: mikroenpresek eta enpresa txikiek egindako I+G proiektuetan inbertitzeagatiko kenkaria</li> <li>• Ordainketa zatikatuak: ordainketa zatikatu horretatik salbuesten dira 2020an mozkinik espero ez duten enpresak.</li> <li>• Ezohiko amortizazio azeleratua: ibilgetuen amortizazioaren zenbatekoa handitu egiten da (1,5ekin biderkatzen da).</li> <li>• Beste kenkari bat sortu da, inbertitzaileak 2020an egindako inbertsioetarako sozietateen gaineko zergaren kuota likidoan aplikatu dezakeena.</li> <li>• Enplegua sortzeagatiko kenkaria: enplegua sortzeagatiko kenkariaren muga 7.500 eurokoa da langile bakoitzeko.</li> </ul> |
| 3. Ondare eskualdaketan gaineko zerga eta EJD | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Dokumentaturako kasu juridiko jakin batzuetan epeak sei hilabetez luzatzea xedatzen da.</li> </ul>   |
| 4. Beste neurri batzuk                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jokoaren gaineko zergaren kuota finkoan hobari jakin batzuk ezartzen dira.</li> <li>• Covid-19 BGAE bereziaren erreskatea. Ez da kontingentzia gisa zenbatzen % 60ko integrazioaren ondorioetarako.</li> <li>• Erakunde berritzaile sortu berriak: 7 urteko epea eratu zirenetik, 10 urterako galera konpentsagarriak, Covid-19ren arabera arrantza sektorearen konpentsazio espezifikoak, finantza errentamenduko kontratua. Betekizunak malgutzea, zorrak kitzatzea zerga itzulketekin.</li> </ul>   |



### 2.3 Moneta politika eta pandemiaren eragina finantza sektorean

Covid 19aren krisiaren aurreko hamarkadan, ekonomia aurreratu nagusiak presio desinflazionisten eraginpean egon ziren, eta horrek inflazioaldi iraunkor baxuari bide eman zion. Horren ondorioz, banku zentralak zeroaren inguruko mailetan mantendu zituzten erreferentziazko interes tasak, eta, une zenbaitetan, negatiboetan. Hori da, hain zuzen ere, eurogunearen kasua, 2016ko martxotik %0,0koa baita haren esku hartze tasa. Erresuma Batuan eta AEBetan, interes tasek nolabaiteko normalizazioa izan zuten pandemia agertu aurretik. Lehertu ondoren, banku zentralak gogor murriztu zituzten, krisiaren ondorioak arintzeko eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko.

**Banku zentralen interes tasak**  
**31. taula**

|                         | 01-05 | 06-10 | 11-15 | 2016  | 2017 | 2018 | 2019     | 2020     |
|-------------------------|-------|-------|-------|-------|------|------|----------|----------|
| Europako Banku Zentrala | 2,5   | 2,4   | 0,4   | 0,0   | 0,0  | 0,0  | 0,0      | 0        |
| Erreserba Federala      | 2,1   | 2,1   | 0,30  | 0,75  | 1,5  | 2,5  | 1,75-1,5 | 0,25-0,0 |
| Japoniako Bankua        | 0,0   | 0,2   | 0,1   | -0,1  | -0,1 | -0,1 | -0,1     | -0,1     |
| Ingalaterrako Bankua    | 4,2   | 2,7   | 0,5   | 0,25  | 0,5  | 0,75 | 0,75     | 0,1      |
| Txinako Bankua          | 2,5   | 6,0   | 5,7   | 4,35  | 4,35 | 4,35 | 4,15     | 3,85     |
| Indiako Bankua          | 7,1   | 6,5   | 7,8   | 6,25  | 6,00 | 6,50 | 5,15     | 4,0      |
| Brasilgo Banku Zentrala | 17,4  | 11,6  | 10,9  | 13,75 | 7,00 | 6,5  | 4,5      | 2,0      |

Iturria: Europako Banku Zentrala, Reuters Agentzia eta Espainiako Bankua.

Izan ere, krisi ekonomikoko berri baten itzalak, lehen aldiz eta ekintza koordinatu batean, Kanadako Bankua, Ingalaterrako Bankua, Japoniako Bankua (BoJ), Europako Banku Zentrala, Erreserba Federala (FED) eta Suitzako Banku Nazionala dolarretan likidezia errazteko plan bat iragartzera eramane zituen. Halaber, FEDek bere erreferentzia tasa bi aldiz beheratu zuen, %0,25-%0,0 tartera iritsi arte, Ingalaterrako Bankuak bezala, bere tasa %0,1era murriztu baitzuen, inoizko baxuena baita.

Txinako eta Indiako banku zentralak ere murriztu zituzten beren esku hartzeko interes tasak, %3,85era eta %4,0ra arte, hurrenez hurren. Erakunde guztiek, bai herrialde aurreratuak, bai

garapen bidean daudenetakoek, berretsi egin zuten pazientzia, konpromiso eta jarraitutasuneko mezua, egoera ekonomiko eta sanitarioak hala eskatzen zuen bitartean iraungo zuen moneta politika oso egokitzailer batekin.

Hasiera batean, pandemiak sortutako arazo ekonomikoak eta horiei aurre egiteko ezarri ziren neurriek finantza baldintzak gogortzea ekarri zuten berekin, batez ere euroaren eremuan. Gobernuak pandemiari eusteko planak iragarri ahala, finantza merkatuek jardueraren beherakada eta zorpetzearen igoera handiak deskontatzen zituzten, eta horrek arrisku sariak gorantz bultzatu zituen, batez ere Espainiakoak eta Italiakoak, hasiera batean osasun krisiak larriki kaltetu zituen herrialdeak.

**10 urterako zor publikoaren errendimendua**  
**32. taula**

|                 | Errendimendua (%) |       |      |      |      | Alemaniarekiko aldea (oinarri puntuak) |       |      |      |      |
|-----------------|-------------------|-------|------|------|------|--|-------|------|------|------|
|                 | 08-12             | 13-17 | 2018 | 2019 | 2020 | 08-12                                  | 13-17 | 2018 | 2019 | 2020 |
| Alemania        | 2,5               | 0,8   | 0,3  | -0,2 | -0,6 |  |       |      |      |      |
| Frantzia        | 3,1               | 1,1   | 0,7  | 0,1  | -0,3 | 61                                     | 39    | 46   | 31   | 23   |
| Italia          | 5,0               | 2,3   | 2,8  | 1,4  | 0,5  | 247                                    | 153   | 252  | 162  | 110  |
| E. Batua        | 2,9               | 1,8   | 1,3  | 0,8  | 0,2  | 35                                     | 109   | 102  | 102  | 77   |
| <b>Espainia</b> | 4,7               | 2,1   | 1,4  | 0,5  | 0,1  | 225                                    | 135   | 117  | 66   | 63   |
| Irlanda         | 6,3               | 1,5   | 0,9  | 0,1  | -0,3 | 382                                    | 71    | 66   | 31   | 27   |
| Portugal        | 7,1               | 3,4   | 1,7  | 0,5  | 0,1  | 1.138                                  | 680   | 413  | 167  | 120  |
| Grezia          | 13,9              | 7,6   | 4,4  | 1,5  | 0,6  | 460                                    | 265   | 147  | 64   | 64   |
| AEB.            | 2,6               | 2,5   | 2,7  | 1,9  | 0,9  | 9                                      | 172   | 244  | 210  | 149  |
| Japonia         | 1,1               | 0,3   | 0,0  | 0,0  | 0,0  | -143                                   | -46   | -25  | 17   | 60   |

Iturria. Espainiako Bankua.

EBZk abian jarri zuen pandemiaren aurkako larrialdiko erosketen programa (PEPP) eta horrek bat-batean geldiarazi zuen euroaren eremuko finantza merkatuen narriadura, eta finantzaketarako baldintzak pixkanaka lasaitzeko prozesua hasi zuen, 2021eko lehen erdira arte luzatu zena. Are gehiago, banku zentralak merkatuetan likidezia injektatzeko duten erosteko goseak, inflaziorik ezak eta zorro zuhurren babes bilatzeak, 2020ko azken txanpan, Europako hainbat erreferentzia

subiranok %0,1etik beherako errentagarritasunak eskaintzea ekarri zuten. Izan ere, Espainiako bonua historian lehen aldiz tasa negatiboan sartu zen eta -%0,014ko gutxieneko errentagarritasuna ezarri zuen, alemaniar, frantziar, irlandar eta, noizbehinka, portugaldar bonuen errentagarritasunak kokatzen ziren lurraldea. Bestalde, euroguneko ekonomia nagusien arrisku sariak bere horretan eta 2009ko mailan kokatu ziren.


Dibisen merkatuari dagokionez, bere bilakaera eta bonuarena antzekoa izan zen. 2019ko azken txanpan eta 2020ko lehen asteetan, ziurgabetasunaren murrizketak euroaren kotizazioa gorantz bultzatu zuen, dolarraren eta yenaren aurrean balio pixka bat irabazi baitzuen. Ondoren, koronabirusaren agerpenak, kapital fluxuak, babesleku aktibo deitutakoetara bultzatu zituen eta horrek estatubatuar dolarra, yena eta libera esterlina indartu zituzten. Hori dela eta, euroak balioa galdu zuen dibisa horien aurrean. Hala eta guztiz ere, hasierako joera hori ez zen finkatu eta dolarra ahuldu egin zen 2020an zehar ia dibisa guztien aurrean. Euroaren aldean %9,5eko balio galera pilatu zuen dolarrak.

Billete berdearen balio galera horren atzean bi faktore daude. Alde batetik, interes tasen arteko diferentziala estutu izana, behin Erreserba Federalak zeukan diru politikaren marjina guztia erabiltzea eta erreferentzia tasa %0,25-%0,0 tartera murriztea erabaki ondoren. Jarduera hori Europako Banku Zentralak egindakoa baino oldarkorragoa izan zen, azken banku honek ez baitzuen maniobra tarterik, edo garapen bidean dauden herrialdeek abian jarritako edozeinena, pandemiak eragindako shockari hain modu erabakigarrian erantzuteko gaitasun nahikorik ez baitzuen haietako batek berak ere.


Beste aldetik, txertoek aurrera egin ahala eta tunelaren amaieran argia ikusten hasi ahala, inbertitzaileek pixkanaka ekin zioten arrisku aktiboak hobesteari, eta horrek inbertsio fluxuak Europara eta garapen bidean dauden herrialdeetara itzultzea eragin zuen. Horri gehitu behar zaio, euroaren kotizazioaren kasuan, merkatuak eta inbertitzaileek balioespen positiboa egin ziotela krisi honi aurre egiteko Europak hartu zituen neurri politiko eta ekonomikoei, batez ere Next Generation EU Europako berreskuratze programaren inguruko akordioari buruz, are gehiago aurreko krisian izandako deskoordinazioarekin eta akatsekin alderatzen badira. Horren guztiaren ondorioz, euroaren truke tasa efektibo nominala, herrialde industrializatuen multzoaren aldean, %4,6 handitu zen 2020an, eta, 2013tik lehen aldiz, 100etik gorako balioa izan zuen, zehazkiago, %101,9koa.

**EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko**  
**33. irudia**


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera esterlina



Yena



Iturria: Espainiako Bankua.

Koronabirusaren epidemia 2019an burtsek bizi izan zuten lasaitasun sentazioa desagerrarazi zuen, burtsarentzat urte bikaina izan baitzen. Ibex 35ek munduko burtsa indize nagusien arteko errentagarritasunik txikiena izan zuen eta, hala ere, %11,8 igo zen; S&P 500ek, berriz, %28,9ko igoera izan zuen.

2020. urtea hegakortasunak markatu zuen, martxoan beherakada orokor eta bizia izan baitzen, eta ondorengo susperraldia, batez ere AEBetako, Japoniako eta azaleratzen ari diren Asiako merkatuen, Txina buru zela, portaera onean oinarrituta. Munduko burtsen balantze positiboaren azalpena hainbat faktoretan oinarritzen da, hala nola banku zentralen aurrekaririk gabeko diru politika hedakorretan, Txinak birusaren aurkako borrokan izan duen arrakastan, edo pandemiaren garaian indartuta atera diren sektore eta enpresen, batez ere estatubatuarrak, pisu gero eta handiagoan, hala nola osasun sektorean edo ekonomiaren hainbat esparrutan aplikatutako informazio teknologia berrietan. Halaber, azaroan Covid-19aren aurkako txertoen azken saiakuntzen emaitza oso itxaropentsuak baieztatu ziren, eta horrek munduko burtsak modu esanguratsuan bultzatu zituen gorantz.

Hala eta guztiz ere, burtsek bilakaera desberdina izan zuten Atlantikoaren bi aldeetan. Horrela, Europako burtsek, oro har, galerak izan zituzten urtean, baina AEBetako merkatuek susperraldi ikusgarria izan zuten. Zehatzago esanda, European Eurostoxx-50 indizeak %5,1 egin zuen behera. Holandako (%3,3), Portugalgo (%12,9), Suitzako (%0,8) eta Alemaniako (%3,6) indizeek hobera egin zuten, baina Italiakoak (-%5,4) eta Frantziakoak (-%7,14) nabarmen egin zuten behera. Beste behin ere, Ibex 35 izan zen kaltetuena, %32,4 behera egin ondoren, %15,5eko uzkurtearekin amaitu baitzuen urtea. Espainiako indizeak burtsa indize gehienekin alderatuta duen portaera kaskarra, hein handi batean, haren osaerari berari zor zaio; izan ere, osaera horretan ez dago teknologia berrien, ordainbideen plataformen eta merkataritza elektronikoen balioen ordezkartzarik, horiek bizi izan baitziren unerik onena burtsan.

AEBetako merkatuek, bestalde, irabaziekin amaitu zuten urtea, FEDen neurriek, gobernuaren pizgarriek eta konpainia teknologiko handien pisuak lagunduta. Haren indize nagusiek maila maximo historikoak eta munduko batez bestekoaren gainerako errentagarritasunak eskuratu zituzten. Dow Jones indizeak %7,2ko balio handitzea izan zuen, S&P 500ek %16,3 eta Nasdaq 100 indizeak, osagai teknologiko nabarmena duena, %47,6ko igoera itzela izan zuen eta hamaika urtez jarraian urteko irabaziak lotuz. Garatzeko bidean dauden merkatuak %16,6 hazi ziren urtean, MSCI EM indize globalaren arabera. Latinoamerikako erregistroa (-%0,3) erregistro horren oso azpitik geratu zen.

Aurrezkoa da, zalantzarik gabe, familien finantza osasuna neurtzeko termometrorik onena. Familiek beren ekonomia pertsonalari buruz duten konfiantza eta herrialdearen egoera ekonomikoari buruz dutena dira familien egoera ekonomikoa baloratzeko funtsezko elementuak. Egonkortasuneko garaietan gutxiago aurrezteko joera dago; krisi eta ziurgabetasun garaietan, berriz, ahalik eta gehien aurrezten da.

Datuek tesi hori berresten dute. 2018an eta 2019an, Espainiako Estatistika Institutuaren (INE) arabera, espainiarren aurrezki tasa minimo historikoetan kokatu zen (%4,9). Gaur egun, osasun krisiak eztanda egin ondoren, zehazki, iazko bigarren hiruhilekoan, hots, Covid-19aren kutsatzeak geldiarazteko ezarritako alarma egoera erabaki zenean, familiek %25,7ra igo zuten aurrezki tasa, hau da, 1999an datu hori zenbatzen hasi zenetik izan duten tasarik gorena. Erregistro horrek 13,6 puntutan gainditzen du aurreko tasa altuena (%12,1). Zifra hori 2009ko bigarren hiruhilekoan erregistratu zen, baita atzeraldi batean ere. 2020ko balantzean, Espainiako familien aurrezki tasa errenta erabilgarriaren %14,8koa izan zen; tasa hori 2019koa baino 8,5 puntu handiagoa da, eta serie osoko handiena, 1999an hasi zena.

**Gordailuen bilakaera**  
**33. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

|                      | 2015       | 2016       | 2017       | 2018       | 2019       | 2020       | 2008-2020 arteko aldea |             |
|----------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------------------|-------------|
|                      |            |            |            |            |            |            | Mila €                 | Tasak       |
| <b>Guztira</b>       | <b>3,3</b> | <b>1,9</b> | <b>4,7</b> | <b>2,3</b> | <b>6,6</b> | <b>5,7</b> | <b>15.517,9</b>        | <b>20,3</b> |
| Gordailu publikoak   | 3,0        | -0,2       | 11,2       | 36,6       | 8,9        | 27,1       | 398,9                  | 6,4         |
| Gordailu pribatuak   | 3,3        | 2,0        | 4,4        | 0,9        | 6,5        | 4,4        | 15.149,0               | 21,5        |
| Ageria eta aurrezkia | 18,2       | 15,4       | 20,9       | 6,6        | 11,4       | 9,0        | 48.366,4               | 179,2       |
| Epera                | -12,0      | -16,6      | -27,3      | -17,3      | -13,5      | -20,1      | -33.217,4              | -76,1       |

Iturria: Espainiako Bankua.

Azterketa EAEko ekonomian zentratuz, oraingoz ez dago datu eta adierazle horien bereizketarik, baina gordailuen bilakaerak joera hori egiaztatzen du. Familiek gordailuetako dirua handitzen jarraitu zuten, beraien ustez luzea izango den krisialdi baterako babes neurri gisa, nahiz eta gordailuen tasak -%0,5ean jarraitu zuen, eta ez zuen ia inolako etekinik eman. Zehazki, ageriko gordailuak eta urtebeterako ezarpenak %0,01 ordaindu ziren, eta 2 urtetik gorako epemugak, berriz, %0,15.

Hala eta guztiz ere, 2020an gordailuetan zegoen diru kopurua %5,7 hazi zen, eta tasa horren ondorioz, metatutako aurrezpena 92.000 milioi eurora hurbildu zen, orain arte erregistratu den mailarik altuena baita. Gorakada hori gordailu publikoetara (%27,1) zein pribatuetara (%4,4)

zabaldu zen, eta EAEko eragileek pandemiaren urtean, euren ekarpenak ia 5.000 milioi eurotan handitu zituzten.


Arlo publikoak, nahiz eta ahalegin garrantzitsua egin eta pandemiaren ondorioak arintzeko neurriak martxan jarri, bere gordailu maila 1.302 milioi eurotan areagotu zuen. Sektore pribatuari dagokionez, hegazkortasun eta ziurgabetasun handiko eszenategi batean, EAEko familiek segurtasuna eta dirua bat-batean edukitzeko gaitasuna lehenetsi zituzten, balizko egoera kaltegarriari aurre egiteko berme gisa, eta ageriko gordailuen alde egin zuten berriro, %9,0 handitu baitziren eta 75.353 milioi euro baino gehiago pilatu baitziren. Zenbateko horrek gordailu pribatu guztien %87,9 biltzen du. Atzeraldi Handiaren hasieran, 2008an, ageriko gordailuak %38 baino ez ziren. Eperako gordailuak izan ziren berriz ere kaltetu handienak, 10.400 milioi euro baino zerbait gehiago zenbatu zituztenak. Izan ere, 2020an, EAEko eragileek 2.624 milioi euro baino gehiago kendu zituzten eperako produktuetatik. Urrun daude 2008an produktu horietan inbertitutako 43.600 milioiak.

Aurrezkiaren hazkunde horrek bi irakurketa ezberdin eskaintzen ditu. Alde batetik, administrazioak ahalegin handiak egin ditu familiek pandemiaren aurrean erosteko duten ahalmena babesteko, hala nola, ABEEak edo ordaintzeko luzamenduak erabiliz. Ahalegin horiek funtsezko palanka izan dira EAEko familiek eta enpresek aurrezteko gaitasun handia izan dezaten, baina, aldi berean, kontsumoaren galgak etengabeko geldialdiaren mehatxua zabaldu du. Horrek esan nahi du depresio ekonomikoa normaltasun berria izan daitekeela, BPGaren hazkunde tasa txikiak eskuratzen dituela, langabezia tasa etengabe handia dela eta interes tasak txikiak direla. Europako Batzordearen etorkizunerako proiektzioen arabera, familien aurrezki tasak gora egingo du Mendebalde osoan. Bestela esanda, kontsumo pribatu gutxiago egongo da susperraldia sendotzeko. Eurogunean, 2020an, errenta gordin erabilgarriaren %19,9ko aurrezpen tasa egon da, eta 2021erako %16,8koa espero da, eta %14,8koa 2022an; 2019an, berriz, %13,2koa izan zen. Espainian, bere aldetik, espero den igoera nabarmenagoa da: 2019ko %6,3tik 2020ko %18,2ra, 2021eko %15,3ra eta 2022ko %13,3ra.


Gordailuen gorakada berri horri esker, EAEko ekonomiak saldo positiboa eskuratu zuen ekonomiaren finantzaketan esku hartzen duten banku sistemako bi tresna nagusien artean, hau da, kredituen eta gordailuen artean. 2013. urtetik, balioak ia berdindu baitziren urte horretan, saldoa gordailuen aldekoa izan da. 2020an beste errekor bat erregistratu zen, gordailuek 21.707 milioi eurotan gainditu zutelako kredituen kopurua.

**Kredituen eta gordailuen alderaketa. BPGaren %**  
**34. irudia**

Kredituak guztira eta gordailuak guztira (BPGaren %)



Kreditu pribatuak eta publikoak (BPGaren %)



Iturria: Espainiako Bankua eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Kredituen bilakaerari dagokionez, bankuen sektoreak finantzaketa oparoa eman zuen krisialdian zehar; familien eta enpresen likidezia beharrak nabarmen handitu ziren testuinguru batean, diru sarrerak murriztu zirelako. Pandemia eta berari lotutako murrizketak agertu izanaren ondorioz, Estatuak abal lerro batzuk abiarazi zituen (ICO Covid-19), kreditua eskuratzea errazteko eta enpresei eta autonomoei likidezia emateko, Covid-19ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egin ahal izateko. Sektore pribatuak, pandemiak izango zuen bilakaera ez zekienez eta negozioak itxi behar izan zituenez, laguntza horiek masiboki eskatu zituen, eta sektorearen zorpetzea %1,8 handitu zen. Sektore publikoak, beste aldetik, hainbat neurri eta laguntza pakete atera zituen, eta euren zorra ere nabarmen handitu zen (%7,0). Horren guztiaren ondorioz, zorpetzea 70.155 milioi eurotik gora hazi zen.


Pandemiak bere horretan jarraitzen du, eta horrek ondorio negatiboak eragiten ditu enpresen diru sarreretan, batez ere krisiak gehien kaltetutako jardueretan. Izan ere, azken hiruhilekoetan enpresen zorpetzea handitu den testuinguru batean, batzuen bideragarritasuna arriskuan jartzen du, inbertsio eta enplegu planak mugatzen ditu, eta finantzaketa baldintzak okertzeko arriskuan jartzen ditu. Familien kasuan, aurrezki tasa handitzeak eta kreditu bolumena maila agregatuan




murrizteak ezkutatu egiten du finantza hauskortasunaren maila nabarmen handitu duten segmentuak daudela.

**Kredituen bilakaera**  
**35. irudia**


Arlo publikoari emandako kredituak. Aldakuntza tasak




Arlo publikoari emandako kredituak. Milioi euro



Arlo pribatuari emandako kredituak. Aldakuntza tasak



Arlo pribatuari emandako kredituak. Milioi euro




Iturria: Espainiako Bankua.

2020. urtea etxebizitzaren merkatuaren goranzko bidearekin amaitu zen, Sustapen Ministerioak argitaratutako estatistiketatik ondorioztatzen denez; haren erregistroaren arabera, 2020an 20.689 eragiketa egin ziren, hau da, 2019an formalizatutakoak baino %12,5 gutxiago. Martxotik maiatzera bitartean etxebizitzaren salerosketan izandako transakzioen geldialdiak nabarmen baldintzatu zuen bilakaera hori. Hala eta guztiz ere, kopuru hori azken hamar urteetako batez bestekoaren (18.419) oso gainetik dago.


Hala ere, higiezinaren merkatuarentzat 2020a urte zaila izan bada ere, hipoteken merkatuarentzat ona izaten amaitu da, oso baldintza onak izan baititu. Hala jasotzen dute INEk etxebizitzaren gaineko hipotekei buruz argitaratu dituen estatistikek, %1,5eko igoera jaso baitzuten. Zehatzago esanda, iaz 19.254 hipoteka formalizatu ziren, 2.836,3 milioi euro guztira, 2011tik izandako zenbatekorik handiena baita. Estatu osoan, hipoteken eraketak %7,6 egin zuen behera, 333.721 sinadurara iritsi arte, eta horrek sei urteko goranzko joera eten zuen.

### ***Etxebizitzaren hipoteken bilakaera. Mila*** ***36. irudia***

Formalizatutako hipoteken batez besteko zenbatekoa



Formalizatutako hipotekak




Iturria: INE.

Euriborraren bilakaera, 2020an zehar, bat etorri zen EBZren interes tasei buruzko mugimenduekin eta erabakiekin. Hasiera batean, pandemiaren ondorioz berankortasun tasak gora egin


zezakeenarekiko mesfidantzak eta Europako bankuen ahultzeak euriborrak gora egitea eragin zuen, maiatzean  $-\% 0,081$ era iritsi arte. Maila hori ez zen ikusten 2016ko abendutik. Ekainean hasi zen jaitsiera, eta 2021eko urtarrilera arte iraun zuen, orduan euriborrak  $-\%0,5$ etik behera kotizatu baitzuen, adituek naturaltzat jotzen duten lurzorua gaindituz, EBZk bankuei beren kutxetan dirua gordetzen dutenean aplikatzen dien gordailu tasa baita. Une horretatik aurrera, indizea egonkortu egin da.

### Interes tasen bilakaera 37. irudia

12 hileko euriborra



Hipoteken interes tasak



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Euriborraren murrizketa horrek interes tasa aldakorrak beherantz baldintzatu zituen, eta 2020an, batez beste,  $\%2,23$ an kokatu ziren. Hala ere, tasa finkoak ere beheranzko bideari eutsi zion, eta 2020an  $\%2,89$ an itxi zuen, minimo berri batean, eta tasa aldakorra baino 0,66 puntu gorago soilik. EAEko eragileek arriskuarekiko duten ezinikusiak, ekonomia eta osasun egoera zalantzarriak, banku erakundeek tasa finkoko hipotekak sinatzea sustatzeko aurkeztutako pizgarriek (errentagarritasun handienetakoak), eta bi tasen arteko diferentzial txikiak tasa finkoan formalizatutako hipoteken beste igoera bat ekarri zuten. Zehazki, hipoteken  $\%48$  tasa finkoan formalizatu ziren. 2021eko lehen hiruhilekoan, ehuneko hori  $\%54,1$ ekoa izan zen, eta lehen aldiz, tasa aldakorreko hipoteken gainera kokatu zen.

### 3. ETORKIZUNeko ERRONKAK

#### 3.1 Euskadi Next: herrialdea eraldatzeko proposamena

Covid-19ren pandemiak sortutako krisia eraldaketarako aukera gisa hartu behar da. Gizartea eraldatzeko aukera bat, kontsumotik inbertsiora, garapen jasangarriaren erronkei aurre egiteko, susperraldiaren, eraldaketaren eta erresilientziaren ikuspegitik. Gogoan izan behar da Atzeraldi Handiaren ondoren gertatu zen zerga baterakuntzaren ondorioz inbertsio publikoa %40 inguru jaitsi zela, eta BPGaren ehunekoa %1,1ean utzi zela, serie historikoko gutxieneko ehunekoa baita. Une hauetan, inbertsio publikoak susperraldiaren, eraldaketaren eta erresilientziaren eragile gisa jardun behar du. Inbertsio publikoaren aldeko apustu horren erakusgarri, adierazi behar da Eusko Jaurlaritzaren 2021erako aurrekontuetan %6,4 gehiago bideratzen dela inbertsio publikora eta %9,7 gehiago ikerketara eta garapenera (I+G).

Illo horretan, Europako erakundeek sustatutako Next Generation UE ekimena aukera bat da inbertsio publikoaren aldeko apustuari heltzeko, garapenaren motor gisa, Europar Batasunak egin nahi dituen eraldaketa energetiko, ekologiko eta digitalen barruan. Horrela, Next Generation UE proposamenaren ondoriozko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak (MRR) aldaketa energetiko ekologikoaren erronkarantz jotzen du, klima aldaketaren ondorioak arintzeko. Erronka digitalari ere begiratzen zaio, Europar Batasuna modernizatzeko palanka gisa. Mekanismo horren bidez, Espainiak 70.000 milioi euro jasoko ditu transferentzietan.

Euskadi Next 2021-2026 programa Euskadiren hausnarketa kolektiboa da, autonomia erkidegora iritsiko diren Next Generation EU funtsen aprobetxamendu eraginkor eta efizientea lortzeko. Euskadi Next Covid osteko aroari aurre egiteko erronkari emandako erantzuna da, ziur baikaude

aurreko *normaltasunera* itzultzea ez dela desiragarria, ez dela bideragarria eta ezta egingarria ere. Egia da aurrean ditugun erronkak pandemia baino lehen ere bazeudela, baina egia da, era berean, pandemiak eraman gaituen katarsi indibidual eta kolektiboak balio behar digula onartzeko orain arte ekarri digunaz bestelako kontzientzia maila batetik jardun behar dugula.

Next Generation EU ekimena aukera bat da inbertsio publikoaren aldeko apustuari ekiteko, ekimen pribatuaren garapenerako eta palanka efekturako motor gisa, Europar Batasunak egin nahi dituen energia eraldaketa ekologiko eta digitalen konplexutasunari heltzeko. Euskadi Next pentsatuta dago mundu hobea uzteko ardura dugun hurrengo belaunaldien oparotasunerako eta aurrerapenerako oinarriak ezartzeko. BPGaren hazkundeari dagokionez, susperraldi hutsak ez du bermatzen behar den eraldaketa. Beraz, oso garrantzitsua da funtsak aplikatzeak lehenetsuna ematea eraldaketari eta erresilientziari, eredu ekonomikoaren benetako eraldaketa ekarriko duten proiektuak hautatuz.

Euskadi eraldaketa palanka gisa duten indarguneetan zentratutako planteamendu estrategikoari erantzuten dioten eta misioaren ikuspegiarekin orientatzen diren proiektuak dira. Izan ere, planteamendua Mazzucatok Europako Batzordeari proposatu zizkion misioen antzekoa izan liteke, oraingoan gizateriak datozen urteetan izango dituen erronka handiei begira: planetaren berotzea, digitalizazioa eta gizartearen eta lurraldearen arteko oreka, Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuetan islatuta geratzen dena.

Printzipio horietan oinarrituta, Euskadi Nextek esku hartzeko egitura bat planteatzen du, piramide formako proiektuetan oinarrituta:

Lehenik eta behin, beren misio ikuspegiagatik enblematikoa den ekimen gisa, estatuko Ekonomiaren berreskurapenerako eta eraldaketarako proiektu estrategikoak (EBEPE) egongo lirateke, 36/2020 Errege Lege Dekretuak jasotzen duen bezala, estatu osoko sektore estrategikoetan jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa bultzatzeko eremu gisa ulertuta, eta EBko IPCEletan inspiratuta, balio kate osoa arrastatzeko gaitasunarekin, teknologikoki puntakoak, baina merkatuko akatsak gainditzeko premiarekin, hain zuzen ere, heldutasun premiagatik. Beste premia batzuei aurre egitea, hala nola etengabeko prestakuntzari, unibertsitate prestakuntzari, lanbide heziketari eta abarri. Euskaditik, enpresak, zientzia eta teknologia eragileak eta gizartea bera prest daude estatuko EBEPEekin lerrokatzeko eta ehunaren eraldaketa erradikalari laguntzeko.

- Estatuko EBEPE 1: automobilgintza berde eta konektatuaren industria. Euskadik, besteak beste, automobilgintza adimendunaren industria artikulatzen du, industria sektore bat eraikitzen du batera elektrikoaren balio katean, gaitasun berriak eta indartsuak garatzen ditu balio erantsi handiko nitxoetan (gidatze autonomoa), mugikortasun azpiegituren sarea eskakizun berrietara egokitzen du, eta mugikortasun adimenduneko, berdeko eta maila guztietan konektatutako proiektu pilotua abian jartzen du.
- Estatuko EBEPE 2: hidrogeno berdearen bidezko energia sorkuntza. Euskadik hidrogenoaren aldeko apustua egiten du, proiektu industrial garrantzitsuekin, hidrogenoaren ekoizpenaren eta erabileraren balio katean aberastasuna sortzen duen sektore berri bat irekitzea bilatzen dutenak, energia sektore berde berri gisa.
- Estatuko EBEPE 3: Industria aeroespaziala. Euskadik bere gaitasunak ematen laguntzen du, bai aeroegituren bai motorren fabrikazio kate integralean zehar.
- Estatuko EBEPE 4: Nekazaritza jasangarria eta eraginkorra. Euskadik nekazaritzako elikagaien ekosistema seguru, iraunkor, osasungarri eta digital berritu bat egituratzen laguntzen du, munduan erreferentzia diren baliabide erabilgarri garrantzitsuak ahalik eta gehien aprobetxatzen dituen eta bioekonomiaren esparruan kokapen pribilegiatuaren alde egiten duena.
- Estatuko EBEPE 6: punta-puntako osasun sistema nazional bat garatzea. Euskadik terapia aurreratuak bizkortzearen eta ezartzearen aldeko apustua egiten du, bai eta bere osasun sistema eraldatu, egokitu eta digitalizatzearen aldekoa ere.

Bigarrenik, Euskadik beste proiektu traktore batzuk ere baditu, *Eskualdeko EBEPEaren* kontzeptuarekin bat datozenak. Kontua da EBEPE mekanismoa artikulatzea, estatuko EBEPEetan jasota ez dauden baina espezializazio adimenduneko estrategien esparruan autonomia erkidegoen mailan indarguneak ordezkatzen dituzten eremuetarako. Euskadiren kasuan, RIS3 Euskadi estrategia.

- Eskualdeko EBEPE 1: bizitza luzea, ongizatea eta erresilientzia. Ekimen eraldatzaileen multzo bat biltzen du, pertsonak zaintzeko ereduaren iraunkortasun sozial eta ekonomikoa bermatzeko, biztanleriaren zahartze eta bizitza luzetasun handiagoko testuinguru demografiko batean. Horretarako, politiketan eraldaketa sakona sustatzen da, eta horrek eragina du genero ikuspegian, arreta eta zaintza eredu berrietan, sistemetan, zerbitzuetan, produktuetan eta eragileen arteko lankidetzan. Gizarte berrikuntzako proiektu bat,

lankidetzan publiko-publikoarekin, publiko-pribatuarekin (enpresak eta hirugarren sektorea) eta ezagutza zentroekin.

- Eskualdeko EBEPE 2: banaketa adimenduneko sareak (ura, gasa eta elektrizitatea). ENERGIBASQUE euskal estrategia teknologikoan ditu sustraiak. Estrategia horrek zazpi teknologia lehenesten ditu, Euskadiko industria, teknologia eta ikerketa sarearen indarrak kontuan hartuta. Energia elektrikoaren garraioaren eta banaketaren esparruan, sare adimendunak edo *smart grid* hautatu dira, Euskadiko sektore elektrikoa munduko erreferente gisa kokatzeko. Beste *utilities* batzuen banaketaren esparruan (gasa, ura, etab.), EBEPE erregional honek sektore honen eta ezkutuko txapeldunen lehiakortasuna garatzen jarraitu nahi du.
- Eskualdeko EBEPE 3: itsas jatorriko energia berriztagarriak. Euskadi eskualde liderra da olatuen energiaren garapenean, industria ehunaren eta intentsitate teknologikoaren eta baliabide undimotorren arteko konbinazioari esker. Horren ondorioz, euskal kostaldea leku ezin hobea da mundu osoan olatuen energia sortzeko gailuak garatzeko eta probatzeko.
- Eskualdeko EBEPE 4: gaitasun zientifikoa eta teknologikoa. Oinarrizko zientzia, zientzia aplikatua eta garapen teknologikoa bultzatuko dituen eskaintza zientifiko teknologikoaren garapenean aurrera egiten jarraitzeko beharrari erantzuten dio. Ildo horretan, beharrezkoa da zientziaren eta teknologiaren aldeko apustuak dakarren potentzialari balioa ematea, ekonomian eta gizartean *spillover*-ak sortzeko iturri baita, eta horiek ezin dira beti hauteman hedapenaren trazabilitate lineala jarraitzen denean.
- Eskualdeko EBEPE 5: Big Data, cloud, adimen artifiziala eta zibersegurtasuna. Erantzuna ematen dio pertsonen gizartearen barruan erabateko jarduna izateko beharrezkoak diren gaitasun digitalak emateko beharrari; industria adimendunaren garapenean aurrera egingo duen merkatu digital globalizatu batean produkzio sare lehiakor bat garatzen laguntzeko beharrari; eta bere funtzioa modu gardenagoan, parte hartzaileagoan eta gizarte eta lurralde balio gero eta handiagoko zerbitzuekin hobeto beteko duen administrazio digital bat antolatzeko beharrari.
- Eskualdeko EBEPE 6: Euskadi sortzailea. Euskal Autonomia Erkidegoko kultura eta sormen-industrien (KSI) sarea osatzen duten kultura eta sormen enpresen egungo artxipelagoa sendotzeko eta hedatzeko erantzun egituratzailea da.
- Eskualdeko EBEPE 7: hiri jasangarriak. Hiri berroneratzeari ikuspegi integral batetik heltzen dio, iraunkortasuna barne hartzen duten alderdi guztiak (sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak) kontuan hartuta. Ikuspegi horren helburua hirukoitza da. Batetik, Euskadi

lurralde orekatua, kohesionatua eta jasangarria izatea lortu nahi du. Bestalde, lurralde plangintzan eta hiri berroneratze integralean eskuratutako ezagutza indartu nahi du, eta Euskadiko Espezializazio Adimenduneko Estrategia (RIS3) garatzea ahalbidetu nahi du, hiri berroneratze integralean I+G+b aplikatzearen bidez, eta, azkenik, Euskadi Europako erreferente gisa kokatu nahi du hiri-berroneratze integralari dagokionez, herritarren parte-hartzea izaera berritzailearen bektore izan dadin.

- Eskualdeko EBEPE 8: klima aldaketarekiko erresilientzia, ekosistemak eta biodibertsitatea. Euskadin proiektio eraldatzaile handiena duten proiektuak biltzen ditu, bai hondamendi naturalen aurrean erresilientzia hobetzeari dagokionez, bai ekosistemak eta haien biodibertsitatea kontserbatu eta lehengoratzeari dagokionez. Horretarako, beharrezkoa da uraren ziklo integrala kontuan hartzea.
- Eskualdeko EBEPE 9: ekoberrikuntza. Ekonomia zirkularraren erronkari erantzuten dio, ekodiseinuari, "iraunkortasunerako zerbituzioari", konponketa aurreratuari eta osagai eta ekipoen birmanufakturari helduz, bai eta materialen eta energiaren xahuketa prebenitzeari ere, erabilera jasangarria eta birziklatzea lehenesten baitira. Bereziki, Euskal Herrirako funtsezkoak diren bi korrante: metalak eta plastikoak.

Hirugarrenik, Euskadi Nextek diru laguntzen deialdiak eta politika publikoak hedatzeko beste tresna tradizional batzuk ezartzen ditu, hala nola partaidetza maileguak, kapitalean parte hartzea (Luzaro, Finkatuz, etab.), gastu fiskala, eta abar Horiei gehitzen zaizkie, halaber, lizitazioak, erosketa publikoak, teknologia berritzaile eta berdearen erosketa publikoak, administrazioek berek azpiegiturak, ekipamenduak eta abar hornitzeko dituzten eskumenak garatzeko gauzatzen dituztenak.

Jarraian, Euskadik eraldaketaren ikuspegitik dituen erronka nagusiak azalduko ditugu: eraldaketa energetiko-ekologikoa, eraldaketa digitala eta erronka demografikoa eta soziala.

### **3.2 Energia eraldaketa ekologikoa**

Klima-aldaketari aurre egiteko beharraren ondoriozko trantsizio energetiko-ekologikoa eraldaketa erradikalak dakartza, bai energiaren ekoizpenean eta eraldaketan, bai produktuen ekoizpenaren



eta kontsumoaren balio kate guztietan. Ekoizteko modu berriak, banatzeko modu berriak eta gizarte osoa inplikatzeko duten kontsumo jarraibideetan aldaketak.

Europak asmo handiko helburuak ditu. Berotegi efektuko gasen isurketak gutxienez %40 murriztea (1990. urtearekin alderatuta), gutxienez %32ko kuota energia berriztagarrietan eta gutxienez %32,5eko hobekuntza energia eraginkortasunean. Klimari buruzko Europako Lege berriak oso litekeena da helburu horiek indartzea, 2050ean Europa zero isurketa garbi dituen ekonomia bihurtuko dela ziurtatzeko<sup>6</sup>.

Euskadirentzat, helburu horiek energia sistema lehenbailehen eraldatzeko bidea eskatzen dute, eta bide hori bateragarria izan behar da, alde batetik, industriaren aldeko apustuarekin, ekoizpen sarearen lehiakortasuna bultzatzearekin eta pertsonen ongizatea mantentzearekin. Bestetik, sektore berriak garatzea eta aukera berriak aprobetxatzea.

Trantsizioak berekin dakar garraioa, industria eta eraikuntza sektorea deskarbonizatzea, energia berriztagarriak elektrifikatzea eta gero eta gehiago banatzen den eredu berri batean sartzea, berriztagarrien teknologia berriak garatzea, garraioa elektrifikatzea, karbonoa harrapatzea, *smart grid*-ak eta energia eraginkortasuna eta ekonomia zirkularra bultzatzea. Erronka horiei zientzia, teknologia eta industria eraldaketarekin berez lotutakoak gehitzen zaizkie, balio kate batzuk birbideratzeko eta garapen potentziala eta sinergia berriak aprobetxatzeko, hala nola potentzia elektronikoa, energia berriztagarriak, mugikortasun elektrikoa edo energia-bektore berriak, esate baterako bateriak eta hidrogenoa.

Nahiz eta ahalegin global gehienak berotegi efektuko gasen isurketak murrizteari lotutako neurrietara bideratzen diren, berotze globala murrizteko; klima aldaketara egokitzea ere ezinbestekotzat jotzen da klima politikan. Parisko Akordioak berak, 2015ean onetsitakoak, bi helburu jasotzen ditu 2. artikuluan: a) berotegi efektuko gasen isurketak murriztea (BEG) eta b) gure gizarteak klima aldaketaren inpaktuei aurre egiteko duen erresilientzia eta egokitzeko gaitasuna hobetzea.

Euskadin, Basque Green Deal (BGD) onesteak bultzatzen du trantsizio energetiko-klimatikoa, Eusko Jaurlaritzak etorkizun iraunkorragoa lortzeko ezarri duen ekonomia eta ingurumen ibilbide orria,


---

<sup>6</sup> Batzordeak Klimari buruzko Europako lehen Lege bat proposatu zuen, eta, besteak beste, EBren helburu berri bat proposatu zuen 2030erako: berotegi efektuko gasen isurketak gutxienez %55 murriztea, 1990eko mailekin alderatuta.

Europako Itun Berdearen ildotik. Itun horren helburua da Europar Batasuna ekonomia moderno, baliabideen erabilera efiziente eta lehiakor bihurtzea, 2050ean berotegi efektuko gasen emisio garbiak egiteari utzi izana bermatuz, hazkunde ekonomikoa baliabideen erabileratik bereizita egotea eta erronka handi horretan atzean geratzen den pertsonarik edo tokirik ez egotea bermatuz. Basque Green Deal bat dator 2030erako Euskadiko Energia Estrategiarekin eta 2050erako Klima Estrategiarekin.

Trantsizio energetiko klimatiko horren anbizioak eskatzen du eragile pribatu eta publiko guztien konpromisoa eta erakundeen arteko lankidetzeta bizia. Ildo horretan, Alkateen Ituna eta Udalsarea bezalako ekimenak trantsizioaren funtsezko elementuak dira. Klima eta Energiarako Alkateen Ituna klima ekintzaren aldeko mugimendurik handiena da mundu osoan, eta mundu osoko 10.000 herri baino gehiago biltzen ditu.

**Ebaluatutako klima aldaketara egokitzeko estrategien mota eta ikuspegia**  
**38 irudia**




Iturria: Ribeiro et al. (2008): Design of guidelines for the elaboration of Regional Climate Change Adaptations Strategies. Final Report. Ecologic Institute, Berlin [www.ecologic.eu](http://www.ecologic.eu)

Gaur egun, Euskadiko hogeita bat udalerrri daude itun horri atxikita, tokiko eremutik trantsizio energetikoa eta klimatikoa jorratzeko<sup>7</sup>. Udalerrien deskarbonizazioa bizkortzea, klima aldaketaren eraginetara egokitzeko gaitasuna indartzea eta herritarrek energia segurua, jasangarria eta merkea eskuratzeko aukera izan dezaten lortzea dira udalerrri horiek 2050ean lortu nahi dituzten helburuetako batzuk.

Aurreko mapan ikus daitekeenez, Euskadi eskualde mailako egokitzapen estrategia propioak dituzten eskualdeen taldean dago, eta estrategia horiek arintze eta egokitze neurrietara bideratuta daude. Europako beste eskualde batzuek ere, hala nola Bavariak, Baden-Wuttenberge, Hanburgok eta Utrechtek, horrelako egokitze eta arintze estrategiak jarri dituzte martxan. Tokian-tokian, EAEko hiru hiriburuek, udalerrri askorekin batera, arintze eta egokitze planak abiarazi dituzte. Frantzia eta Erresuma Batua dira plan horiek dituzten hiri gehien dituzten herrialdeak

**A1 eta A2 motako tokiko klima politiken eta planen egoera Europar Batasuneko 885 hiritan  
39 irudia**



A1 eta A2 motak: hiri eremu osorako garrantzitsuak diren Tokiko Klima Planak sartzen dira kategoria honetan, eta horiek klima aldaketari emandako erantzuna identifikatzen dute plana sortzeko motibazio nagusitzat.

Iturria: D. Reckien et al. (2018): Journal of Cleaner Production 191 (2018) 207-219.

<sup>7</sup> Hauek dira atxikitako udalerrriak: Abanto-Zierbena, Amurrio, Balmaseda, Basauri, Bilbo, Donostia, Durango, Eibar, Erreterria, Hondarribia, Irun, Ispaster, Legazpi, Mungia, Muskiz, Oñati, Portugalete, Sestao, Tolosa, Usurbil eta Gasteiz.

**Egokitzeko neurrien adibideak eta horiek sailkatzeko irizpideak**  
**34 taula**

| Irizpidea  | Sailkapena   | Adibideak   | Euskadin aplikatutako neurri zehatzak   |
|--|--|---|---|
| Parte hartzen duten eragileen izaera   | Egokitzapen publikoa edo pribatua                                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Egokitzapen publikoa gobernua egokitzapena babesteko esku hartzen duenean gertatzen da.</li> <li>Egokitzapen pribatua gertatzen da neurriak gizabanakoek edo erakunde pribatuek ezartzen dituztenean.</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Deustuko kanala irekitzea</li> <li>Uholdeen aurkako aseguruak</li> </ul>   |
| Espazio eskala   | Tokioa edo orokorra  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Tokiko egokitzapena tokian (edo eskualdean) ezarritako aukerei edo neurriei dagokie, hala nola babes azpiegitura jakin bat eraikitzea.</li> <li>Klimarekin lotutako eraginez edo alerta goiztiarreko sistemaz arduratzen diren osasun planak egokitzapen orokorraren adibide dira.</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Ibai ibilguak handitzea (Urumea, Gobela, Zadorra, Cadagua, Batan)</li> <li>Fenomeno meteorologikoen alerta goiztiarren zerbitzua, "112 alderantzizkoa". Klima aldaketaren ondorioekin zuzenean lotutako hilkortasunari buruzko azterlana (Klimatek Foroa, 2017)</li> </ul>   |
| Denbora eskala   | Epe laburrerako edo luzerako neurriak                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>Epe laburrera egokitzeko neurriak: premiazko neurriak, aldaketaren ondorioak eta egungo klima aldakortasuna saihesteko edo arintzeko.</li> <li>Epe luzera egokitzeko irtenbideek urrakortasuna murrizten dute eta erresilientzia areagotzen, epe luzera espero diren inpaktuei aurre egiteko.</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Nekazaritza aseguruak (mahatsondoak, zerealak, bazka)</li> <li>Lurraldeko programa operatiboak</li> </ul>  |
| Neurri mota  | Azpiegitura, portaera, instituzionala, finantzarioa edo informatiboa | <ul style="list-style-type: none"> <li>Azpiegiturak klima aldaketaren eraginari aurre egiteko eraikuntzak eta irtenbide teknikoak dira.</li> <li>Jokabide aukerak jokabideak aldatzera bideratutakoak dira. Klima aldaketari erakundeek emandako erantzunen artean politikak, planak eta beste neurri arautzaile batzuk daude.</li> <li>Finantza aukeretan egokitzapenerako pizgarri ekonomikoak edo fiskalak sartzen dira.</li> <li>Informazio sistemak, alerta goiztiarrekoek adibidez, inpaktu jakin batzuei aurre egitea ahalbidetzen duten datuak ematen dituzte.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Kostaldeko dikeak indartzea (Orio, Bermeo, Zumaia)</li> <li>Nekazaritza praktikak edo metodoak aldatzea (ureztatze sistemak, lur errotazioa, landareen konbinazioa).</li> <li>Ingurumen inbertsioengatik eta ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko proiektuei lotutako gastuengatikoen kenkaria (Foru aldundiak)</li> <li>ClimAlert alerta goiztiarreko zerbitzua</li> </ul> |
| Ziurgabetasunari aurre egiteko eta/edo lotutako beste onura batzuei heltzeko gaitasuna | Damu baxua edo damurik gabeko neurriak; win-win neurriak             | <ul style="list-style-type: none"> <li>Damurik ez izateko neurriak (ez regret) onura garbiak dira, baita klima aldaketarik ez dagoenean ere. Aitzitik, damu gutxiko edo low regret neurriek kostu txiki samarrak eta onura handiak dituzte. Win-win neurriek edo elkarren onurarako neurriek, egokitzapenean laguntzeaz gain, beste onura batzuk ematen dituzte gizartean, ekonomian edo ingurumenean.</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Ez erregret: fenomeno meteorologiko kaltegarrien nahierako zerbitzua (Euskalmet)</li> <li>Low regret: Nekazaritza Ekosistemen Osasun Txartelak (Neiker).</li> <li>Win-win: naturan oinarritutako egokitzapen-neurriak (biharko erroak programa: 250.000 zuhaitz Gasteizko Eratzun Berderako, zuhaitz-landaketak Bidasoa-Txingudi, Barbadun, Lea ibaiertzetan).</li> </ul>      |

Iturria: Sainz de Murieta et al. Ekonomiaz 97. zk. (2021).

### 3.3 Eraldaketa digitala

Hamarkada digitalean murgilduta gaude. Digitalizazioaren hedapen azkarra du ezaugarri, bai jarduera arlo guztietan, bai gizartean, eta horren arrazoiak bilatu behar dira gizartearen gero eta *datifikazio* handiagoarekin, teknologiaren hibridazioarekin eta agertzen diren negozio aukeren potentzialarekin, dela produktibitatea hobetzearekin eta ohiko negozioetan kudeaketa moduak eraldatzearekin, dela lotutako nitxo eta enpresa aukera berriak agertzearekin. Teknologia gero eta disruptiboagoak sartzen ari dira, hala nola adimen artifiziala, Big Data, Gauzen Internet, Cloud Computing, robotika kolaboratiboa edo 5G, besteak beste.

2020an zehar, Covid-19ren pandemiaren ondorioz, digitalizazioaren prozesua izugarri bizkortu da bitarteko teknologiko digitalak azkar hartu direlako (telelanaren eta bideokonferentzien praktika zabaldu zenetik), ezarritako urruntzeari eta mugikortasuneko murrizketei erantzuteko, aurreko hamarkadatik garatzen eta nabarmentzen ari zen online kontsumoaren ezarpenari gehitu baitzaizkio.


Covid-19tik eratorritako normaltasun berriak agerian uzten du teknologia digitalek paper nagusia izango dutela etorkizunaren eraikuntzan. Gure lan egiteko modua eta harremanak aldatzea aurrera egiten ari garen eraldaketa digital handiaren parte dira. Erronka horri aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Eraldaketa Digitalerako 2025 Estrategia (ETDE2025) du, tresna gidari gisa. ETDEk aurreko legegintzaldietako agenda digitalen lekukoa jasotzen du, eta eraldaketa digitalerako eredu berri bat definitzen du, EAEko administrazio publikoaren eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko harremana ulertzeko eta gauzatzeko beste modu bat, erronka globalei elkarrekin aurre egin ahal izateko.

Estrategia horri osasunarekin, hezkuntzarekin, ingurumenarekin eta garapen ekonomikoarekin lotutako eremu espezifikoetan digitalizazioa bideratzen duten beste plan batzuk gehitu behar zaizkio. Horien artean, 2021-2024 aldirako Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plana nabarmentzen da, digitalizazioak eskaintzen dituen aukerak baliatuz 4.0 industria sustatu nahi duena.

Digitalizazio jardueraren adierazleei dagokienez, DESI (Digital Economy and Society Index) adierazle sintetiko europarrak ekonomiaren eta gizartearen digitalizazio maila aztertzen du, eta Euskadi Europako beste herrialde batzuekin alderatu ahal izateko balio du. Indize hori bost dimentsiok osatzen dute: konektagarritasuna, giza kapitala, Interneteko zerbitzuen erabilera, teknologia

digitalaren integrazioa eta zerbitzu publiko digitalak. DESI adierazlea Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuak kalkulatu du Euskal Autonomia Erkidegorako.

**DESI 2020 adierazlea. Dimentsioen eta herrialdeen arabera**  
40. irudia



Iturria: Euskadiko Ekonomia eta gizarte digitalak. DESI 2020. Orkestra.

Europako herrialdeekin alderatuta, EAE zazpigarren postuan dago EB-28ren barruan, iparraldeko herrialdeak buru dituen talde aurreratu baten barruan, baina Alemania edo Frantzia bezalako herrialde garrantzitsuen aurretik.

Adierazlea osatzen duten bost dimentsioetako bakoitzean aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

1. *Konektagarritasunari* dagokionez, EAE herrialde liderren artean dago, banda zabal finkoaren ezarpenari eta estaldurari buruzko datu onen ondorioz.



2. *Giza kapitalean* gorabeherak daude; portaera desberdina dago tresna digitalen erabilerara bideratutako gaitasunen artean (tarteko emaitza), prestakuntza-gaitasun handiarekin eta IKTen arloko espezializazioarekin batera..



3. *Etxeetan Interneteko zerbitzuak* erabiltzeari dagokionez, EAEko emaitza baxuak daude (batez ere erosketa eta salmenta elektronikoak).



4. Enpresek *teknologia digitala integratzearen* ondorioz, zazpigarren postuan dago EAE. Euskal enpresen digitalizazio-maila handia bada ere, ETEen merkataritza elektronikoa ez da maila ertainera iristen..



5. *Zerbitzu publiko digitalei* dagokienez, EAE seigarren postuan dago. Zerbitzuen digitalizazioa batez bestekoaren gaineratik dago eta datu irekien hobekuntza nabarmena dago aurreko urteekin alderatuta.




Euskadik, beraz, pultsu digitalari eutsi dio Europan, eta oso posizio nabarmenak ditu gaitasun handiko sare finakoaren estaldurari, IKTetan graduatutako pertsoneri edo informazioaren truke elektronikoari eta enpresek gizarte baliabideak erabiltzeari dagokienez.

DESI 2020ren emaitzek, 2018koekin alderatuta, adierazten dute Euskadiko digitalizazio sozial eta ekonomikoak aurrera egiten jarraitzen duela, eta digitalizazioan aurreratutako herrialdeen taldean sendotzen ari dela.

Indargune nagusien artean, Euskadik trantsizio digitalerako palanka handiak dituela nabarmendu behar da. EAEko gizartearen eta ekonomiaren digitalizazioak hazkunde egoki, egonkor eta sendotuaren bidetik jarraitzen du, eta horretan lagundu dute digitalizazioa bultzatzeko ezarri diren politikek. Konektibitateak eta zerbitzu publiko digitalek hazkundearen eta posizio onenen euskarri izaten jarraitzen dute, eta enpresetan teknologia digitala txertatzeak emaitza on horiek sendotzen ditu. Hala eta guztiz ere, emaitzak ikusita, beharrezkoa da EAEk aurrera egiten jarraitzea giza kapitalean eta interneteko zerbitzuen erabileran.


**DESI 2020 adierazlea. Dimentsioen arabera. EAE eta EB-28**  
**41. irudia**




Iturria: Euskadiko Ekonomia eta gizarte digitalak. DESI 2020. Orkestra.

**Digitalizazio mailaren adierazle nagusiak**  
**42 irudia**

Banda zabalerako sarbidea duten etxeak (%)




Internet erabiltzeko maiztasuna (%)



Iturria: Eurostat.



**Administrazio publikoekiko izapide elektronikoak (%)**  
43 irudia



Iturria: Eurostat.

### 3.4 Eraldaketa demografiko soziala

1990ean Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) progresoa ulertzeko eta neurtzeko beste modu bat sortu zuen. BPG garapenaren neurri gisa soilik erabili beharrean, NBPGak munduko herrialdeak sailkatu zituen giza garapenaren mailaren arabera, herrialde bakoitzean bizi diren pertsonen nahi duten bizitza egiteko askatasuna eta aukera duten aztertuz. Hogeita hamar urte geroago, NBEren ekimenak giza aurrerapenari buruzko indize esperimental berri bat jasotzen du, non herrialdeen karbono dioxidoaren emisioak eta aztarna materiala integratzen diren (munduan lehengaiak erazteko neurri bat, eskaera nazionalari erantzuteko).

Presio planetario horiek doituako giza garapenaren indizeak (GGI) argi erakusten du zer eraldaketa gerta litekeen garapenaren eremuan, baldin eta pertsonen ongizatea eta planetaren osotasuna giza aurrerapenaren definizioaren giltzarritzat hartuko balira. Eta, zentzu horretan, giza aurrerabideari buruzko ikuspegi ez hain idilikoa eta zintzoagoa duen mundu mailako panorama berri bat plazaratzen du. Adibidez, 50 herrialde baino gehiagok giza garapen oso altuko taldea uzten dute, erregai fosilekiko duten menpekotasunaren eta bere aztarna materialaren isla gisa.

Euskadik ia ez du aldaketarik izan bere egoeran, erreferentziazko 189 herrialdeen aldean. Izan ere, postu bakarra aldatzen da 2019ko GGIaren rankingarekin alderatuta. Zehazki, EAEko gizartea planetako garatuenen artean kokatzen du. Espainia 25. postuan dago NBPGren txostenean, 0,904ko GGIarekin. Nigerrek 0,394 puntu ditu eta sailkapenaren azken tokian dago.

**Giza garapenaren indizea**  
**35. taula**

| Postua |             | %     | Postua    |                 | %            |
|--------|-------------|-------|-----------|-----------------|--------------|
| 1      | Norvegia    | 0,957 | 11        | Finlandia       | 0,938        |
| 2      | Irlanda     | 0,955 | 12        | Singapur        | 0,938        |
| 3      | Suitza      | 0,955 | <b>13</b> | <b>EAE</b>      | <b>0,937</b> |
| 4      | Hong Kong   | 0,949 | 14        | Erresuma Batua  | 0,932        |
| 5      | Islandia    | 0,949 | 15        | Belgika         | 0,931        |
| 6      | Alemania    | 0,947 | 16        | Zeelanda Berria | 0,931        |
| 7      | Suedia      | 0,945 | 17        | Kanada          | 0,929        |
| 8      | Australia   | 0,944 | 18        | Estatu Batuak   | 0,926        |
| 9      | Herbehereak | 0,944 | 19        | Austria         | 0,922        |
| 10     | Danimarka   | 0,940 | 20        | Israel          | 0,919        |


Iturria: Eustat eta Nazio Batuen Garapen Egitaraua (NBGE). 2020ko Giza garapenaren txostena. Euskadiren datuak behin-behinekoak dira.

2010-2019 aldian, Euskadiko GGIaren osagai guztiek hobera egin dute. Bizi itzaropena 82,4 urtetik 83,9 urtera igaro da, eta hirugarren postuan dago, Hong Kongen (84,9) eta Japoniaren (84,6) atzetik. Gauza bera gertatzen da espero den eskolatze urteen adierazleari dagokionez: 18,1 urtetik 18,6 urtera igaro da, eta autonomia erkidegoa ere lehen postuetan kokatu du, zehazki, bederatzigarren postuan. Batez besteko eskolatze urteei dagokienez, aipatutako aldian gora egin duten arren (10,2 urtetik 11,2ra), Euskadi 51 herrialdek gainditzen dute.

Bestalde, pobreziaren eta metaketa prekarietatearen egoeretarako hurbilketa pobreziari eta gizarte desberdintasunari buruzko inkestan oinarrituta egiten da. Inkesta horrek familien egoera aztertzen du, etxebizitzaren instalazio eta ekipamenduei eta haien ondare baliabideei (etxebizitza,

beste ondare ondasun batzuk, metatutako aurrezkiak eta ibilgailuak) buruzko bizi kalitatearen adierazle batzuei dagokienez. 2012tik aurrera, Europar Batasunak AROPE hurbilketa (At Risk Of Poverty and/or Exclusion) ezarritako gabezia adierazleen sistema ere kontuan hartzen da, metatze dimentsioan prekaritatea neurtzearekin lotutako gabeziak jasotzera bideratutako adierazleak txertatuta.

**Egoeren bilakaera pobrezia/ongizate errealearen eskalan. 2020**  
**PGDI adierazleak (2012ko hurbilketa)**  
**44. irudia**



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. PGDI (2020).


Horrela, PGDI metodoak ematen dituen pobrezia eta benetako ongizate gabeziaren adierazleek fenomeno horien benetako eraginera hurbiltzeko ahalegina egiten dute. Ondorio horietarako, PGDI biztanleria pobrezia/ongizate errealeko eskala batean kokatzeko aldagai bat mugatzen du, bost egoera bereizten dituena: pobrezia, ongizaterik eza, ongizate elementuekin konbinatutako arrisku elementuak, ongizate ia osoa eta erabateko ongizatea.

Pobrezia azterketari dagokionez, krisi handiaren ondorioz 2008-2014 aldiaren okerrera egin ondoren, 2018ko %6,1etik 2020ko %5,6ra hobetu da. Ongizaterik eza neurtzen duen adierazleak ere bilakaera positibo hori bera jasotzen du. Izan ere hiru puntu jaitsi zen 2018arekin alderatuta, %12,5etik %9,5era. Hori guztia hainbat neurri azaltzen dute, hala nola DSBEk, koronabirusaren

aurkako planek, gizarte larrialdietarako laguntzek eta ABEEek, beherakada arintzeko aukera eman baitute.

Beste herrialde batzuekiko konparazioari dagokionez, eta kontu metodologikoen eskatzen duten ondoriozko zuhurtziarekin, azpimarratu behar da Euskadi Europako batez bestekoaren (EB28) gainetik dagoela, Belgika edo Suedia bezalako herrialdeen antzeko mailekin.


**Pobreziaren edo bazterketa arriskuan dagoen biztanleriaren tasa. 2020**  
**45. irudia**



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saila. PGDI (2020) eta Eurostat.  
(\*) 2019ko datuak (\*\*\*) 2018ko datuak

Era berean, azpimarratzekoa da 2018 eta 2020 artean AROPE pobrezia eta bazterketa adierazleak izandako hobekuntza nabarmenaren dinamika. Hobekuntza hori lotuta dago, alde batetik, lan intentsitate baxuko adierazlearen bilakaera positiboarekin, eta, bestetik, 2018 eta 2020 artean gabekia materialaren adierazlearen beherakadarekin, 2016 eta 2018 artean argi eta garbi hauteman zena.

**Desberdintasuneko adierazleak. 2020.**  
**46. irudia**




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saila. PGDI (2020) eta Eurostat.  
 (\*) 2019ko datuak (\*\*) 2018ko datuak

Aitzitik, desberdintasuneko adierazle nagusiek ez zuten hain joera positiborik erakutsi. 2014tik 2016ra bitarteko adierazleen ildo positiboa hautsi egin zen 2016 eta 2020 artean, eta are gehiago 2018 eta 2020 artean. Bai Gini koefizienteak, bai Euskadiko biztanleriaren %20 aberatsenen diru sarrerak eta %20 behartsuenen diru sarrerak lotzen dituen ratioak serie osoko erregistrorik altuenak aurkeztu zituzten.


Familiak errentak lortzeko modurik ohikoena lana da. Soldatak dira lan egiteko adina duten familia unitateen funtsezko euskarria. Azterketa horri esker, jakin dezakegu zer bilakaera izaten ari den emakumeek eta gizonak jasotzen dituzten diru-sarreraren artean dagoen aldea; izan ere, soldata arrakala esaten zaio balio horri. 2019an, azken datu ezaguna, emakume batek 26.200 euro irabazi zituen batez beste, eta gizon batek, berriz, 32.500 euro. Beraz, bi kolektiboen arteko aldea 6.300 eurokoa izan zen.

**Soldataren bilakaera EAEn. Soldata arrakala. 2008. urtea= 100**  
**47. irudia**

Soldata arrakala. Guztira



Soldata arrakala. 45 eta 54 urte bitarteko biztanleria




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Soldata arrakala handitu egiten da adinarekin batera, baina 55 urtetik aurrera aldea murriztu egiten da. Hala, 45 eta 54 urte bitarteko adin tartean, gizonen (35.600 euro) eta emakumeen (27.800 euro) batez besteko soldataren arteko aldea ia 7.800 eurokoa da. Beste muturrean, 25 urtetik beherako pertsonen 1.000 euroko arrakala dute, bi generoetako batean ere 14.000 eurora iristen ez diren soldata batzuen ondorioz.

Soldata arrakalaren maila ezagutzea bezain garrantzitsua da arrakalaren bilakaerari erreparatzea. Gaingiroki, 2008tik 2012ra bitarteko finantza krisian, bi generoen batez besteko soldataren arteko aldea nabarmen handitu zen, ia %20. EAeko ekonomia suspertzen hasi zenean, arrakala pixka bat murrizten joan zen. Hala ere, 2019an arrakalaren murrizketa oso esanguratsua izan da. Izan ere, bi generoen batez besteko soldataren arteko aldea azken hamabi urteetako txikiena izan zen urte horretan, eta 2008koa baino pixka bat txikiagoa da, urte horretarakoak baitira lehen datuak. Arrakalaren murrizketa, intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin, adin tarte guztietan antzematen da.


**Batez besteko eta erdiko soldaten bilakaera. 2008. urtea=100**  
**48. irudia**



Iturria: INE. Soldaten egitura.


Orobat, arrakalak behera egin du batez besteko soldata etengabe igitzen ari den fase batean: %3,5 hazi da 2018. urtearekin alderatuta eta %15,4, berriz, 2008. urtearekin alderatuta. Ondorengo grafikoak iradokitzen duen bezala, emakumeek lortutako soldata igoera gizonena baino nabarmen handiagoa izan zen, eta horrek azaltzen du arrakalaren murrizketa. Izan ere, 2018ra arte diru sarreren igoera, ehunekotan, antzekoa izan zen bi generoetan, baina 2019an, emakumeen batez besteko igoera %5,8koa izan zen, eta gizonena %1,7koa. Soldata ertainaren igoera ere esanguratsua izan zen (%2,7 eta %12,8, hurrenez hurren), baina batez besteko soldatarena baino txikiagoa. Horrek esan nahi du soldata igoerak mesede handiagoa egin diela lan errenta handienak jasotzen dituzten pertsoneri. Adierazle horretan ere handiagoa da emakumeen igoera.

**Batez besteko soldataren bilakaera EAEn. 2008. urtea=100**  
**49. irudia**



Iturria: INE. Soldaten egitura.

**Erdiko soldataren bilakaera EAEn. 2008. urtea=100**  
**50. irudia**




Iturria: INE. Soldaten egitura.



2019an soldata arrakala murrizteko arrazoi nagusietako bat urte horretan lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) nabarmen igo izana da, hilean 735,90 eurotik hamalau ordainsaritan 900,00 eurora igaro baitzen. Espero zitekeen bezala, iguera horrek mesede egin zion 10. pertzentilari, hau da, soldatarik baxuenak jasotzen dituzten soldatapeko biztanleen %10i. Kolektibo horrek ia ez zuen jaso batez besteko soldata igoerarik, eta 2018an 2008an baino batez besteko soldata txikiagoa jasotzen zuen. Hala ere, 2019an jauzi handia gertatu da, eta balio hori 2008ko kopurua baino %7,6 handiagoa da. Hala ere, iguera hori 90. pertzentilak metatutakoa baino askoz txikiagoa da, 2019an, batez beste, 2008an baino %16,7 gehiago kobratu baitzuen.

**Soldaten bilakaera EAEn. Pertzentilen arabera. 2008. urtea=100**  
**51. irudia**




Iturria: INE. Soldaten egitura.

2019ko LGSren igoeraren beste ezaugarri bat da eragin eskusiboa izan zuela emakumeen soldata igoeran. Hain zuzen ere, 10. pertzentilean sartzen diren pertsonak generoaren arabera bereizita, ikusten da emakumeek %13,1eko iguera izan zutela batez besteko soldatan, eta, beraz, soldata maila 2008an jasotzen zutena baino %3,7 handiagoa izan zela, diru sarrerak murriztu ondoren. Bestalde, 2019an, gizonen artean ez zen inolako aurrerapenik izan, eta batez besteko soldata zertxobait murriztu zen (-%0,5). Alde horrek agerian uzten du diru sarrera txikienen taldean emakumeei kalte egiten dien joera bat dagoela. Zifretan adierazita, kolektibo horretako emakume batek, batez beste, 8.700 euro baino gutxiago jaso zituen 2019an, eta gizon batek, berriz, 14.400

euro. Euskadiri buruzko informaziorik ez dagoenez, erreferentzia gisa balio du estatuan emakumeen %25ek irabazten duela LGS, eta gizonen %11k soilik. Bestela esanda, LGS irabazten duten edo gutxiago irabazten duten pertsonen bi heren emakumeak dira.

**Soldaten bilakaera EAEn. Pertzentil 10. 2008. urtea=100**  
**52. irudia**




Iturria: INE. Soldaten egitura.

LGSk 2019an izandako igoera handiaren ondorioz, 2018an erdiko soldataren %40 izatetik 2019an %48 izatera igaro da, oso bultzada esanguratsua, baina oraindik urrun dago Europako Batzordeak eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) LGSa soldata medianaren %60ra igotzeko egindako gomendiotik. Hori dagoeneko lortu da Frantzian (%66) eta Portugalen (%64). Ildo horretan mintzatu da Espainiako Gobernuak adituen batzordea, LGS 1.012 eta 1.047 euro artean igotzea gomendatzen dutenean.

Soldata abanikoaren beste muturrean, soldata handienak dituzten %10ak %1,8ko igoera izan zuen 2019an, batez besteko igoeraren ia erdia (%3,5). Hemen ere emakumeen kasuan emaitza hobea ikusten da, bai aurreko urtearekin alderatuta (%3,1), bai estatistika horren hasiera datarekin alderatuta (%26,6). Gizonen kasuan, igoera horiek %2,7koak eta %17,0koak izan ziren. Azken horri lotuta, ikusten da erantzukizun handieneko lanbideak alderatu ahala murrizten dela soldata

arrakala. Hain zuzen ere, lanbide altuetan, arrakala 5.055 eurokoa da, batez bestekoetan 8.493 eurokoa eta bajetan 9.868 eurokoa.

**Soldaten bilakaera EAEn. Pertzentil 90. 2008. urtea=100**  
**53. irudia**



Iturria: INE. Soldaten egitura.

Prestakuntza, beraz, generoen arteko arrakala murrizten duen ezaugarria da, baina are garrantzitsuagoa da lan merkatuan ematen den denbora. Hau da, soldata arrakalaren baldintzatzaile handiena pertsona bakoitzak egiten duen lanaldi mota da. Hala, lanaldi partzialeko enplegua nagusiki emakumezkoek egiten dute; izan ere, emakumeen %25 inguruk du lanaldi hori, eta gizonen %6k soilik. Osaera desberdin horren ondorioz, arrakala 6.332 eurora igotzen da batez beste, lehenago adierazi den bezala. Orduan, lanaldi osoan lan egiten duten pertsonen arteko aldea 3.500 eurokoa da soilik, eta lanaldi partzialean lan egiten dutenen artekoa, berriz, 2.500 eurokoa (2018ko datuak).

### **3.5 Etorkizuneko eszenategiak**

Pandemiak etorkizunaren pertzepzioa nahastu du. Munduko ekonomiarako aurreikuspenak ziurgabetasun handiz inguratuta daude; izan ere, herrialde edo ekonomia eremu bakoitzaren ohiko ezaugarriez gain, zenbait baldintzatzaile daude orain, eta, ondorioz, zailagoa da epe ertain eta luzean etorkizuna nolakoa izango den aurreikustea. Baldintza horien artean, pandemiaren bilakaera bera nabarmentzen da. Biztanleriaren txertaketa masiboari esker kutsadurei azkar eusteak munduko ekonomia hedatzeko fasera itzultzea erraztuko du. Aitzitik, birusaren mutazioak agertzeak zaildu egin dezake birusaren aurkako borroka, eta egungo txertoen eraginkortasuna murriztu. Oro har, ekonomia garatuek eta garatzeko bidean dauden herrialde batzuek txerto ugari izatea espero da 2021eko udan, eta arrazoizko prezioan eskainiko dira. Babes eta miaketa neurriek maila baxuetako tokiko transmisioak murriztuko dituzte, baina andui berrien iritsierak eremu mugatuetan noizbehinkako konfinamenduak eragin ditzake.

Halaber, erabakigarriak izango dira susperraldi hori bultzatzeko jarraituko diren politikak. Herrialdeek, bereziki gutxien garatuta daudenek, egindako bultzada ekonomikoa ez da nahikoa izan, 2020an bizitako atzeraldiaren intentsitatearen aurrean. Era berean, finantza baldintzak eta moneta politika oso lagungarriak izango dira prozesu horretan, eta gehiegikeriek inflazio egoerarik sor ez dezaten zaindu beharko da, lehengaien garestitzearen eskutik. Gainera, hartutako neurriek ondorioak izan ditzaten utzi beharko da, lehenbailehen erretiratu gabe.

Idea horiek testuinguru gisa hartuta, Nazioarteko Diru Funtsak 2026ra arteko agertoki makroekonomiko bat argitaratu zuen apirilean herrialde eta eremu ekonomiko nagusietarako. Eszenategi horretan, 2021ean BPGaren hazkunde bikaina lortuko du munduak (%6,0), eta hartutako neurrien eragina hurrengo urtera ere zabalduko da (%4,4). Ondoren, urteko aldakuntza tasa maila apalagoetara hurbilduko da, %3,0tik apur bat gorakoetara, alegia. Ibilbide horretan, ekonomia garatuek aurrerapen mugatuagoa izango dute: hazkunde handiak izango dituzte 2021-2022 aldian, eta, ondoren, %1,5 inguruko hazkundeak eskuratuko dituzte. Bestalde, garapen bidean dauden herrialdeek, Txinak eta Indiak gidatuta, bilakaera profil dinamikoagoa izango dute, eta %4,5 inguruan egonkortuko dira.

Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, munduko hazkundearen erritmoaren moderazioa pandemiak eskaintza potentzialean eragin duen kaltearen ondorio izango da, bai herrialde garatuetan bai garapen bidean daudenetan, lan indarraren hazkunde txikiagoagatik, biztanleriaren zahartzeagatik eta Txina ekonomia jasangarriago bihurtzeko bilatzen ari den berrerekagatik. Horregatik guztiagatik, haren proiektzioak iradokitzen du BPGaren mailak pandemiaren aurreko joeraren azpitik

mantenduko direla 2024ra arte herrialde gehienetan. AEBetan 2021eko lehen seihilekoan lortuko da 2019ko urtearen amaieran zeukaten jarduera mailara itzultzea, eta Japonian, berriz, bigarren seihilekoan. Eurogunearen eta Erresuma Batuaren kasuan, 2022ra arte itxaron beharko da galdutakoa berreskuratzeko.

**BPG errealtaren bilakaera**  
**36. taula**

Tasas de variación interanual

|                             | 2021       | 2022       | 2023       | 2024       | 2025       | 2026       |
|-----------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| <b>Munduko ekonomia</b>     | <b>6,0</b> | <b>4,4</b> | <b>3,5</b> | <b>3,4</b> | <b>3,3</b> | <b>3,3</b> |
| Ekonomia garatuak           | 5,1        | 3,6        | 1,8        | 1,6        | 1,5        | 1,5        |
| AEB.                        | 6,4        | 3,5        | 1,4        | 1,5        | 1,6        | 1,6        |
| Japonia                     | 3,3        | 2,5        | 1,1        | 0,7        | 0,6        | 0,5        |
| Erresuma Batua              | 5,3        | 5,1        | 2,0        | 1,8        | 1,5        | 1,4        |
| Alemania                    | 3,6        | 3,4        | 1,6        | 1,5        | 1,2        | 1,1        |
| Frantzia                    | 5,8        | 4,2        | 1,7        | 1,5        | 1,4        | 1,2        |
| Italia                      | 4,2        | 3,6        | 1,6        | 0,9        | 0,9        | 0,8        |
| Espainia                    | 6,4        | 4,7        | 2,8        | 2,4        | 1,4        | 1,4        |
| Garapen bidean dauden ekon. | 6,7        | 5,0        | 4,7        | 4,6        | 4,5        | 4,4        |
| Txina                       | 8,4        | 5,6        | 5,4        | 5,3        | 5,1        | 4,9        |
| India                       | 12,5       | 6,9        | 6,8        | 6,7        | 6,6        | 6,5        |
| Errusia                     | 3,8        | 3,8        | 2,1        | 1,8        | 1,8        | 1,8        |
| Brasil                      | 3,7        | 2,6        | 2,1        | 2,0        | 2,0        | 2,0        |

Iturria: NDF.

EAEko ekonomiari dagokionez, 2021-2030 aldirako oinarrizko eszenategiak, nola ez, herrialde garatuetarako deskribatutakoaren antzeko bilakaera erakusten du, non 2020ko eta 2021eko hazkunde handiek hurrengo urteetan erritmo leunagoi bide ematen dieten. Lehen urte horietan, kontsumo pribatua suspertu egin da, ekonomiaren batez bestekotik gora, pandemia denboran sortutako aurrezpenak bultzatuta. Era berean, kapital eraketa gordinak hazkunde nabarmena izango du, bereziki 2021ean. Bestalde, administrazio publikoen kontsumoa moteldu egingo da pandemiari aurre egiteko ezohiko neurriak kendu ahala. Hala eta guztiz ere, ez da kontsumo publikoaren jaitsierarik espero aurreikuspen muga osoan.

**Euskadiko oinarrizko eszenategi makroekonomikoa**  
**37. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

|                            | 2021       | 2022       | 2023       | 2024       | 2025       | 2026       | 2027       | 2028       | 2029       | 2030       |
|----------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| Gastua azken kontsumoan    | 6,1        | 5,0        | 1,8        | 1,3        | 1,4        | 1,1        | 1,0        | 1,2        | 1,4        | 1,6        |
| Etxeetako kontsumoa        | 7,1        | 6,0        | 2,0        | 1,3        | 1,4        | 1,1        | 1,0        | 1,3        | 1,5        | 1,8        |
| Herri adm. kontsumoa       | 2,7        | 1,8        | 1,0        | 1,4        | 1,2        | 1,2        | 1,2        | 0,9        | 1,0        | 0,8        |
| Kapital eraketa gordina    | 8,9        | 5,8        | 2,8        | 2,0        | 2,2        | 2,8        | 3,9        | 3,8        | 4,1        | 4,0        |
| Ekipamendu ondasunak       | 12,5       | 5,2        | 2,7        | 1,0        | 1,0        | 1,9        | 3,8        | 4,6        | 5,6        | 6,4        |
| Gainerako inbertsioa       | 7,5        | 4,2        | 2,9        | 2,5        | 2,8        | 3,2        | 4,0        | 3,4        | 3,5        | 2,9        |
| Barne eskaria              | 6,8        | 4,9        | 2,0        | 1,5        | 1,6        | 1,5        | 1,7        | 1,8        | 2,1        | 2,2        |
| Esportazioak               | 12,1       | 6,5        | 2,4        | 2,6        | 2,3        | 1,5        | 1,5        | 1,6        | 2,0        | 2,3        |
| Inportazioak               | 12,0       | 5,3        | 2,7        | 2,2        | 2,0        | 1,8        | 2,0        | 2,2        | 2,3        | 2,5        |
| <b>BPG</b>                 | <b>6,7</b> | <b>5,7</b> | <b>1,8</b> | <b>1,7</b> | <b>1,8</b> | <b>1,3</b> | <b>1,4</b> | <b>1,5</b> | <b>1,9</b> | <b>2,1</b> |
| Nekazaritza eta arrantza   | 4,6        | 8,4        | -4,0       | -0,8       | 0,3        | 0,5        | 0,1        | 0,0        | 0,3        | 0,7        |
| Industria                  | 9,5        | 5,0        | 1,4        | 1,4        | 1,3        | 0,6        | 0,8        | 0,8        | 1,3        | 1,6        |
| Eraikuntza                 | 6,2        | 5,1        | 2,8        | 2,3        | 2,1        | 1,6        | 1,7        | 1,6        | 1,7        | 1,6        |
| Zerbitzuak                 | 6,1        | 5,8        | 0,4        | 1,7        | 1,8        | 1,4        | 1,6        | 1,6        | 2,0        | 2,2        |
| Merkat., ostal. garraioa   | 10,3       | 7,8        | 1,8        | 1,6        | 1,8        | 1,3        | 1,4        | 1,5        | 2,0        | 2,2        |
| AA. PP., hezk. eta osasuna | 1,1        | 2,6        | 1,1        | 1,2        | 1,3        | 1,1        | 1,2        | 1,2        | 1,5        | 1,5        |
| Gainontzeko zerbitzuak     | 6,4        | 6,5        | -0,9       | 2,0        | 2,1        | 1,8        | 1,9        | 1,9        | 2,3        | 2,5        |
| BEG oinarrizko preziotan   | 6,8        | 5,6        | 0,7        | 1,7        | 1,7        | 1,2        | 1,4        | 1,4        | 1,8        | 2,0        |
| Ekoizkinen g/ zerga        | 5,4        | 5,9        | 11,5       | 2,4        | 2,3        | 1,5        | 1,7        | 1,7        | 2,3        | 2,4        |

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Sektorearen ikuspegitik, nabarmentzekoa da industriak aurten espero duen igoera handia, eta, aldi berean, gainerako sektoreek balio esanguratsuak jasoko dituzte, baina batez bestekotik beherakoak. Zerbitzuen barruan, espero da merkataritza, ostalaritza eta garraio taldeak oso tasa altua lortzea aurten, 2020. urtearekin alderatuta, urte horretan jardueraren murrizketak oso handiak izan zirelako. Bestalde, administrazio publikoari lotutako zerbitzuek bilakaera apalagoa erakutsiko dute aurten eta baita ia ekitaldi guztietan ere, 2030era arte.

Jarduera ekonomikoa bultzatzeak enpleguari mesede egingo dio. Lanaldi osoko lanpostu baliokideei dagokienez, aurten enplegua %4,9 handitzea espero da. Ehuneko hori %3,3ra arte apalduko da datorren urtean, eta hurrengo aldietan pandemiaren aurreko balioekin bat datozen zifretara jaitsiko da. Horrek langabezia tasa murrizten lagunduko du, 2020an batez beste %10,6 izatetik 2021ean %10,3 izatera eta 2022an %9,6 izatera.

Eszenategi hori egiteko, EAEko ekonomian eragina duten hainbat aldagai exogenoak hartu dira kontuan. Horien artean, inguruko herrialdeen portaera nabarmendu behar da. Oro har, herrialde garatuaren multzoak 2021ean eta 2022an hazkunde esanguratsua izango duela aurreikusten da, baina urteak igaro ahala tasa horiek apaldu egingo dira eta BPG potentzialera hurbilduko dira, %1,7aren inguruko tasa batera. Eurogunean, potentziala %1,0tik gorakoa izango da, eta Espainian, berriz, %2,0 ingurukoa.

Oinarrizko agertokiaren barruan, nazioarteko merkataritza pixkanaka suspertuko da, eta datozen urteetan %5aren eta %6aren artean hazteko joera izango du. Prezioei dagokienez, Europako KPIaren bilakaera neurritsua aurreikusten da, eta, oro har, taula makroekonomikoaren urte gehienetan %2aren azpian kokatuko da. Epe laburreko interes tasak negatiboak izango dira 2021ean, eta hazten hasiko dira 2022an bertan, baina betiere balio txiki samarretan. Euroaren eta dollarraren arteko kotizazioan ez da aldaketa handirik espero eta kotizazio hori euroko 1,16 dolarren inguruan kokatuko da, modu egonkor batean. Azkenik, aipatu behar da petrolioaren prezioa 70 dolar ingurukoa izango dela urte batzuetan, aurreikuspen honen arabera, baina 2028tik aurrera 100 dolarretik gora igoko dela.

Azkenik, aipatu behar da eszenategi makroekonomiko hori osatzeko ez dela kontuan hartu Europako ezohiko funtsen etorrera, Next Generation UE planetik eratorritakoa. Hainbat erakundek egindako simulazioen arabera, funts horiek datozen urteetako BPGa nabarmen handitu dezakete. Adierazi behar da Caixabankek Espainiarako egindako ariketaren arabera, egoera kontserbadorean funtsek bederatzi hamarren igoaraziko dutela hazkundera 2021ean, eta hortik puntu eta erdira igoko da emaitza 2024an. Gero, lau hamarretara moderatuko da 2026an. Inpaktu handiko agertokian, oinarrizko irtenbidearekiko hobekuntza ehunekoak honako hauek izango dira, hurrenez hurren: 1,2 puntu 2021ean, 2,6 puntu 2024an eta 1,2 puntu 2026an. Beraz, funts horiek nabarmen hobetuko dute txosten honetan aurkezten den EAEko ekonomiaren oinarrizko agertokia ere.